

txanela

Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

6

Greziatik Erromara

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 1. maila)

TXANELA 1

6. unitate didaktikoa

GREZIATIK ERROMARA

LABURPENA

Maddalenek, Ferminek, Urdintxok eta Poxek birraitonaren ametsa betetzea dute helburu, museo bat eraikitzea, alegia. Birraitonaren *Denboraren makina* konpondu dute, eta denboran eta espazioan barrena hainbat bidaiara egin, informazioa bildu eta jarduera asko eginda, museorako piezak eskuratuko dituzte. Unitate honetan, Maddalenen eta Ferminen abenturari jarraituta, hirugarren bidaiari ekingo diogu: antzinako greziarren eta erromatarren garaira joango gara.

Unitate hau, egitura simetrikoa duten bi ataletan (Grezia eta Erroma) banatuta dago. Atal bakoitzak lau sekuentzia ditu.

1. Aurre-ezagutzak piztu, aurreikuspen estrategiak landu eta gaiarekiko motibazioa sortzen saiatzeko jarduera sekuentzia. Sekuentzia horretan besteak beste, azalari behatu, komikia irakurri, abestia ikasi eta Grezia eta Erromako txokoa eraikiko dugu. Sekuentzia hori ezinbestekoa da gaiaren testuingurua zehazteko. Beraz, hasierako jarduera multzoa bi ataletan (Grezia eta Erroma) egingo dugu.
2. Greziarren eta erromatarren bizimodua ezagutzeko sekuentzia. Atal horretan gure hurbileko giza inguruneari buruzko hausnarketa sistematikoa bideratuko dugu, hainbat jardueren bitartez. Sekuentzia horiek hizkuntzaren aldetik eta ingurunearen aldetik, curriculumaren beharrak asetzeko parada emango digute. Izan ere, greziarren eta erromatarren bizimodua aitzakiatzat hartuta, eta elkarrizketaren lanketa sistematikoaren bitartez, ikasleen hurbileko giza inguruneari buruzko hausnarketa egingo dugu. Elkarrizketaren prozeduran sakonduko dugu greziarren bizimodua ezagutzen dugun bitartean eta ahozko aurkezpen motzak egingo ditugu, Erromako bizimoduarekin lotuta.

Hurrengo sekuentziak (testuen idazketa eta proiektuak) denbora asko eskatzen dute. Nahi eta nahi ez, sekuentzien arteko aukeraketa egin beharko duzue, ezinezkoa baita lau edo bost astetan guztietan sakontzea. Hala ere, hautaketa egiteko orduan, simetrikoak diren bi atalen arteko osagarritasuna bermatzen dela kontuan hartu beharko duzue. Hona hemen gure proposamena:

3. Greziar mitologia eta erromatarren eraikinak aztertzeo sekuentzietan testuen idazketarako proposamenak lutzatuko dizkizuegu. Hala ere, kondairak kontatuko dizkiegu, literaturaz goza dezaten. Kondairaz gogoratzen duten ekintza esanguratsuen liburuan idazten badute, jarduera bukatutzat emango dugu. Azalpen-testuen idazketan berriz, gehiago sakonduko dugu.
4. Ikastolako olinpiadak antolatuko ditugu proiektuaren urrats guztiei jarraituz. Bestalde, erromatar eraikinak aztertzen ditugun bitartean, Koliseoaren eta ubide baten maketa eraikiko ditugu, ez proiektu gisa, baizik eta lan osagarri gisa.

MATERIALA

- Unitate honen gida:
 - *Jarduera-zerrenda sekuentzien arabera sailkatuta*
 - *Unitateari dagozkion ziklo-amaierako helburuak*
 - *Unitateko ebaluazio-irizpideen taula*
 - *Unitatea bost astetan egiteko planaren proposamena*
 - *Jardueren azalpena eta helburuen eta ebaluazio-irizpideen arteko lotura*
 - *Eranskinak*
- Ikaslearen liburua, irakurgaiak, abestien CDa, jardueren CDa, lan-koadernoak, material osagarria, *Birraitonaren museoa 1* CD-ROMa eta *Birraitonaren museoa* bideoa.
- Liburu digitala (zoom-liburua)
- Argazki edo bideo makina, jokoak egiteko baliabideak, dama jokoa, Koliseoaren maketa eraikitzeo kartoia eta mosaikoak egiteko lekaleak.
- Gaiari buruzko web-orri interesgarriak. Informazio orokorra.

<http://www.liceodigital.com/historia/grecia/griegos1.htm>

<http://www.luenticus.org/articulos/03A015/index.html>

<http://thales.cica.es/rd/Recursos/rd98/HisArtLit/01/grec.htm>

http://encyclopedie-es.snyke.com/articles/grecia_antigua.html

http://es.wikipedia.org/wiki/Arquitectura_romana

<http://www.ihistory101.net/espanol/Rome/index.htm>

Oharrak:

- Gaztelaniari dagokionean, unitatean proposatutako jarduerak sekuentzian txertatuta daude. Jarduera horien izenburuak jardueren zerrendan azpimarratuta aurkituko dituzue.
- Lehen mailako ikasleek, normalean, ezer gutxi jakiten dute Grezia edo Erromari buruz, eta unitatea garatzen den bitartean eduki kontzeptualetan baino, ikasleen hurbileko giza ingurunean, ekintzailertzan eta hizkuntzaren ekoizpen eta ulermen estrategietan arreta jarriko dugu. Ondorioz, hasierako eta bukaerako kontzeptu-mapak liburuan ez jartzea erabaki dugu. Hala ere, ikasleek gaiari buruz dakitena eta ikasi nahi dutena azaleratzen saiatuko gara. Beraz, unitatearen bukaeran, interesgarria baderitzozue, aurreko unitateko kontzeptu-mapa egiteko prozedurari jarraituz, ikasitakoaren inguruko kontzeptu-mapa eraiki dezakezue DIN-A3 orrian.
- Liburuko 5. orrialdean azaltzen diren ikonoak (DVD, lan-koadernoak eta Irakurgaiak), neguko festei buruzko hainbat jarduerekin lotuta daude. (Ikusi 5. unitateko neguko festen inguruko eranskina)

JARDUEREN ZERRENDA SEKUENTZIAREN ARABERA SAILKATUTA			
SEKUENTZIA	PROIEKTUA	JARDUERAK	IZAERA
- Aurre-ezagutzak aktibatu. Elkarriketa - Aurreikuspen estrategiak landu - Motibazioa pizten saiatu		1. Azalari behatzea eta elkarriketa 2. Komikia 3. Greziako eta Errromako txokoa	1. Garrantzizkoa 2. Garrantzizkoa 3. Garrantzizkoa
Non eta nola bizi ziren greziarrak? - Kokapena - Alfabetoa - Bizimodua - Kondairak - Artea		4. Aintzinako Greziarrak non bizi ziren? 5. Greziar alfabetoa 6. Abestia 7. Nola bizi ziren aintzinako greziarrak? 8. Etxeak konparatuz 9. Zer egiten zuten aisialdian? 10. Dama-jokoa 11. Partenoiairen maketa 12. Greziako kondairak 13. <u>La liebre y la tortuga</u> 14. <u>Dramatización de la fábula</u> 15. <u>Vocabulario: los deportes.</u> 16. <u>Collage: lo que sabemos hacer bien</u> 17. <u>Variaciones de la fábula</u> 18. Ipuina: <i>Oihartzun eta Narziso</i> 19. Kondaira ordenatuz 20. Euskal mitologia: Tartalo 21. Artelana 22. Berria: artxibo arkeologikoa	4. Garrantzizkoa 5. Osagarria 6. Garrantzizkoa 7. Garrantzizkoa 8. Osagarria 9. Osagarria 10. Osagarria 11. Hautazkoa 12. Garrantzizkoa 13. Garrantzizkoa 14. Garrantzizkoa 15. Garrantzizkoa 16. Garrantzizkoa 17. Garrantzizkoa 18. Osagarria 19. Hautazkoa 20. Osagarria 21. Garrantzizkoa 22. Hautazkoa
	Olinpiadak planifikatu, gauzatu, komunikatu eta balioetsi	23. Proiektua: olinpiadak 24. Zer ikasi behar dugu olinpiadak egiteko? 25. Bideoa: Olinpiar Jokoak. 26. Azalpen-testua: Olinpiar Jokoak. 27. Abestia: <i>Idia eta harria</i> 28. Hitz gurutzatuak 29. Greziarren joko herrikoiak 30. Mezua osatu: Maratoia 31. Jolasen aukeraketa eta arauak 32. Bertsoa osatu: nolako jarrera 33. Entzunaldia: <i>Suzko gurdiaK</i> 34. Baliabideak eta arduradunak 35. Ekipo baten moduan joka dezagun 36. Etxerako oharra: jantzi egokia 37. Ikastolako olinpiadak 38. Proiektuaren balorazioa 39. Bukaerako komikia 40. Gorputz-jarduera eta osasuna	23. Garrantzizkoa 24. Garrantzizkoa 25. Garrantzizkoa 26. Garrantzizkoa 27. Osagarria 28. Osagarria 29. Osagarria 30. Osagarria 31. Garrantzizkoa 32. Garrantzizkoa 33. Osagarria 34. Garrantzizkoa 35. Garrantzizkoa 36. Osagarria 37. Garrantzizkoa 38. Garrantzizkoa 39. Garrantzizkoa 40. Garrantzizkoa
- Aurre-ezagutzak aktibatu. Elkarriketa - Aurreikuspen estrategiak landu - Motibazioa pizten saiatu		41. Komikia 42. Greziako eta Errromako txokoa	41. Garrantzizkoa 42. Garrantzizkoa
Non eta nola bizi ziren Erromatarrek? - Kokapena - Sorrera: Romulo eta Remo - Legionarioak - Bizimodua - Erromatarrek Euskal Herrian - Erromatarrek eraikitzaile apartak		43. Aintzinako erromatarrek non bizi ziren? 44. Bertsoa 45. Romulo eta Remo 46. Artelana: Romulo eta Remo 47. Legionarioaren marraskia 48. Igarkizunak 49. Abestia: <i>Ave Cesar!</i> 50. Mezu sekretua: Julio Zesar 51. Non eta nola bizi ziren erromatarrek? 52. Letra-zopa: erromatarren dendak 53. Erromatarren dieta 54. Erromatarren moda 55. Kristautasuna 56. Ba al zenekien? Erromatarren dirua 57. Erromatarren aisialdia 58. Joko kooperatiboa 59. Entzunaldia. Saint-Saëns 60. Nola jantzen ziren? 61. Olerkia: erromatar emakumearen edertasuna 62. Erromatarrek Euskal Herrian: 63. Erromatarrek bezala pegarrak egingo ditugu 64. Berria 65. Latina eta euskara 66. Komikia egiten 67. Abestia: <i>Arraroa noski</i> 68. Ipuina: <i>Iñabe eta Numeriano</i> 69. Erromatarrek eraikitzaile apartak 70. Bertsoa: erromatarrek eraikitzaile apartak 71. Maketak: koliseoa eta ubidea 72. Zirkua: akatsak identifikatu eta deskribatu 73. Roman mosaics 74. Lanaren balorazioa eta komunikazioa 75. Bukaerako komikia: Hau al da zirkua?	43. Garrantzizkoa 44. Garrantzizkoa 45. Garrantzizkoa 46. Garrantzizkoa 47. Garrantzizkoa 48. Garrantzizkoa 49. Garrantzizkoa 50. Osagarria 51. Garrantzizkoa 52. Osagarria 53. Osagarria 54. Osagarria 55. Osagarria 56. Osagarria 57. Osagarria 58. Garrantzizkoa 59. Garrantzizkoa 60. Osagarria 61. Hautazkoa 62. Osagarria 63. Osagarria 64. Hautazkoa 65. Hautazkoa 66. Hautazkoa 67. Hautazkoa 68. Osagarria 69. Garrantzizkoa 70. Osagarria 71. Garrantzizkoa 72. Osagarria 73. Garrantzizkoa 74. Garrantzizkoa 75. Garrantzizkoa

**6. UNITATE DIDAKTIKOA:
ZIKLO AMAIERAKO HELBURUEN ETA JARDUERREN ARTEKO HARREMANA**

HIZKUNTZA ARLOA (1)

HELBURUAK	JARDUERAK
1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gai ei buruzkoak).	10, 12, 13, 15, 18, 20, 64, 68
1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.	10, 22, 25, 26, 56, 62
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	1, 2, 4, 7, 13, 15, 18, 19, 20, 23, 24, 25, 38, 39, 40, 43, 47, 62, 68, 74
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.	3, 16, 42, 51, 69
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	2, 5, 6, 8, 9, 18, 19, 27, 28, 29, 30, 32, 39, 41, 44, 48, 45, 49, 50, 52, 53, 54, 56, 57, 60, 61, 65, 67, 70, 75
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	2, 22, 26, 39, 41, 64, 66, 75
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazio aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.	69
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarriko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	5, 9, 17, 29, 31, 34, 36, 38, 55, 57, 68, 70, 66, 69, 72
1.9 Testu, perpaus eta hitzaren eremuko elementuen ezaugarriak eta funtzionamenduari buruzko oinarriko ezagutzak erabiltzea, norberaren zein besteen testuen sortze- eta berrikuste-prozesu gidatuetan.	9, 19
1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.	14, 17
1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeke eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.	14
1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsoneala, kulturala, sozialeala) eraikitzeke ere.	6, 12, 13, 18, 20, 27, 32, 44, 48, 45, 49, 61, 62, 67, 68

INGURUNEAREN EZAGUERA ARLOA (2)

2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie ne, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	13, 15, 16, 38, 40, 58
2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	27, 58, 62
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakariengatik inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoak eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	3, 4, 7, 40, 42, 43, 47, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 60, 65, 67, 69

ARTE HEZKUNTZA ARLOA (3)

3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.	33, 59, 71, 73
3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.	6, 47, 49
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.	11, 21, 28
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	11, 16, 21, 33, 45, 48, 59, 63, 73

HELBURU METADISZIPLINARRAK (4)

4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	1, 14, 22, 29, 31, 34, 35, 37, 48, 63, 66, 71, 73
4.3 Bizikidetzeta demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarriko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.	31, 32, 33, 35, 37

1. 6U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.	1.1.2 Elementuen esanahia interpretatzen da.	1.1.4 Testu baten oinarriko ideiak erabiltzen ditu.	1.2.2. Datuak zeregina burutzeko erabiltzen ditu.	1.3.1 Berez parte hartzen du ekarpenak egiteko.	1.3.2 Esandakoari buruzko galderak erantzuten die.	1.3.4 Elkarrizketa arauak aplikatzen saiatzen da.	1.4.1 Aurkezpenetan elkartanean aritzen da.	1.4.3 Era ulergarrian adierazten ditu ideiak.	1.4.4 Aurkezpenetan zuzentasunez hitz egiten du.	1.5.1 Idatzia behaketa aktiboki parte hartzen du.	1.6.2 Testu genero sarrinak bereizten ditu.	1.6.3 Hitzekoak ez diren elementuak interpretatzen ditu.	1.7.1 Galderak erantzuteko informazioa aurkitzen du.	1.8.1 Erakitzeko prozesuan aktiboki parte hartzen du.	1.8.2 Egoeraren araberako edukiak erabiltzen ditu.	1.8.3 Testu egoki aurkezten du.	1.8.6 zuzentazunez adierazten ditu ideiak.	1.8.8 Ikasleekin testua sortzean parte hartzen du.	1.9.3 Testu edo perpeus atalak ordenatzen ditu.	1.11.1 Euskaraz/gaztelania erabiltzen du.	1.12.1 Testu motzak ulertzeko moduan erabiltzen ditu.	1.13.1 Literaturaz gozaitzen du.		
JARDUERAK	10 12 18 20 68	12 13	15 18 20 64	10 22 25 26 56 62	1 39 2 40 4 43 7 47 13 62 23 68 24 74 25 38	15 18 19 20 38	1 7	51	16 51 69	3 42	2 45 5 48 6 49 8 50 9 52 18 53 19 54 27 56 28 57 29 60 30 61 32 65 39 67 41 70 44 75	22 26 64 66	2 39 41 75	69	5 29 31 34 38 66 69 72	68	9 17 36 55 57 70	55 57 72	17 36 68 69	9 19	14 17	14	6 12 13 18 20 27 32 44 48 45 49 61 62 67 68		
IKASLEAK																									
1.																									
2.																									
3.																									
4.																									
5.																									
6.																									
7.																									
8.																									
9.																									
10.																									
11.																									
12.																									
13.																									
14.																									
15.																									
16.																									
17.																									
18.																									
19.																									
20.																									
21.																									
22.																									
23.																									
24.																									
25.																									

1. U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK		2.3.1 Gorputzaren ezaugarriekiko errespetua adierazten du.	2.3.3 Ohitura osasuntsuen garrantziaz jabetzen da.	2.3.4 Emozioak identifikatzen ditu.	2.5.1 Kideen arteko harremaetan parte hartzen du.	2.5.5 Euskal Herriko hainbat kultur adierazpen ezagutzen ditu.	2.5.6 Bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da.	2.9.1 Ingurukio gertakaziak ezagutzeko interesa du.	2.9.2 Erregistroak egiten ditu.	2.9.3 Informazioa bilatzeko iturriak erabiltzen ditu.	3.1.4 Musika konposizio laburrak aktiboki entzuten ditu.	3.1.9 Entzunaldietan egoki jokutzen du.	3.2.2 Abestiak aho batez interpretatzen ditu.	3.2.8 Adierazpenarekin gozatzen du.	3.3.4 Arte objektuak aztertzeke jakin-mina du.	3.4.1 Marrazkiak egiten ditu.	3.4.2 Trazoaren aukerak probatzen ditu.	3.4.8 Materialak manipulatuaz gozatzen du.	4.1.1 Talde lanean aktiboki parte hartzen du.	4.1.2 Ideiak, sentimenduak eta proposamenak trukutzen ditu.	4.1.5 Adostasuna lorzeko elkarrizketa erabiltzen du.	4.1.7 Lan erritmo egokia izaten laguntzen du.	4.1.8 Materialak arretaz erabili eta jasotzen ditu.	4.3.3 Arauak balioesten ditu.	4.3.4 Bereizkeria egoeren aurrean sentikortasun jarrera du.		
JARDUERAK	13 16	40	1 5 3 8 5 8	58	27	62	51 52 53 54 55	7 4 0	3 4 42 43 47 56 57 60 65 67 69	59	33	6 49	47	11 21 48	16 33 45 59	21	11 48 63 71 73	1 14 22 29 31 35 37 48 66 73	34	31 34	37	37 63 71 73	31 35 37	32 33 35 37			
IKASLEAK																											
1.																											
2.																											
3.																											
4.																											
5.																											
6.																											
7.																											
8.																											
9.																											
10.																											
11.																											
12.																											
13.																											
14.																											
15.																											
16.																											
17.																											
18.																											
25.																											

TXANELA 1.6 : GREZIATIK ERROMARA!

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Azalari behatzea Komikia Greziako eta Erromako txokoa	Aintzinako greziarrak non bizi ziren? Greziar alfabetoa	Abestia Nola bizi ziren aintzinako greziarrak? (Hormairudiari behatu, gaiak banatu eta egoerak antzestu)	Nola bizi ziren aintzinako greziarrak? (etxeak) Etxeak konparatuz Greziako kondairak	Nola bizi ziren aintzinako greziarrak? (aisialdia) Zer egiten zuten aisialdian? Greziako kondairak
Nola bizi ziren aintzinako greziarrak? (demokrazia) Zer egiten zuten aisialdian II Greziako kondairak	Nola bizi ziren aintzinako greziarrak? (giza antolaketa) Dama-jokoa Greziako kondairak	Non eta nola bizi ziren greziarrak? (akropolia) Ipuina: Oihartzun eta Narziso Kondaira ordenatuz	Artelana Berria: artxibo arkeologikoa Euskal mitologia: Tartalo	Proiektua: olinpiadak Zer ikasi behar dugu olinpiadak antolatuzeko? Bideoa: Olinpiar Jokoak
Azalpen-testua: Olinpiar Jokoak Abestia. Idia eta harria Hitz gurutzatuak	Greziarren joko herrikoiak Mezua osatu: maratoia	Jolasen aukeraketa eta arauak Bertsoa osatu: nolako jarrera Entzunaldia: Suzko gurdiak	Baliabideak eta arduradunak Ekipo baten moduan joka dezagun Etixerako oharra: jantzi egokiak	IKASTOLAKO OLINPIADAK
Proiektuaren balorazioa	Bukaerako komikia Gorputz-jarduera eta osasuna.	Komikia Erromako txokoa Non bizi ziren aintzinako erromatarrak?	Bertsoa Romulo eta Remo Artelana: Romulo eta Remo.	Abestia: Ave Cesar! Mezu sekretua: Ave Cesar! Legionarioaren marrazkia
Non eta nola bizi ziren erromatarrak? (aisialdia, janzkera eta kristautasuna) Erromatarren moda (lk) edo Nola janzten ziren edo Erromatarren aisialdia edo kristautasuna (lk) Joko kooperatiboa	Non eta nola bizi ziren aintzinako erromatarrak? (etxeak, dendak eta dieta) Letra-zopa (lk) edo erromatarren dieta (lk) Entzunaldia	Non eta nola bizi ziren aintzinako erromatarrak? (garraioa eta dirua) Ba al zenekien? (irakurgaiak eta lk)	Erromatarrak Euskal Herrian (bideoa, mapa eta abestia) Komikia egiten	Ipuina Iñabe eta Numeriano (Irak. eta lib.) Abestia: Arraroa noski
IRTENALDIA	Erromatarrak eraikitzaile apartak: koliseoa Maketak egiten hasi: koliseoa eta ubidea	Erromatarrak eraikitzaile apartak: ubidea Zirkua: akatsak deskribatu	Erromatarrak eraikitzaile apartak: antzokiak Roman mosaics	Erromatarrak eraikitzaile apartak: galtzadak eta zubiak Bukaerako komikia Lanaren balorazioa

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardatzako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartek garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoan, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoan, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartek eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitalak jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 1

IKASLEAREN LIBURUA - 6. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0	 IRAKASLEA	Baliabideen taula	3	93	
1		Azalari behatzea eta elkarrizketa	3	93	
2		Komikia	4-5	94-95	
3		Gurasoentzako gutuna	5	95	
4		Europako mapa	6	96	
4		Google earth	6	96	
5		Alfabeto grekoa	6	96	
6		Musika ikasten ari gara	7	97	
6		Grezia dugu	7	97	
7		Non eta nola bizi ziren antzinako greziarrak?	8-9	98-99	
10		Dama jokoak	9	99	
12		Greziako kondairak 1	9	99	
12		Greziako kondairak 2	9	99	
12		Greziako kondairak 3	9	99	

12		Greziako kondairak	9	99	
18		Ohiartzun eta Narziso	9	99	Irakurgaiak 1, 68-71. or.
21		Artelana <i>Mironen diskoboloa</i>	10	100	
21		Greziako artea	10	100	
21		Greziako artea 1	10	100	
21		Greziako artea 2	10	100	
21		Greziako artea 3	10	100	
21		Greziako artea 4	10	100	
21		Greziako artea 5	10	100	
23		Olinpiadak	11	101	
25		Olinpiadak	11	101	
25		Olinpiadak 1	11	101	
25		Olinpiadak 2	11	101	
25		Olinpiadak 3	11	101	
27		Idia eta harria	11	101	
27		Euskal jokoak	11	101	
30		Mezu osatu <i>Maratoia</i>	11	101	Lan-koadernoak 2, 13. or.
31		Jolasen aukeraketa	12	102	

31		Taula	12	102	
32		<i>Maritxu nora zoaz doinua</i>	12	102	
33		Suzko gurdiak	12	102	
34		Baliabideak eta ardurak	13	103	
34		Taula	13	103	
38		Proiektuaren balorazioa	14	104	
39		Bukaerako komikia	16	106	
40		Gorputz-jarduerak eta osasuna	17	107	
40		Taula	17	107	
41		Komikia	18-19	108-109	
42		Gurasoentzako gutuna	19	109	
43		Antzinako erromatarrak non bizi ziren?	20	110	
44		<i>Pasaiako plazatik doinua</i>	20	110	
46		Artelana <i>Romulo eta Remo</i>	21	111	
46		Erromatarren eskulturak	21	111	
46		Erromatar artea 1	21	111	
46		Erromatar artea 2	21	111	
47		Legionarioen marrazkia	22	112	

47		Erromako legionarioak	22	112	
47		Legionarioak 1	22	112	
47		Legionarioak 2	22	112	
49		Ave Cesar!	23	113	
49		Ave Cesar!	23	113	
50		Mezu sekretua: Julio Cesar	23	113	Lan-koaderno 2, 18. or.
51		Non eta nola bizi ziren erromatarrak?	24-25	114-115	
55		Kristautasuna	25	115	Lan-koaderno 2, 22. or.
59		Camille Saint-Saëns	25	115	
62		Erromatarrak Euskal Herrian	26-27	116-117	
62		Amonaren latina	27	117	
62		Mertxe Urteagari elkarrizketa	27	117	
62		Iruña-Veleia	27	117	
62		Oiasso	27	117	
67		Arraroa noski	27	117	
68		Ipuina <i>Iñabe eta Numeriano</i>	33	123	Irakurgaiak 1, 80-83. or.
68		Ipuinaren bertsio luzea	33	123	
69		Erromatarrak eraikitzaile apartak	28-29	118-119	

69		Erromatarren eraikuntzak	29	119	
70		<i>Xarmangarria zera doinua</i>	29	119	
71		Maketak: Koliseoa eta ubideak	30-31	120-121	
73		Roman mosaics	32	122	
73		Mosaiko erromatarrak 1	32	122	
73		Mosaiko erromatarrak 2	32	122	
74		Lanaren balorazioa eta komunikazioa	34	124	
75		Bukaerako komikia <i>Hau al da zirkua?</i>	35	125	

JARDUERAK

1. JARDUERA SEKUENTZIA. Gaiaren aurre-ezagutzak aktibatu, motibazioa sustatu eta aurreikuspen-estrategiak landu.

1. jarduera	AZALARI BEHATZEA ETA ELKARRIZKETA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntua, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.3.4 Elkarrizketaren oinarriko arau sozio-komunikatiboak behar bezala aplikatzen saiatzen da (txanda gorde, hitza eskatu, solaskideak errespetatu...).</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian eta talde handian	
MATERIALA	Liburuaren azala eta talde txikiko partaideei beren funtzioa gogorarazteko irudia	
AZALPENA		

Gelako arduradunek liburuak banatuko dituzte eta ikasleei denbora-tarte bat eskainiko diegu liburuak ikusteko eta beren izena idazteko. Ondoren, unitate osoaren eta, batez ere, azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Haurren interesari jarraituz eta erronka kognitiboa bultzatuz, aurreikuspen-estrategiak lantzea eta gaiak motibatzea izango dugu helburu.

- Ikasleak talde txikian jarriko ditugu (3 edo 4 ikasle). Behaketa bideratzeko, talde bakoitzari galdera bat luzatuko diogu. Galderak honako hauek izan daitezke:

- Zer jartzen du liburuaren azalean? Denboraren makinan egingo dugun hirugarren bidaian, nora joango garela uste duzue? Agian, liburua idatzita egongo da nora joango garen.
- Imajinatzen al duzue nolakoa izango zen greziarren edo erromatarren garaia? Zer ikusiko dugu?
- Zer egingo dugu ikasitakoarekin? Aurreko unitatean bezala, proiektu bat egingo dugu. Zer izango da?
- Begira azalari. Zer ikusten duzue liburuaren azalean?

- Azken galdera horri erantzuten saiatzen den taldearekin bideratuko dugu nagusiki azalaren inguruko elkarrizketa, nahiz eta besteei ekarpenak egiteko aukera eskaini.

- Talde txikiko elkarrizketa antolatzeke kide bakoitzari honako funtzio hauetako bat emango diogu:

Moderatzailea. Talde txikian dauden bitartean, hitz egiteko txandak emango ditu.

Denbora kontrolatzailea. Irakasleak denbora muga bat jarriko du talde txikiko elkarrizketa egiteko eta ikasle horrek taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adierazi beharko dio; adibidez, denbora erdia pasa denean eta bi minutu geratzen direnean. Horretarako, kronometroak beharko ditugu.

Esataria(k). Taldean pentsatutakoa adieraziko diote talde handiari.

Idazkaria. Taldean esandakoak idatzi egingo ditu.

Talde txikiko lana bideratzeko komeni da ikasle bakoitzari bere funtzioa gogoraraziko dion irudia ematea. Irudi horiek plastifikatu, goiko alde zulatu eta soka jartzen badiegu, lepotik zintzilikatu ahal izango dituzte ikasleak. Denborari dagokionez, 8-10 minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasatu eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.

- Talde txikiko elkarrizketa bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Ondoren, talde handiari ekarpenak egiteko txanda emango diogu. Irakasleak ikasleen interesari jarraituz eta curriculumaren beharrak aurreikusiz, azalari buruzko elkarrizketa bideratuko du (Ikus *Elkarrizketa bideratzeko irizpideak* dokumentua). Azala aztertu duen taldearekin, honako hauek izan daitezke elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzue hemen? Ikusten al duzue ezaguna egiten zaizuen zerbait? Eta ezagutzen ez duzuen zerbait?
- Zer dira Ferminek buruan eta ondoan dituenak? Zertarako beharko ditu gauza horiek? Zuek inoiz erabili al duzue horrelakorik? Zer uste duzue pentsatzen ari dela Ferminek?
- Zenbat eraikin ikusten dituzue? Zuek ikusi al duzue horrelakorik? Zertan bereizten dira? Zertan dira berdinak? Zertarako erabiltzen dira? Zein gustatu zaizue gehiena? Zergatik? Zer irudituko litzaizueke bi eraikin horien maketak egingo bagenitu? Nola egin ditzakegula uste duzue?
- Loturarik ba al dago izenburuaren eta irudien artean? Gustuko gaia izango dugula uste duzue? ...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

2. jarduera	KOMIKIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i> .	
1.6	Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i> .	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
1.6.3	Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 4-5 orrialdeak	
AZALPENA		

- Aurreko unitateko komikian zer gertatu den gogoratu hasiko gara.
 - *Gogoratzen al zarete zer gertatu zen aurreko unitateko komikietan? Zergatik ez zuten Maddalenek eta Ferminen bidaiarik egin? Maddalen Ferminen etxera joan zenean, zer eraman zion? Zer buruzkoa zen liburu hura?*
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu; "festa" hitzari erreparatuko diogu:
 - *Zer nolako festa ospatuko dutela uste duzue? Zuek ospatzen al dituzue festa horiek? Zein da zuei gehien gustatzen zaizuen festa?*
- Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
 - *Zer dugu orri hauetan? (Komikia). Ezagutzen al dituzue azaltzen diren haurrak? Zertan ari direla uste duzue?*
- Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren baliabideetan (harridurak, zurrunbiloak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsuak iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - *Zertan ari dira Maddalen eta Fermin opilak egin ondoren? Zergatik da garrantzitsua erabilitakoak jasotzea eta dena txukun uztea?*
 - *Zuek ba al dakizue zein ziren greziarrak? Greziarrez mozorrotu diren horiek nola doaz jantzita? Zer dute eskutan?*
 - *Denboraren makinaren aurrean dauden eraikinak txabolak direla uste duzue? Zergatik esaten du Maddalenek "Nolako txabolak!"?*
- Haurrek, elkarren artean, irakurketa-maila ezberdina izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu).
- Gelakideen mailaren arabera, biko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (Fermin, Maddalen) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rola txandatu bi irakurketa eginez.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginez.
 - *Egin zuten azkeneko bidaiaren lehen gizakiaren garaira joan ziren. Orain berriz, nora joan dira? Ba al du zerikusirik komikian gertatu denak unitatearen azalarekin?*
- Maddaleni eta Fermini gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu.
 - *Zer uste duzue gertatuko zaiela gure pertsonaiei greziarren artean pasatuko duten denboralditxoan?*
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolastuko gara: haur bakoitzari hitz bat (SAN BLAS, KANDELARIA, SANTA AGEDA, INAUTERIAK, MOZORROAK, GREZIARRAK...) eskatu eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko du. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitetze antzeko maila duten haurrak elkartzen). Galdetu haurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.
- Gaian girotzeko, Grezian bagaude, greziar bihur gaitezke. Hainbat koloretako zintak edo zapiak lortu behar ditugu eta gaia lantzen dugun bitartean, buruan jarriko ditugu, greziarrek eramaten zuten bezalaxe. Egun hauetan ere, "egun on" edo "arratsalde on" esan beharrean, greziarren modura, "kalimera" edo "kalispera" esan dezakegu, erreberentzia batekin lagunduta.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

3. jarduera	GREZIAKO ETA ERRROMAKO TXOKOA (Ikusi txoko zuria dokumentua)
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskainitako jarraibideen laguntzaz.	
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.4.4 Zuzentasun onargarriarekin hitz egiten du, gelan landutako erabilera okerrak (hiztegia, morfosintaxia...) identifikatuz eta zuzenduz.	
2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Eranskinetan aurkituko duzun familientzako gutuna eta gaiaren inguruko materiala (liburuak, posterrak, argazkiak...)
AZALPENA	

Oraingo honetan txoko zuria, Greziako eta Erromako txokoa bihurtuko dugu. Beraz, txokoa antolatzen hasiko gara.

- Ikasleekin batera izenburua idatzi, apaindu eta zintzilikatuko dugu. Bestalde, irakasleak ekarritako zerbait txokoan kokatuko du, ikasleek txokoaren izaera irudikatzen has daitezen.
- Gurasoei gutun bat idatziko diegu, Maddalen eta Ferminen izenean, landu behar dugun gaia agertzeko eta materiala eskatzeko. Gogoratu, etxera bidali aurretik guztion artean gutuna irakurri behar duzuela. Gutuna gidaren bukaeran aurkituko duzue.
- Hainbat material jar dezakegu txokoa osatzeko: gaiaren inguruko liburu espezifikokoak, ipuinak, argazkiak, banderak, bidaia-liburuak, bideoak, etab. Txoko horretara hainbat hizkuntzatan argitaratutako materiala etorriko zaigu, dudarik gabe. Gaztelania lantzeko premia dagoen tokietan, ekartzen dituzten ipuinez, bideoz, etab. balia zaitezke, baita ere, proposamena indartzeko. Ingelesaren kasuan, beste hainbeste egin daiteke.
- Irakasleak ziurtatu beharko du txokoa ondo hornituta dagoela, batez ere, taldeko lana egiteko talde bakoitzeko informazio-liburu bat dagoela ziurtatuko du. Beraz, ikasleek ekartzen ez duten materiala ikastolak eskuratuko du, edo beste geletara ekarritakoa bilduko dugu hainbat jarduera egiteko orduan. Irakasleok ikasleak materiala ekartzera eta aurkeztera animatuko ditugu. Horrela, ekarritako materiala besteen eskura jarriz eta azalduz, txokoa eratzen parte hartuko dute. Irakaslearen lana, kudeaketa erraztuko duten tresnak eskaintzea eta lanen jarraipena egitea izango da.
- Ikasleek, materiala ekarri, proposatzen den jardueraren arabera baliatu eta aurkezpenak egingo dituzte. Ikasle guztiek ezingo dute aurkeztu txokora ekarritako materiala. Hala ere, aurkezpenak egin dituzten ikasleen izenak idatziz jasoko ditugu. Ikasleek, irakasleak aurrez prestatutako tresnak erabiliz, ekarritako materialaren eta aurkezpenen kontrol idatzia jasoko dute. Bestalde, arratsaldero, etxera joan aurretik, arduradunak txokoa txukuntzeaz arduratuko dira.
- Informazio ikurra liburuan ikusten dugun bakoitzean, edo gehiago jakin nahi dugunean, Greziako eta Erromako txokora joko dugu, informazio bila eta halaxe jakinaraziko diegu ikasleei.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

2. JARDUERA SEKUENTZIA. Non eta nola bizi ziren antzinako greziarrak?

4. jarduera	ANTZINAKO GREZIARRAK NON BIZI ZIREN?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizi natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 6. orrialdea, munduko mapa, Europako mapa, Greziako postalak, argazkiak, bidaia-liburuak. Bestalde, ordenagailua, proiektagailua, Interneteko konexioa eta Google Earth programa ordenagailuan instalatuta	
AZALPENA		

Gaia lantzerakoan, hurrek zenbaitetan antzinako Grezia herria zela pentsatzen dute eta gaur egun desagertuta dagoela. Beraz, proposatuko dizuegun jardueraren helburua, Greziari buruz berri ematea da. Horretarako, postalak, argazkiak edo bidaia agentzietako katalogoez gain, Google Earth programa erabiliko dugu.

Jardueraren hasieran irakasleak ikasleen aurre-ezagutzak martxan jarri eta ikasleek dakitena partekatzen lagunduko die. Irakaslearen lana, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarri egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea izango da. Bestalde, beharrezkoak diren azalpenak emango ditu, betiere, gogoratuz ikasleen hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna hipotesiak trukatzean eta ezagutzak birformulatzean garatu egiten dela.

- Liburua irekiko dugu 6. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoa, mapa, testua eta lupa.
- Gero, mapa zer den argituko dugu: *Ba al dakizue zer den hori? (MAPA) Zertarako balio du? Non aurki ditzakegu horrelakoak?*
- Irakasleak munduko mapa zabalduko du eta irudi hori ikasleen esperientziekin lotzen ahaleginduko da. Horretarako, gometsa bat erabiliz Euskal Herria kokatuko dugu. Ondoren, irakasleak ikasleei ea bidaiarik egin ote duten galdetuko die, eta hurrek izendatzen dituzten tokiak, mapan kokatuko ditu.
- Arbelean dugun munduko mapa eta liburuan azaltzen den Europakoa alderatuko ditugu. Irakasleak mundua sei lurraldetan banatuta dagoela esango die ikasleei eta kontinenteak mapan kokatuko ditu. Euskal Herria Europan dagoela esango die ikasleei.
- Orain Europako mapa liburuan behatuko dugu. *Zuek ba al dakizue mapan non dagoen Euskal Herria? Eta Grezia? Nola jakin duzue non jartzen dituen izen horiek? Zein letra ezagutzen duzue? Zergatik egongo ote dira era horretan idatzita? Oraingo, bestelako idazkera dela konturatu badira, nahikoa izango da. Hurrengo jardueran ekingo zaio idazkera pixka bat ezagutzeko jokotxo bati. *Euskal Herria eta Grezia gertu daudela iruditzen al zaizue? Nola joan gaitzake Greziara? Autoz joanez gero, zenbat egun beharko genituzke?**
- Orrialde honek ematen digun informazioarekin bukatu aurretik, lupari behatuko diogu. *Zer ote da hor eskuinean maparen gainean jarrita dagoena? Zertarako balio du lupak? Zer izango ote da lupa horren barruan dagoen irudia? Beno, beno ordenagailuan ere badugu programa bat Grezia gertutik ikusteko balio duena, martxan jarriko dugu bada.*
- Mapak irudikatzen duen lurraldea era xume-xumean zein den ikus dezaten Google Earth erabiliko dugu. Gelako edo informatika gelako ordenagailua eta proiektorea piztu eta ikasleak pantailari begira daudela Google Earth programa zabalduko dugu. Programa horren bitartez hegaldi birtuala egingo dugu. Horrela, hegan egingo bagenu bezala ikusiko ditugu Grezia eta Euskal Herria. Mapari eskala aldatzen diogunean zer gertatzen den ikusiko dute. Atenasera jaisten garenean, hango irudiak hiru dimentsiotan ikusiko dituzte, baita luparen barnean azaltzen den akropolis ere.
- Bukatzeko, Greziako txokoan ditugun irudiak ikusiko ditugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

5. jarduera	GREZIAR ALFABETOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea. 1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 8. orrialdea eta hainbat idazkeren adibideak. Eskuinetik ezkerreara egindakoak, txinatarren idazkera ideografikoa edo antzinako Egiptoko hieroglifikoak	
AZALPENA		

Aurreko jardueran ikusitako idazkerarekin jarraituz, kultura bakoitzak bere idazkera garatu duela adieraziko diegu ikasleei, eta idazkera horien adibideak erakutsiko dizkiegu. Marokoarrek, adibidez, eskuinetik ezkerreara idazten eta irakurtzen dute, txinatarrek idazkera ideografikoa dute, antzinako Egiptotik hieroglifikoak ezagutzen ditugu.

- Lan-koaderno irekiko dugu 8. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. *Zer izango ote da hor erdialdean azaltzen den hori? Goazen bada goiko testua irakurtzera, ea letra horiek zer diren esaten ote digun.*
- Irakasleak irakurri dezake eta ikasleak berarekin batera irakurtzera gonbidatu edo irakasleak irakurri ordez, gela erdiak irakurri dezake. Bitartean, beste erdiak mezua entzungo du. Ondoren, entzuleei galdetuko diegu: *Zer da, bada, hor agertzen den hori?* Erantzun egokia GREZIAR ALFABETOA izango litzateke. Ondoren denok azpimarratuko ditugu hitz horiek behean azaltzen dena zer den gogoratzeko.
- Orain, letrak banan-banan aztertuko ditugu konparazioak eginez eta xehetasunak aipatuz.
- Bukatzeko, proposatzen diguten ariketaren argibideak irakurriko ditugu. Orain goiko testua irakurtzean entzule lana egin duten ikasleek irakurriko dute. Besteek argibideak adi-adi zer dioten entzungo dute. Entzule-lana egin duten ikasleek taldeari zer egin behar den azaldu ondoren, bakarka lanean hasiko dira.
- Bukatzeko, banaka ikasleek beren izen-deiturak idatziko dituzte lan-koadernoan. Liburu digitalean eta Txanela.net-en alfabeto horren taula aurkituko duzue 5. unitateko 54. jardueran. Taula hori inprimatu eta Greziako txokoan jarri dezake irakasleak edo haur bakoitzari kopia bat eman.
- Gehiago jolastu nahi izanez gero, irakasleak arbelean greziar alfabetoa erabiliz hainbat hitz edo esaldi idatz dezake eta hurrek mezua deszifra dezakete.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

6. jarduera	ABESTIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 7. orrialdea eta abestien CDa, 30. pista	
AZALPENA		

Lluis Llachen doinu ezaguna oinarri hartuta, Mikel Mendizabalek osatutako bertso hori CDan daukagu. Gure haurrek Greziari buruz aurre-ezagutza gutxi dituztenez, bertsoak pixka bat girotzeko balio dezake.

- Lehenik eta behin CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuta, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Ikasleei testuan arreta jartzen laguntzeko, abestia proiektatu edo arbelean idatz dezakegu. Ikasleei tartetxo bat eskainiko diegu ilustrazioak eta testua begiratu/irakurtzeko. Testua irakurtzen hasi aurretik, marrazkiek haurrak pentsatzen jartzeko ematen diguten aukera baliatuko dugu galderen bitartez: *Zergatik azaltzen da marrazkian txalupa bat itsasoan? Garrantzitsua izango ote da itsasoa Grezian? Gurean garrantzitsua al da? Zergatik?*
- Kodearen inguruko behaketa bultza dezakegu. Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: *Grezia, ontzian, Ulises, Herkules, irla, kondaira... Bukatu esaldi hau "misteriozko kutxa..." "denborak duen aurpegi..." Nola bukatzen dira bi hitz horiek? Pentsatuko al dugu era berean bukatzen diren beste hitz batzuk?* (eguna, garuna, iluna, adarduna...). Asmatzen ez badituzte, definizio errazen bidez lagundu; adibidez: *Nolakoa da gaua? Iluna. Zer daukagu buruan garezurraren barruan? Garuna...*
- Bukatzeko, biribilean eta besoak zabaldua, Shirtakiren hainbat pauso erraz errepikatu eta elkarrekin dantzatu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

7. jarduera	NOLA BIZI ZIREN ANTZINAKO GREZIARRAK?
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
Bukatzeko, kodearen gaineko hausnarketa egiteko jolas moduko galderak egingo dizkiegu ikasleei; adibidez: *Zenbat aldiz azaltzen da protagonistaren izena? Ba al dago letra berarekin hasten den beste hitzik? Zein da zati honetan dagoen hitzik luzeena? Eta motzena?... Lantze hori egin ondoren, ikasleek liburua etxera eramango dute ipuina gurasoei irakurtzeko edo gurasoei kontatzeko.*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

19. jarduera	KONDAIRA ORDENATUZ	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i> .	
1.9	Testu, perpaus eta hitzaren eremuko <i>elementuen ezaugarriak eta funtzionamenduari buruzko oinarriko ezagutzak erabiltzea</i> , norberaren zein besteen testuen sortze- eta berrikuste-prozesu gidatuetan.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.2	Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).	
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
1.9.3	Testu edo perpaus atalak behar bezala ordenatzen ditu, emandako irizpideei jarraituz.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, banaka eta binaka.	
MATERIALA	Lan-koadernoko 12. orrialdea	
AZALPENA		

Hona hemen beste kondaira greko baten laburpena. Zatiak ordenatuz, era egokian irakurri ahal izango dute ikasleek.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 12. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, laukietan jarritako testuak eta zenbakiak idazteko biribilak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Zati horiek ordenatzeko hasierako hitzei erreparatuko diegula esango diegu. *Harrezkero, behin, egun batean* eta *bazen behin* hitzak azpimarratuko ditugu. Hitz horiei begiratu banaka zenbakiak idazteko eta ondoren binaka kontrastatzeko eskatuko diegu. Testua irakurri gabe, lehenengo eta azkeneko zatiak ondo jarriko dituzte seguru asko.
- Bigarren eta hirugarren zatiak zein diren erabakitzeko, ikasleen arteko eztabaida sustatuko dugu. Ikasle bati galdetuko diegu beren aukeraketaz. Ados ez dagoen beste bati zein aukeratu duen galdetuko diegu. Bi ikasle horien artean eztabaida sortzen saiatuko gara. Ikasle bakoitzak bere aukeraketarako arrazoiak eman beharko ditu. Erantzun egokia erabaki ondoren, prozedura bera jarraituko dugu hurrengo testuarekin.
- Bukatzeko, irakasleak ikasleei kondairaren laburpena irakurriko die eta ikasleak berarekin batera irakurtzera animatuko ditu.
- Denbora-antolatzaile horiek eta hurrei bururatzen zaizkien beste batzuk kartoi mehe handitan idatziko ditugu, eta arbelean edo horman itsatsiko ditugu. Ikasleei esango diegu lagungarri izango zaizkigula beren kabuz idazten dutenean.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

20. jarduera	EUSKAL MITOLOGIA: TARTALO	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.1 <i>Ahozko azalpen</i> simple eta kontestualizatuen <i>esanahi orokorra identifikatzea</i> (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaiei buruzkoak).		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.		
1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i> , baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.		
1.1.4 Entzundako testu baten oinarriko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.		
1.3.2 Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).		
1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	<i>Tartalo</i> . Elkar argitaletxea, Mari saila	
AZALPENA		

MARI saila euskal ipuin herrikoien bilduma da. Ipuin horiek ahozko tradizioan oinarritutakoak dira, Joxe Migel Barandiaranek *El mundo en la mente popular vasca* liburuan jasotakoak. Bilduma haurrei zuzendurik dagoenez, testuaren egokitze lan bat beharrezkoa zen, eta hori, ipuin honetan, Joxan Ormazabalek egin zuen.

Ipuinean Patxi artzainak, salbatu ahal izateko, hatz bat moztu beharko du. Adin honetako haurrek ipuina oso gustukoa badute ere, gertaera hori gogor samarra gerta dakiok hainbat haurri, baina bi alderdi azpimarratuz gero ez da arazorik sortzen: bata kondaira dela eta ez egiazko gertaera eta bestea, askoz ere hobea dela hatza galtzea Tartaloren sabelean bukatzea baino. Kondaira horren bertsio leunagoak badira ere, hau da Barandiaranek bildutakoari fideltasun handiena gordetzen diona, eta kontuan hartzekoa dela deritzogu.

IRAKURTZEN HASI AURRETIK

- Irakasleak ikasleei irakurriko die. Irakaslea aulki batean eseriko da, gelako liburutegiaren aurrean, eta ikasle guztiak berari begira lurrean eseriko dira.
- Ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diogu: *Ba al dakizue nor den Tartalo?* Ikasleen hipotesiak entzun ondoren, azalaren behaketa bideratuko dugu eta aurreikuspenak egitera animatuko ditugu haurrak. Azkenik irakaslea ipuina lasai eta ozenki, taldeari irakurtzen hasiko zaio.

IRAKURRI ONDOREN

- Irakurri ondoren elkarrizketa irekiko dugu Tough-en hainbat funtzio aktibatuz. Galdera horiek, jakina, irakasleak ikasleen interesen eta erantzunen arabera, egokitu, baztertu edo berriak asmatu beharko ditu.
 - *Gustatu al zaizue ipuina?*
 - *Zer gustatu zaizue gehien? Eta gutxien?*
 - *Zer sentituko zenukete Patxi artzainaren tokian egongo bazinete?*
 - *Zer iruditzen zaizue Patxik arazoari aurkitu zion/zizkion konponbidea(k)?*
 - *Zuei beste konponbiderik bururatzen al zaizue?*
 - *Begi bakarreko beste pertsonaiairik ezagutzen al duzue? Eta beste erraldoirik?*
 - *Nor da marrazkilaria? Gustuko al dituzue irudiak? Nola marraztuko zenukete beste era batera erraldoi begibakarra?*
- CD-ROMa erabiliz, ipuina berrikusi eta entzun dezakezue.
- Tartaloren mozorroa egin nahi baduzue, Kartoi mehe handi bat hartu eta hodi bat egin. Hainbat elementu erabiliz (soka, artilea, goma-espuma), ilea, bizarra, etab. jarri Tartaloren irudia egiteko. Ahoa zulatu kanpoaldea ikusteko. Begiari bolumen pixka bat eman nahi izanez gero, paper-orea egin dezakegu (komuneko/egunkari papera eta kola zuria nahastuz modelatzeko moduko ore bat lortu arte) edota zeta-papera kolaz itsatsi. Oraingo honetan, mozorroa irakaslearentzat izatea proposatzen dugu, bera baita gelako "erraldoia". Neska-mutil bikote bat protagonistak izan daiteke, eta beste guztiak artalde. Horrela, ipuin antzeztua egingo genuke daiteke. Hatz egiteko gomazko eskularru batetik moztu, kotoiaz bete eta margotu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

21. jarduera	ARTELANA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.3.4 Hainbat garai eta kulturatako irudiak eta arte-objektuak era bideratuan aztertzen ditu eta irudi eta objektu horiek sortu ziren testuinguruaren ezaugarriak buruzko jakin-mina adierazten du. 3.4.2 Nahita egindako trazuaren eta nahita egin gabekoaren adierazpen-aukerak probatzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Liburuko 10. orrialdea	
AZALPENA		

Greziarrak kirol zaleak eta eder zaleak omen ziren. Gizakiaren gorputzaren edertasuna oso aintzat hartzen omen zuten. Hona *Mironen Diskoboloa*, garaiko eskultore onentsuenaren artelana. Ospe handia du obra horrek eta artearen historian toki berezia du.

- Greziako Arteaz informazioa biltzeko web-orriak:

<http://thales.cica.es/rd/Recursos/rd98/HisArtLit/01/artegr.htm>
<http://www.artehistoria.com/frames.htm?http://www.artehistoria.com/historia/contextos/557.htm>
<http://usuarios.lycos.es/projo/photoalbum4.html>
<http://usuarios.lycos.es/projo/photoalbum5.html>
<http://usuarios.lycos.es/projo/photoalbum6.html>

- Liburua irekiko dugu 10. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: ikonoa, izenburua, irudia eta azalpen-testua.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Irudiaren azterketa bideratzeko, irakaslearen lana, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarri egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea izango da. Bestalde, beharrezkoak diren azalpenak emango ditu, betiere, gogoratuz ikasleen hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna hipotesiak trukatzearan eta ezagutzak birformulatzean garatu egiten dela. Hona hemen, elkarrizketa bideratzeko izan daitezkeen galderak:
 - *Zer ikusten duzue hemen? Gauzaren bat ezezaguna egiten al zaizue? Giharrak hain ongi ikusten zaizkion pertsonari nola esaten diogu? (GIHARTSUA). Azalaren azpian hezurak ikusten zaizkion pertsonari nola esaten diogu? (ARGALA). Zertan ari da eskulturan irudikatuta azaltzen den pertsona? Zertarako uste duzue jarri dela horrela? Zuek horrela jarri al zarete inoiz? Zertarako? Zer egin beharko du besoekin eta hankekin diskoa jaurtitzeko? Zuen ustez zergatik dago biluzik? Ikusten al duzue arazorik gerta daitekeenik egoera horretan? Arreta jarri aurpegian, indar handia egiten ari dela ematen du? Zer pentsatuko du egoera horretan dagoenak? Gustatuko al litzaizueke disko jaurtiketan jardutea? Eta estatuak izatea?*
- Txoko zurian dauden liburuetan eskulturak azalduko dira. Batzuk ondo aztertu ondoren, eredutzat hartuta, gure gorputzak eskulturak bihurtzeko. Horrela, gure gela museo bihurtzeko.
- Greziarren artelan gehiago ikusteko aurkezpena prest dago liburu digitalean edo Txanela.net-eko 5. unitateko 61. jardueran.
- Askotan egiten dugun bezala, gela bitan bana dezakegu. Batzuk eskultura izan daitezke eta besteak museoa bisitatzen ari diren pertsonak. Gero alderantziz. Irakasleak gidaren papera egin dezake.
- Eskulturrei argazkia atera eta webgunean zintzilikatu, ikasleen txokoan, ikastolen museo birtuala osatzeko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

22. jarduera	BERRIA: ARTXIBO ARKEOLOGIKOA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i>.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarrizko ezaugarriak hautemanaz.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 105. orrialdea
AZALPENA	

Antzinako Greziako beste alderdi aipagarria ARTEAren garapenari dagokiona da. Hainbat eta hainbat altxor arkeologiko aurkitu izan dira eta oraindik ere aurkitzen dira greziarren ekoizpen artistikoa begi-bistan uzten dutenak. Jarduera honetan, berria edo albistea aztertuko dugu, bai mezuari dagokionean eta baita egiturari dagokionean ere.

- Irakurgaiak liburua irekiko dugu 105. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orriaren behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: titularra eta mamia. Ikusarazi goian titularra dagoela eta behean berriaren mamia.
- *Zer ikusten dugu orrialde horretan?* (BERRIA). *Zertarako balio du? Non aurki ditzakegu horrelakoak? Telebistan ere berriak ematen al dituzte? Adibidez...*
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, berriaren titularra eta mamia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dituzte. Titularrarekin hasiko gara: *Inork ba la daki ALTXOR ARKEOLOGIKOA zer den? Agian berria irakurtzen badugu jakingo dugu!*
- Irakurri orain berria: *Lortu al dugu altxor arkeologikoa zer den jakitea? Bai, izen arraro asko zegoen baina, berriz irakurriko dizuet, ea lortzen dugun hori jakitea.*
- Bigarren irakurketa egiten hasi aurretik, arretaz entzuten laguntzeko, ikasleak talde txikietan jarriko ditugu eta hainbat talderen erantzuna aurkitu behar dutela esango diegu: *Nork aurkitu zuen altxorra? Non aurkitu zuen altxorra? Zer da altxor hori? Zerk osatu du altxor hori?*
- Esaldi bat irakurtzen dugun bakoitzeko beraien artean hitz egiteko edo eztabaidatzeko tarte bat eskainiko diegu. Talde bakoitzeko hitz egiteko txanda emango duen moderatzailea eta esataria aukeratzea komeni da. Eztabaidarako denbora bukatutakoan, esatariak taldean erabakitakoa esango dio talde handiari: *"Gure ustez... da"*. Beste taldeak ados badaude, testuarekin aurrera egingo dugu, bestela, taldeen arteko eztabaida eta iritziak arrazoitzea bultzatuko dugu.
- Bukatzeko, irakasleak testuan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.
- Agian, dagoeneko txoko zuria liburuz horniturik izango dugu, eta eskulturak, ontziak, etab. behatzeko aukera izango dugu.
- Animatu haurrak arkeologia nahiz gustuko beste edozein gairi buruzko berriak ikastolara ekar ditzaten.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

3. JARDUERA SEKUENTZIA. Proiektua: olinpiadak zer diren argitu, jokoak aukeratu, arauak zehaztu, baliabideak aurreikusi, baliabideen arduradunak izendatu eta olinpiadak egingo ditugu.

23. jarduera	PROIEKTUA: OLINPIADAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuk, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 11. orrialdea	
AZALPENA		

Antzinako Grezian asmatu ziren Olinpiar Jokoak edo Olinpiadak direlakoak. Orain iritsi zaigu gure "Olinpiadatxo" antolatzeke garaia.

Hasieran kirolaren eta osasunaren inguruko ezagutzak martxan jarri eta proiektua proposatu dugu. Ondoren, erabakiak hartzen hasteko faseari helduko diogu: zein joko aukeratu dituzten adostu, lana egiteko prozedura erabaki, taldeak osatu, arauak argitu, baliabideak aurreikusi, baliabideen arduradunak izendatu, denbora antolatu... Olinpiadak egin aurretik, entrenamenduak egin eta osasunaren inguruan harturiko konpromisoak beteko ditugu. Olinpiadak egin ondoren, proiektua bakarka eta taldean balioetsiko dugu (lanak, jarrera, gogo, gozamina, zailtasunak...), eta ondorioak aterako ditugu.

Proiektuaren helburuak bi dira nagusiki:

1. Osasuntsu bizitzeko kirola egitea oso garrantzitsua dela ohartzea.
2. Konpetentzia ekintzailea lantzen jarraitzea. Izan ere, horrelako egoeratan ikasleei hainbat balio lantzeko aukera ematen diegu: sormena, ekimena, elkarlana, arazoak konpontzeko gaitasuna, erantzukizuna, auto-konfiantza, hobetu nahia...

Planifikazioari edo antolaketari dagokionez, olinpiadak egiterakoan gelan bertan hainbat talde egin daitezke edo maila bereko gelen arteko olinpiadak antolatu daitezke. Guk proposatzen ditugun prozedurak talde bat hainbat taldetan banatzeko prestatuta daude. Gela guztien arteko olinpiada bakarra antolatu nahi baduzue, prozedura horiek zertxobait moldatu beharko dituzue. Beharbada, guk talde txikian lantzeko proposatzen duguna, zuek gela osoarekin egin dezakezue. Hala ere, kontuan hartu kirolarekin gozatzeaz gain, ikasleen autonomia eta taldean lana egiteko ahalmena bultzatu nahi ditugula. Beraz, gela osoa talde bat baldin bada, teknika horiek aplikatzeko modua pentsatu beharko duzue, jarduerak dituen helburuei erantzun nahi badiezue.

Bestalde, proiektuaren bukaeran interesgarria da ikasleak lanaren hausnarketa eta balioespena egitea, eta era eraikitzaile batean balioestea edo kritikatzeta: zer lan egin duten, zer gogo jarri duten, zerk gozarazi dituen, zer arazo sortu zaizkien...

- Gure gaurko lana proiektua garbi edukitzea eta lana burutzeko ideiak botatzea da. Proiektuaren garapeneke lehen urrats nagusia da. Hau da, haurrek zer egin behar duten jakin eta haren inguruan pentsatzen jartzeko lehen unea da. Aurrerago proiektua planifikatu, ekin, komunikatu eta balioetsiko dugu.
- Liburuak ireki, eman denbora orrialdea eta bere elementu guztiei (argazkiak, marrazkiak, ikonoak, globoak...) ondo behatzeko. Ondoren, gidatutako behaketa egingo dugu.
- Bonbillari beharazi eta zer adierazten duen galdetu. Esan ikasleei aurreko unitateetan bezala, proiektu bat egingo dugula. Gogora ekarriko dugu denboraren makina egiteko, dinosauroen garaiko maketa eraikitzeke, lehen gizakiaren antzerkia prestatzeko edo hamaiketako/askari osasuntsua antolatzeke eman genituen urratsak. Hau da, proiektuaren aurkezpen-orriari behatu eta antolaketarako ideiak sortu (planifikatu), liburuan ikusitakoa edota ikasitakoa gure proiektuan erabili edo aplikatu (ekin), gure lana beste batzuei erakutsi (komunikatu) eta egindako lanari buruzko iritzia jaso (balioetsi).
- Maddalenen eta Fermininen proposamenak aztertuko ditugu:
 - Zer esaten ari zaigu Maddalen? Esaten duen horretan hitzen bat ezezaguna al dugu? Behatu globoko 8. hitzari. (Irakasleak hitza arbelean idatziko du). Nola hasten da? Zer jartzen ote du? Zer esan nahi du? Antolatzea zer den badakigu? Ezkerrean badago beste globo bat. Irakurriko al dugu? Zer dira herri jolasak?
- Galderari erantzunez, interesgarria litzateke denon artean olinpiadak aurreikustea eta hitz egitea nolakoak izango diren, zer beharko dugun, zer egin beharko dugun...
- Globoen ondoren, irudiak aztertuko ditugu:
 - Zuen ustez zertan ari dira argazki txikiak haurrak? Zertarako egiten dute hori? Nola sentitzen dira? Zuek nola sentitzen zarete eginkizun horren aurrean?
 - Beno, beno, uste dut orain ere asko pentsatu beharko dugula eta lan handia egin beharko dugula gure olinpiadak antolatzen. Baina zuek artistak zarete horretan!

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

24 jarduera	ZER IKASI BEHAR DUGU OLINPIADAK EGITEKO?
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Lan-koadernoko 17. orrialdea
AZALPENA	

Jarduera honetan, beste aldagai bat sartu dugu. Alegia, unitatearen sekuentziak berak proiektuarekin duen mendekotasuna tarteko, ikasi beharrekoak lotura hertsia du burutu beharreko eginkizunarekin. Beraz, proiektua gauzatzeko, ustez, zer ikasi beharko dugun plazaratuko dugu jarduera honetan. Tresna horrek, ondorioz, bi zati izango ditu: bat, proiektua gauzatzeko jakin beharrekoak eta bigarrena, ikasleen interesei erantzuteko, gaia hedatzeko eta curriculumaren beharrak asetzeko ikasleek ikasi edo jakin nahi dutena.

Lehenengo atalari dagokionez (*Zer ikasi behar dugu olinpiadak antolatzeke?*), egin beharrekoak planifikatzen hasi beharko dute. Hemen dituzue aurreikusi daitezkeen hainbat lan: jokoak aukeratu, arauak idatzi, baliabideak zerrendatu, baliabideen arduradunak izendatu... Erantzunak eta galderak idatziz jasoko ditugu ikasleen begi-bistan egongo den poster handi batean, nola hala ikasnorabidea antolatuz. Ikasnorabidearen funtzioa eta helburua ikasleek ikasten ari direnaz jabetzea da. Landuko dutena aldeztu aurretik ezagututa, zer, nola eta zertarako ikasiko duten, eta landu ostean, ikasitakoari beste zentzu bat emateko aukera izango dute. Beraz, joan-etorrian erabiliko dugun tresna izango da. Edozein une izan daiteke egokia ikasnorabidera jotzeko, egiten ari garenaz jabetzeko.

Ikasnorabidearen bigarren atala, hau da, ikasleek ikasi nahi/behar dutena, gaia jorratzen ari garen bitartean garatzeaz gain, unitatearen bukaerako kontzeptu-mapa eraikitzeke ardatz moduan erabiliko dugu. Bukaerako lan hori osatzeko haurrak bizpahiru lagunek osatutako taldeetan elkartuko ditugunez, komeni da orain aurreikustea talde bakoitzak ikasnorabideko galdera bati erantzuna eman beharko diola. Horren ondorio zuzena da, galdera kopurua eta talde kopurua bat izaten ahalegintzea. Galdera kopurua oso ugaria bada, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusien arabera, eta xehetasunak galdera horien azpialtal moduan hierarkizatzea.

- Liburuaren orrian azaltzen den bezala, biribilean eseriko gara eta ikasleei bi galdera hauek luzatuko dizkiegu:
 - *Zer ikasi behar dugu olinpiar jokoak egiteko?*
 - *Zer ikasi nahi duzue elikagaiei eta Grezia eta Erromari buruz?*
- Ikasleei denbora-tarte bat isilean pentsatzeko eman ondoren, beren ekarpenak idatziz jasoko ditugu. Lehen esan bezala, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusiaren arabera eta xehetasunak galdera horien azpialtal moduan hierarkizatzea. Unitatearen garapena zerbait moldatu beharko duzue, haurrek planteatzen dizkiguten interesen arabera. Nola nahi ere, gidaren hasieran, egileok proposatzen dugun ibilbidearen edo sekuentzia tematikoaren eskema aurki dezakezue. Beraz, haurren ideiak horren arabera bideratu eta antola ditzakezue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

25. jarduera	BIDEOA: OLINPIAR JOKOAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Bideoa	
AZALPENA		

Bideoan olinpiadei buruzko informazio txiki bat aurkituko duzue.

- Entzun eta ikusiko dutena interpretatzen laguntzeko, ikasleak gaiari buruz dakitena azaleratzera eta hipotesiak egitera animatuko ditugu. Irakasleak hipotesi horiek idatziz jasoko ditu arbelean, eta bideoa ikusi ondoren, gure aurreikuspena zuzendu edo osatuko dugu.
- Ikasleen hasierako hipotesi zerrenda arbelean idatziz jasoko dugu.
 - *Zuek zer dakizue olinpiadei buruz? Zer ikusiko dugu bideoan?*
- Bideoa ikusi aurretik, ikasleei bideotik eskuratu nahi dugun informazioa jakinaraziko diegu.
 1. *Zer egiten zuten antzinako Greziako hirien artean?*
 2. *Zergatik jarri zitzaien kirol txapelketei "Olinpiar Jokoak" edo "Olinpiadak" izena?*
 3. *Gaur egun non ematen zaie olinpiadei hasiera?*
 4. *Noiz egiten dira gaur egungo olinpiadak?*
- Bideoa lehenengo aldiz ikusten dugunean, osorik ikusiko dugu. Bukatzean, ikasleei, bilatzen ari garen informazio hori entzun ote duten galdetuko diegu. Ikasleek iritzi berriren bat plazaratzen badute, hasieran egindako hipotesi zerrenda osatuko dugu.
- Bideoa bigarren aldiz ikusten dugunean, informazio interesgarria entzutean, ikasleei eskua altxatzeko eskatuko diegu. Orduan, bideoa gelditu eta ikasleari entzundako ideia azaltzeko eskatuko diegu.
- Bukatzeko, irakasleak bideoan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.
- Greziako jokoei buruzko informazio gehiago bildu nahi baduzu, honako web-orrietan begira dezakezu:
 - <http://www.tudiscovery.com/greece/olympics/feature1.shtml>
 - <http://www.copacabanarunners.net/esphistolimpia.html>
 - http://www.portalplanetasedna.com.ar/juegos_olimpicos.htm

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

26. jarduera	OLINPIAR JOKOAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i>.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarriko ezaugarriak hautemanaz.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 72. orrialdea	
AZALPENA		

Antzinako Grezian asmatu ziren Olinpiar Jokoak edo Olinpiadak direlakoak. Irakurri hurrei testua eta guztion artean saiatu esanahia ahalik eta gehien argitzen. Jarduera honetan, azalpen-testua aztertuko dugu, bai mezuari dagokionean eta baita egiturari dagokionean ere.

- Liburua irekiko dugu 72. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orriaren behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: irudia, izenburua eta testua. *Zer ikusten dugu orrialde horretan? (AZALPEN TESTUA). Zertarako balio du? Non aurki ditzakegu horrelakoak?*
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, testua irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute. Izenburuarekin hasiko gara: *Zer dakigu Olinpiar Jokoei buruz? Agian testua irakurtzen badugu, gauza gehiago ikasiko ditugu!*
- Bigarren irakurketa egiten hasi aurretik, arretaz entzuten laguntzeko, ikasleak talde txikietan jarriko ditugu eta hainbat talderen erantzuna aurkitu behar dutela esango diegu.
 1. *Noiz egiten ziren olinpiadak Grezian?*
 2. *Zer gertatzen zen olinpiadak egiten zituzten bitartean?*
 3. *Non berpiztu ziren olinpiada modernoak?*
- Esaldi bat irakurtzen dugun bakoitzeko beraien artean hitz egiteko edo eztabaidatzeko tarte bat eskainiko diegu. Talde bakoitzeko hitz egiteko txanda emango duen moderatzailea eta esataria aukeratzea komeni da. Eztabaidarako denbora bukatu denean, esatariak taldean erabakitakoa esango dio talde handiari: "Gure ustez... da". Beste taldeak ados badaude, testuarekin aurrera egingo dugu, bestela, taldeen arteko eztabaida eta iritziak arrazoitzea bultzatuko dugu.
- Bukatzeko irakasleak testuan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

Olinpiadetarako jokoak aukeratzekoan, ikasleek ahalik eta kirol aukera zabalena kontuan har dezaten, hainbat jarduera egingo ditugu.

27. jarduera	ABESTIA: "IDIA ETA HARRIA"	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p> <p>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.5.5 Euskal Herriko gaurko eta iraganeko hainbat kultura-adierazpen (historiaren hainbat alderdi, arbasoen bizimodua, kontakizunak, ohiturak, mitologia...) ezagutzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 73. orrialdea eta abestien CDan 32. pista	
AZALPENA		

Greziarrak ez ziren hainbat kirol asmatu eta egin zituzten bakarrak izan. Euskaldunek ere, bere lanaren inguruan hainbat herri kirol asmatu zituzten. Gero eta gutxiago ikusteko aukera dugun euskal kirol horien inguruko abestia irakur ezazue. Abestia pixka bat landu duzuenean, testuan azaltzen zaigun jolasa egingo dugu.

- Ilustrazioei arretaz begiratzeko eskatuko diegu eta olerkiaren gaia zein izango ote den galdetuko diegu. Irakasleak erantzunak arbelean jarriko ditu.
- Testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten, honako galderak hauek egingo ditugu, eta erantzunak arbelean idatziko ditugu: *Zenbanaka doaz idiak idi-demetan?* (BINAKA). *Zer eramaten dute?* (HARRIA). *Nola eramaten dute idiek harria?* (ARRASTAKA). *Nola esaten zaio harriarekin plaza gehiena egiten dituenari?* (TXAPELDUNA). *Nork asmatu zuen kirol hori?* (EUSKALDUNEK)

- Lehenik eta behin CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzuteko. Entzuten hasi aurretik ikasleei esango diegu helburua ez dela informazio zehatza aurkitzea, baizik eta testuaren zentzuaz jabetzea, abestiak zer esaten digun ulertzea.

Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi/abestu nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.

Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Tartetxo bat eskainiko diegu ilustrazioak eta testua begiratu/irakurri ditzaten.

- Irakurri ondoren, olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimak behatuz, berdin bukatzen diren hitz zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz. Ondoren, kodearen inguruko behaketa bultza dezakegu:
 - *Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: binaka, harria, arrastaka, txapelduna...*
 - *Ezagutzen al duzue KA bukaera duen beste hitzik?* (ABARKA, KAKA, MILAKA, SALTOKA, ZATIKA...)
 Irakasleei bururatzeko ez bazaizkie definizio errazen bidez lagunduko diegu; adibidez: *Nola ibiltzen diren kanguruak?* (SALTOKA)
- Bosgarren lerroan abestiak proposatzen digun jolasa egingo dugu. Haurrak binaka jarri eta txandatuz, batek idiaren papera egingo du eta besteak harriarena. Elkarri lotzeko uztai handi bat erabiliko dute. Batek tira egiten duen bitartean, bestea lurretik arrastaka joango da, eta alderantziz.
- Bukatu aurretik ikastolako olinpiadetan idi-demaz gain jolas ditzakegun Euskal Herriko jolas herrikoiak zerrendatuko ditugu. Adibidez, sokatira, harri-jasotzea, estropadak, lokotx-bilketa, txingak edo ontziak eramatea.
- Liburu digitalean edo Txanela.net-eko 5. unitateko 73. jardueran Euskal jokoen argazki-bilduma aurkituko duzue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

28. jarduera	HITZ GURUTZATUAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, binaka eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 16. orrialdea	
AZALPENA		

Definizioak irakurri eta dagokion kirolarekin erlazionatu ondoren, hitz gurutzatuak osatuko ditugu.

- Lan-koaderno irekiko dugu 16. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, testuak, irudia eta hitz idazteko laukiak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Lanean hasteko, orrialdean barreiatuta ditugun izenak goiko koadroan dauden; "definizioekin" erlazioan jarri beharko ditugu. Beraz, hitzetatik edota definizioetatik has gaitzke. Hitzetatik hasiz gero, lehenbizi, bakarka, izenak irakurtzen saiatuko dira. Kodea behatzeaz gain, zerekin lotuko lituzketen galdetu ikasleei: nolabait eurek sortuko dute "definizio" moduko bat. Lauko talde bakoitzari hitz bat eman eta pentsa dezatela; adibidez, soka sokatirarekin lotu daiteke.
- Gero, talde handian, lan-koadernoko definizioak irakurriko ditugu, hitz gakoak biribilduz.
- Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, irudiari dagokion hitza aurkituko dute eta marra baten bidez lotuko dituzte.
- Prozeduraren aurreko urratsei jarraituko diegu bost definizioekin.
- Azkenik, zenbakiei erreparatuz, hitz bakoitza dagokion tokian idatziko dute ikasleek, bakarka.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

29. jarduera	GREZIARREN JOKO HERRIKOIAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 15. orrialdea	
AZALPENA		

Greziarren joko herrikoiak ezagutuko ditugu, taula osatuz. Ikus daitekeen bezala garai hartako joko gehienak gaur egun ere praktikatu dira, agian guri lasterketa izango da salbuespena.

- Gaur egungo olinpiadetan jokatu diren hainbat kirolen zerrenda osatuko dugu. Lan hori ikasleek taldean egingo dute. Talde bakoitzak bere proposamena egingo du. Helburua ahalik eta joko gehienak zerrendatzea izango da.
- Talde bakoitzean moderatzaile, idazkari, esatari eta denbora-kontrolatzaile bana izendatuko ditugu/dituzte. Moderatzaileak hitz egiteko txandak emango ditu. Denbora kontrolatzaileak taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adieraziko dio; adibidez denbora erdia pasa denean eta bi minutu geratzen direnean. Horretarako, kronometroak beharko ditugu. Esatariak taldean pentsatutakoa irakurri egingo dio talde handiari eta idazkariak taldeko kideek proposatutakoa idatziz jasoko du. Denborari dagokionez, hamar minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasatu eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Taldeko lana bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Irakasleak, bitartean, ideiak jasoko ditu hiru zerrendatan. Lehenengoan banaka jokatu direnak, bigarrenetan binaka edo launaka eta hirugarrenean taldean. Hor duzue gaur egun olinpiadetan jokatu diren hainbat kirolen izenen taula.
- Ikasleei bururatu ez zaizkienak eta behar bada lan-koadernoko fitxa egiteko kontuan hartu behar direnak, irakasleak antzeztuko ditu eta ikasleek izena asmatu beharko dute. Ondoren, irakasleak zerrendan kirol horren izena idatziko du.
- Lan-koadernoa irekiko dugu 15. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak eta taula.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, taula osatuko dute. Hau da, liburuan azaltzen den kirolaren izena arbelean ba ote dagoen begiratuko dute. Baldin badago, taulan BAL hitzaren azpian eta dagokion lerroan azaltzen den laukian gurutze edo iza bat egingo dute. Arbelean ez badago berriz, EZ hitzaren azpian eta dagokion lerroan gurutze edo iza bat egingo dute.

BANAKA	BINAKA / LAUNAKA	TALDEKA
Atletismo (oinezko lasterketa)	Badminton	Saskibaloia
Luzera jauzia	Boxeo	Eskubaloia
Disko jaurtiketa	Esgrima	Txirindularitza
Xabalina jaurtiketa	Judo	Igeriketa
Zaldi lasterketa	Borroka	Waterpolo
...	Tenis	Futbol
	Taekwondo	Arraunketa
	Ping pong	Boleibol
	...	Hockey
		...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

30. jarduera	MEZUA OSATU: MARATOIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, banaka eta talde handian	
MATERIALA	Lan-koadernoko 13. orrialdea	
AZALPENA		

Oraingo honetan gure alfabetoarekin idatzita badago ere, ezin dugu mezu hau ulertu. Letra bakoitza dagokion lekura eramanez jakin ahal izango dugu zergatik deitzen zaion gaur egun Maratoia 42 km-ko luzera duen lasterketari.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 13. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, testuak, irudia eta hitz idazteko laukiak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Beheko mezua osatzeko, goiko zatien edo piezen kopia emango die irakasleak ikasleei. Ikasleek zati horiek moztu eta taulan behar bezala kokatuko dituzte, dagoeneko jarritako letrak eta laukien koloreetan arreta jarritz.
- Azkenik, guztiok elkarrekin Miltziades jeneralaren mezua irakurri ahal izango dugu.
- Mezu sekretua osatu ondoren, denok batera irakurriko dugu. Ondo ahoskatzen, ospe guztiekin. Gero banan-banan soldadu greziarra izan gaitzke. Hau da, denok jolastokiko izkina batean egongo gara, eta bat gudaria izango da. Korrika ibiliko da eta guregana heldu ondoren mezu hori errepikatu behar du. (Agian luzeegi da buruz ikasteko, horrela balitz erdiarekin nahikoa da). Inportanteena ahozko adierazpena, kasu honetan emozioa, lantzea da. Beste guztiok erantzungo dugu: Gora Atenas!

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

31. jarduera	JOLASEN AUKERAKETA ETA ARAUAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p> <p>4.3 Bizikidetzeta demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete beharraren premiaz ohartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>4.1.2 Ideiak, sentimenduak eta proposamenak trukutzen ditu.</p> <p>4.1.5 Adostasunak lortzeko elkarrizketa erabiltzen du.</p> <p>4.3.3 Arauak balioesten ditu bizikidetzeta baketsua bermatzeko eta gatazkak saihesteko bitarteko diren aldetik.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian	
MATERIALA	Talde bakoitzeko arbel zuria edo papera eta liburuko 12. orrialdea	
AZALPENA		


Gure olinpiadetarako jokoak aukeratzeko, ezagutzen ditugun kirolen zerrenda osatuko dugu. Lan hori ikasleek taldetan egingo dute. Talde bakoitzak bere proposamena egingo du. Helburua ahalik eta joko gehienak zerrendatzea izango da. Ondoren, gure olinpiadetarako jokoak aukeratu eta joko bakoitzaren arauak zehaztuko ditugu.

- Irakasleak gogora ekarriko du Euskal Herriko joko herrikoiak, Greziarren joko herrikoiak eta gaur egungo olinpiadetan jokatzen diren jokoen izenak aipatu ditugula hainbat jardueratan eta horiek baliagarriak izan daitezkeela gure aukeraketa egiteko orduan.
- Talde txikietan jarriko ditugu ikasleak. Talde bakoitzak ezagutzen dituen jokoen zerrenda osatuko du. Talde bakoitzean moderatzaile, idazkari, esatari eta denbora kontrolatzaile bana izendatuko ditugu/dituzte. Moderatzaileak hitz egiteko txandak emango ditu. Denbora kontrolatzaileak taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adierazi beharko dio, adibidez denbora erdia pasa denean eta bi minutu geratzen direnean. Horretarako, kronometroak beharko ditugu. Esatariak taldean pentsatutakoa irakurri egingo dio talde handiari eta idazkariak taldeko kideek proposatutakoa idatziz jasoko du. Denborari dagokionez, hamar minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasatu eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Taldeko lana bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Irakasleak, bitartean, ideiak jasoko ditu arbelean.
- Espazio egokirik edo baliabiderik ez dugulako, ikastolan egin ezin diren jokoak ezabatuko ditugu arabeletik. Ondoren, era demokratikoan, hau da, norberak zer pentsatzen duen esanez eta gehienek esaten duena onartuz, gure olinpiadetarako jokoak aukeratuko ditugu. Boto gehien dituzten jolasak aukeratuko ditugu olinpiadetarako.

Orain joko horien araei helduko diegu.

- Olinpiadetan jokatuko ditugun joko adina talde egingo ditugu gelan. Talde bakoitza joko bateko aditua izango da, hau da, kirol horren arauak adostu, idatzi eta gelakideei azaltzeko ardura izango du.
- Ikasleak talde txikietan egongo dira (gehenez lau lagun). Guztiek joko horren arauak idatziko dituzte, honako galdera hauei erantzunez:

- Zenbanaka jolasten da?
- Zer egin behar da jolasteko?
- Nork irabazten/galtzen du?
- Zer egingo dugu gerta daitekeen arazotxo baten aurrean?



Ikasleek egindako lanaren adibidea

- Ikasleak lanean hasi aurretik, irakasleak beste hiru ikaslerekin joko baten arauak idatziko ditu, jarraian proposatuko den prozedura erabiliz. Hau da, irakasleak beste hiru ikaslerekin arauak adosteko prozedura antzetzuko dute taldearen aurrean. Irakasleak prozedura eta talde-lanerako jarrera egokia lantzeaz gain, ideiak/esaldiak osorik idatzi eta bukaeran puntua jartzearen garrantzia azpimarratuko du.
- “Arkatzak erdira” prozedura martxan jarriko dugu. Teknika horren helburua komunean dugun helburu bat betetzeko, iritzi guztiak entzutearen garrantzia azpimarratzea da. Taldekide guztiak arkatzak mahaiaren gainean utziko dituzte, lauki bat osatuz. Ondoren, moderatzaileak arauak idatzeko irakasleak proposatu duen lehenengo galdera irakurriko du. Denbora kontrolatzaileak martxan jarriko du kronometroa, kide guztiak minutu bat har dezaten erantzuna pentsatzeko. Minutua pasa denean, moderatzaileak berriz ere txanda emango die taldeko kide guztiei, norberak pentsatu duena azaldu dezan.
- Iritzi ezberdinak bururatzen bazaizkie, norberak bere iritzia defendatu beharko du, eta, azkenik, botaketa egingo da. Era horretan erabakia hartzeko gai ez badira, ikasle bakoitzak bere iritzia hiltzen diolako, irakasleak lagunduko die, azkeneko erabakia hartzeko irizpideak emanez.
- Bukatzeko, araua beren liburuan idatziko dute. Horrela, liburuan jokoaren lau arauak idatziko dituzte.
- Taldeko lana bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean eta talde bakoitzak landu duen jokoaren arauak azalduko/irakurriko ditu.
- Jolas guztien arauak bilduko dituen horma-irudi bat egin dezakegu. Horretarako, irakasleak talde bakoitzeko ikasle baten lana kopiatu eta paper zuri handi batean itsatsiko ditu jokoaren arauak. Ondoren, adostu ditugun arauak betetzeko konpromisoa hartuta, guztiok sinatuko dugu horma-irudiaren azpialdean.
- Hainbat egunetan irakasleak ikasleak ikastolako gimnasia eramango ditu, ikasleak aukeratuko jokoaren entrenamendua egin dezaten.
- Entrenatu ondoren, une egokia izan daiteke taldekide bakoitzak zein jolasetan parte hartuko duen erabakitzea. Adibidez, taldeak lau lagunekoak (A, B, C eta D) badira, honako banaketa hau egin daiteke:

	TALDE URDINA	TALDE GORRIA	TALDE HORIA	TALDE BERDEA	TALDE ZURIA	ZILAR KOLOREKO TALDEA
DISKO JAURTIKETA	C kidea	C kidea	C kidea	C kidea	C kidea	C kidea
BORROKA	D kidea	D kidea	D kidea	D kidea	D kidea	D kidea
SOKATIRA	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak
ERRELEBO LASTERKETA	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak
FUTBOLA	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak	Kide guztiak
PILOTA	A eta B kideak	A eta B kideak	A eta B kideak	A eta B kideak	A eta B kideak	A eta B kideak

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

32. jarduera	BERTSOA OSATU: NOLAKO JARRERA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibiltate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p> <p>4.3 Bizikidetzaren demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>4.3.4 Inguruko pertsonen bazterkeria eta bereizkeria-egoeren aurrean sentikortasun-jarrera azaltzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka edo binaka.	
MATERIALA	Lan-koadernoko 14. orrialdea	
AZALPENA		

Kirol lehiaren aurrean izan behar dugun jarrerekin lotuta, lan-koadernoko bertsoan oin batzuk kendu ditugu. Oinak lauki bakarrean azaltzen dira. Lehenengo hiru hitzak goiko koplari dagozkio, azkeneko hirurak berriz, bigarrenari. Koplak banan-banan lantzea proposatzen dizuegu.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 14. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, bertsoak osatzeko hitzak eta bertsoa.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Irakasleak bertsozale.com web-orrian edo liburu digitalean, bertso doinutegian *Maritxu nora zoaz* bilatuko du eta hurreki musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die.
- Ondoren, bertsoa osorik, aurkeztuko die (arbelean edo proiektatuta arbel digitalean). Irakasleak bertsoa abestuko du. Gero, berriz abestuko du, ahoskatzen ari den zatia eskuekin seinalatuz.
- Hurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
- Orain, laukian dauden oinak aztertuko ditugu. *Zer dute berdina?* Grafia-fonema erlazioan jarriko dugu indarra.
- Bertsoari poltsan dauden oinak jarriko dizkiogu. Kontraesanak sortzeko, hutsuneari ez dagokion oina kokatzean zer gertatzen den ikusiko dugu.
- Banaka edo binaka, bertsoa osatuko dute.
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak?*
- Bertsoaren bigarren zatiarekin, lehenengoarekin jarraitu ditugun urratsak errepikatuko ditugu: bertsoa aurkeztu, hurrekin batera abestu eta laukian dauden hitzak aztertu. Azkenik, esanahiari erreparatuta, banaka edo binaka bertsoa osatu.
- Bukatzeko, talde handian lehiaren aurrean daukagun jarreraz mintzatuko gara, bertsoan azaldutako ideien garrantzia azpimarratzeko.
- Beharbada, olinpiadak hasi aurretik, bertsoa guztion artean abestea egokia izan daiteke.
- Gogoratu, CD-ROMean idazketa-tailerra daukagula eta, testuak idazteko txantilo politak aurki ditzakegula. Hori baliatuta, bertsoak, abestiak, zein olerkiak, ordenagailuz garbira pasatzeko aukera daukagu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

33. jarduera	ENTZUNALDIA: "SUZKO GURDIAK"	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza. 4.3 Bizikidetzaren demokratikotasunaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	3.1.9 Entzuketetan eta beste hainbat musika-emanalditan izan beharreko jokabideak ezagutzen eta errespetatzen ditu. 3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko. 4.3.4 Inguruko pertsonen bazterkeria eta bereizkeria-egoeren aurrean sentikortasun-jarrera azaltzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Jardueren CDa, 23. pista	
AZALPENA		

- **Gure konpositoreen txokoa** aktibatuzko Vangelisi buruzko dokumentazioa lortzen saiatuko gara (gurasoei informazioa eskatuz, diskoen denda batean galdetuz, Interneten...).
- Ondoren, elkarrizketa sortuko dugu izenburua eta baita bildutako informazioaren inguruan ere.
- *Bisualizazioa*. Musika entzuten duten bitartean, hondartza luze batean lasterketa bat egiten ari direla imajinatuzko eskatuko diegu haurrei, begiak itxita.
- *Berbalizazioa*. Bukatzean, bakoitzak imajinatu duena berbalizatzeko eskatuko diegu ikasleei: erori al den inor, nork irabazi duen, helmugara iritsi ote diren... Normalean horrelakoetan ikasleek euren nortasunaren proiektzioaren arabera esperientzia bisualizatzen dute; horregatik uste dugu, ariketa honek haur bakoitzaren izaera eta nortasunaren inguruko datu interesgarriak eman ditzakeela. Talde handian elkarrizketa sortuko dugu: *Azkena iritsi zarela diozu, zergatik uste duzu beti azkena iristen zarela? Konturatzen al zara beti izan nahi duzula lehenengoa? Zertarako uste duzu nahi izaten duzula lehenengoa izan?...*
- Taldean landutakoaren arabera, jarduera berriz errepikatu dezakegu, haurrei, lehen imajinatutakoaren kontrakoa imajinatuzko eskatuz eta ondoren berriro elkarrizketa bultzatuz:
 - *Bada, oraingo honetan lehenengoa iritsiko zara.*
 - *Zu berriz, ez zara zure lagunaren ondoan joango, bakarrik egingo duzu bidea.*
 - *Zu azkena iritsiko zara.*
 - ...
- *Marrazkia*. Bukatzean, DIN-A4 batean esperientzia biak adieraziko dituen marrazkia egitea eskatuko diegu ikasleei.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

34. jarduera	BALIABIDEAK ETA ARDURADUNAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>4.1.2 Ideiak, sentimenduak eta proposamenak trukutzen ditu.</p> <p>4.1.5 Adostasunak lortzeko elkarrizketa erabiltzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA		
MATERIALA	Liburuko 13. orrialdea	
AZALPENA		

Joko bakoitza aurrera eramateko behar diren baliabideen eta baliabide horien arduradunak identifikatu, izendatu eta idatziko dituzte, arauak idazteko erabili genuen prozedurari jarraituz.

- Irakasleak beste hiru ikaslerekin joko baten baliabideak eta baliabideen arduradunak adostu eta idatziko ditu, proposatuko den prozedura erabiliz. Hau da, irakasleak beste hiru ikaslerekin arauak adosteko prozedura antzetzuko du taldearen aurrean.
- Talde bakoitzean moderatzaile eta denbora kontrolatzaile bana izendatuko ditugu/dituzte. Moderatzaileak hitz egiteko txandak emango ditu. Denbora kontrolatzaileak taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adierazi beharko dio. Horretarako kronometroak beharko ditugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasatu eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- "Arkatzak erdira" prozedura berriro erabiliko dugu. Teknika horren helburua komunean dugun helburu bat betetzeko, iritzi guztiak entzutearen garrantzia azpimarratzea da. Taldekide guztiak arkatzak mahaiaren gainean utziko dituzte, lauki bat osatuz. Ondoren, moderatzaileak baliabideak pentsatzeko eskatuko die. Denbora kontrolatzaileak martxan jarriko du kronometroa, kide guztiak minutu bat har dezaten erantzuna pentsatzeko. Minutua pasatutakoan, moderatzaileak berriz ere txanda emango die taldeko kide guztiei, norberak pentsatu duena azaldu dezan.
- Bukatzeko, ikasleek baliabideak beren liburuan idatziko dituzte.
- Baliabideak zerrendatu ondoren, talde txikitetan bertan arduradunak izendatuko dituzte. Arduradun horiek materiala atera, behar den tokira eraman eta jaso egingo dute. Kasu batzuetan baliabideen ardura banaka, binaka edo hainbat lagunentz artean hartuko dute.

JOKOAREN IZENA BOBROKA	
BALIABIDEAK	ARDURADUNAK
✓ TXILIBITOA	✓ MAITANE
✓ KOLT XONETA HANDI BAT	✓ MAITANE, HARITZ, UXUE ETA
✓	✓ LANDER.
✓	✓
✓	✓

Ikasleek egindako lanaren adibidea

- Jolas guztien baliabideak eta baliabideen arduradunak bilduko dituen beste horma-irudi bat egin dezakegu. Horretarako, irakasleak talde bakoitzeko ikasle baten lana kopia eta paper zuri handi batean itsatsiko ditu jokoen baliabideak eta arduradunak. Ondoren, baliabideen gaineko ardura betetzeko konpromisoa hartuz, guztiok sinatuko dugu horma-irudiaren azpialdean.
- Bukatu aurretik, irakasleak ikasleak gimnasia edo materiala dagoen tokira eramango ditu, ikasleek baliabideak non eta nola kokatuta dauden ikus dezaten.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

35. jarduera	EKIPO BATEN MODUAN JOKA DEZAGUN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	4.3 Bizikidetza demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzea; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete beharraren premiaz ohartzea. 4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du. 4.3.3 Arauak balioesten ditu bizikidetza baketsua bermatzeko eta gatazkak saihesteko bitarteko diren aldetik. 4.3.4 Inguruko pertsonen bazterkeria eta bereizkeria-egoeren aurrean sentikortasun-jarrera azaltzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Globoak edo makila fin eta luze bat	
AZALPENA		

Jarduera hau talde-kohesioari dagokio. Talde-kohesioaz hitz egiteko, ekipo hitza erabili dugu. Horrela, ikasleek landu nahi dugun kontzeptuaren esanahia errazago ulertuko dutela iruditu zaigu. Ekipoa helburu bat lortzeko kooperatzen duen taldea da. Ekipoa kide guztiek helburu bat dute eta helburu hori betetzeko kide guztiek erantzukizunez, arduraz jokatzen dute. Ekipoan kide bakoitzak proiektuaren edo helburuaren alderdi baten ardura du eta lan horiek egiten dituzten pertsonen artean elkarosagarritasuna bilatzen da. Talde batean berriz, lan bera egiten duten pertsonak elkartzen dira. Elkarrengandik fisikoki gertu daude eta zuzendari bera izaten dute, baina era autonomoan lana egiten dute. Taldeko kide bakoitzak bere lana egiten du eta lan horretaz baino ez da arduratzen.

- Ekipo hitzaren esanahiaz jabetzeko joko batzuk egingo ditugu; hona hemen batzuk:
 1. Ikasleak bi ilaratan jarriko dira elkarri begira, besoak erdira luzatuz eta aurrean duten ikaslearen hatz erakuslea ukituz. Irakasleak makila fin eta luze bat jarriko du ikasleen hatzen gainean. Ikasleen lana makila lurrean utzi eta altxatzea izango da, baina denek ukitu behar dute makila une oro.
 2. Ikasleak launaka biribilean jarri. Globo bat jarri biribilaren erdian eta ikasleak animatu ahalik eta denbora gehien airean mantendu dezaten. Jokoa zaildu daiteke globo gehiagorekin jolastuz.
 3. Ikasleak hamarnaka biribilean jarri. Esan ikasleei beren ezkerreko eskua luzatzeko. Eskuineko eskuarekin beren ondoan ez dagoen ikasle baten eskuari eutsiko diote. Helburua biribilaren erdian esku guztiak elkarren gainean jartzea da.
- Jokoa(k) egin ondoren, gertatutakoaren inguruan mintzatuko gara. Gogoratu egoera horretan irakaslearen lana, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarri egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea dela. Bestalde, beharrezkoak diren azalpenak emango ditu, betiere, gogoratuz ikasleen hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna hipotesiak trukatzeko eta ezagutzak birformulatzean garatu egiten dela. Elkarriketa bideratzeko galderak ondorengoak izan daitezke:
 - *Zein zen gure asmoa jolasteko orduan? Zer lortu nahi genuen? Zertarako parte hartu zenuten? Zer egin dugu hori lortzeko? Zertan jokatu dugu ekipo baten moduan? Zer da ekipo bat izateko egin duguna? Zuen ustez zer da ekipo bat? Zer egin beharko genuke olinpiadetan ekipo baten moduan jokatzeko?*
- Bestalde, kiroleko lehiak eragindako jarrera ugari (egokiak eta desegokiak) aztertuko ditugu, sentimenduak tarteko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

36. jarduera	ETXERAKO OHARRA: JANTZI EGOKIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak... 1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA		
AZALPENA		

Prestatu ditugun olinpiadetan parte hartzeko, jantzi erosoak beharko ditugu. Bestalde, talde bakoitzeko kideak identifikatzeko, kolore jakin bateko kamiseta jantzi dezakete. Horretarako, gurasoen laguntza beharko dugunez, gurasoekin komunikatzeko oharra idatziko dugu.

- Oharraren helburua eta egitura talde handian aztertuko ditugu.
- Ondoren, edukia garatzeko, hizkuntza forma egokiak bilatu eta kodetu egingo ditugu. Horretarako, idatzi behar duten testuaren ahozko planifikazioa egingo dugu. Idatz dezakegunaz hitz egingo dugu, testua arrazoituz eta proposatzen dutenaren egokitasunaz hitz eginez.
- Arbelean elkar jartze, zuzentze, adoste... lana egin ondoren, testua berrirakurri egingo dugu.
- Ikasle bakoitzak orri batean kopiatuko du. Ekoizpen lana aurretik egin dagoenez, hau izan daiteke kopia proposatzeko ordua, hau da, idazketaren txukuntasunean arreta jartzeko ordua.
- Kolore jakin bateko kamiseta eskatu beharrean, koloretako zintak jarri ditzakete buruan. (Ikusi proiektuaren aurkezpen-orria)

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

37. jarduera	IKASTOLAKO OLINPIADAK
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarriaren aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea. 4.3 Bizikidetzaren demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzeko; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete behar diren premiaz ohartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du. 4.1.7 Lan-erritmo egokia izaten laguntzen du, eta saiatzeko da iraukeratasunez erritmoari eusten.. 4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu. 4.3.3 Arauak balioesten ditu bizikidetzaren baketsua bermatzeko eta gatazkak saihesteko bitarteko diren aldetik. 4.3.4 Inguruko pertsonen bazterkeria eta bereizkeria-egoeren aurrean sentikortasun-jarrera azaltzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	
MATERIALA	Puntuazioa jasotzeko arbela edo panela, jokoetarako baliabideak eta argazki edo bideo makina
AZALPENA	

Unitate honetan proposatutako proiektua ikastolako olinpiadak prestatzea eta egitea da. Olinpiadak gimnasio barruan nahiz kanpoan egin daitezke. Jolas guztiak egiteko bi ordu beharrezkoak izango direla aurreikusten dugu. Izan ere, ugariak dira egin beharreko lanak eta ahal den neurrian, lan guztia ikasleei era autonomoan egiten utziko diegu. Horretarako, pazientzia eta denbora behar izaten dira. Ikasleek materiala prestatu, hainbat jokoetan parte hartu, puntuazioa idatzi, olinpiadak egin eta erabilitakoa jaso eta txukunduko dute. Irakasleak berriz, ekintza planaren jarraipena egin, beharrezkoa bada desbideratzeak zuzendu eta ikasleen behaketa egingo du. Izan ere, une horiek oso aproposak dira bakoitzaren ekimena, lan-erritmoa, erantzukizuna, gatazkei aurre egiteko gaitasuna, lankidetzaren parte hartzea... aztertzeko. Argazkiak atera edo olinpiadak bideoan grabatu ditzakezue, elkarrekin bizi izandako esperientziaren oroigarri gisa.

- Materiala prestatzen hasi aurretik, norberak bere lana zein den dakiela ziurtatu dugu. Hartara, denok lan pixka bat egin eta gozatzeko aukera izango dugu. Taldean adostutako arduren banaketak aginduko dituen bakoitzari zer egin. Ikasle guztiek liburuko 13. orrialdea ireki eta taulan jasotako informazioa (arduren banaketa) irakurriko dute.
- Irakasleak, norbaiti bere lana egitea ahaztu egiten bazaio, taldekideek gogoraraziko diotela esango die ikasleei. Horretarako, modu egokiak gogoraraziko ditugu. Hau da, errieta egin behar diren elkarri laguntzeko hitz egokiak gogoratuko ditugu.
- Irakasleak gimnasia edo olinpiadak egingo diren tokira, arbel edo panel bat eramango du, talde bakoitzeko puntuazioa jasotzen joateko. Panel edo arbel horretan bi sarrera dituen taula idatzita beharko dugu. Adibidez:

	TALDE URDINA	TALDE GORRIA	TALDE HORIA	TALDE BERDEA	TALDE ZURIA	ZILAR KOLOREKO TALDEA
DISKO JAURTIKETA						
BORROKA						
SOKATIRA						
ERRELEBO LASTERKETA						
FUTBOLA						
PILOTA						

- Proiektuaren aurkezpen-orrain ikusten den bezala, irakasleak egun horretarako koroak prestatuko ditu. Bost edo sei koroa prestatzea nahikoa izango da. Joko bakoitzeko irabazleek koroa jantzi eta irakasleak argazki bat aterako die, gainerako guztiek txalo egiten dieten bitartean. Olinpiadak bukatzean, talde bakoitzari koroa bat emango diegu eta taldekideek txandaka etxera eramango dute.
- Dena prest dagoenean, olinpiadei hasiera emateko denok abestuko dugu jarrera egokiari buruz osatu genuen bertsoa.
- Jolasean hasi aurretik luzatze-ariketa batzuk egitea komeni da.
- Ez ahaztu jolastu ondoren dena txukun-txukun bere tokian uzteko denbora guztiz beharrezkoa dela.
- Ondo pasa!

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

38. jarduera	PROIEKTUAREN BALORAZIOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.8	Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atseden eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeari, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntua, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.3.2	Berak esandakoari buruzko galderei erantzuten die (azalpen zehatza, beste informazioak...).	
1.8.1	Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafiafonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
2.3.4	Emozioak eta sentimenduak (amorrua, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Liburuko 14. orrialdea	
AZALPENA		

Orrialde horretan proiektuaren balorazioa eta komunikazioa egingo dugu. Sintesi-jarduera da, hau da, egindako lana balioesteko proposatzen den jardura. Bi alderdi dira unitate honetan balioestekoak:

1. Olinpiada bera: gogoa, gozamina, zailtasunak, ongi egindakoak, hobetu beharrekoak, talde-kohesioa...
 2. Norberak izan zuen esperientzia edo jarrera adostasuna lortzean, ardurak betetzean, arauak errespetatzerakoan eta jokoen lehiaren aurrean.
- Orrialde honi ekin aurretik, olinpiaden eguneko argazkiak edo bideoa prest edukiko d(it)ugu. Gelako ordenagailua eta proiektagailua erabiliz, argazkiak talde handian ikusiko ditugu. Argazkiak ikusten dituzuen bitartean irakasleak goiko laukian azaltzen diren galderak egin eta erronda bat irekiko du, bakoitzari, labur, zer pentsatu duen esateko aukera eskainiz.
 - Atal honekin bukatu aurretik, ondo egindakoak eta hobetu beharrekoen inguruko hausnarketatxoak bultzatuko ditugu. Agian, akta moduko paper batean jasotzea interesgarria izan daiteke, hurrengo proiektuei begira.
 - Aurreko proiektuan jaso genuen aktarekin konparatu eta balorazioa egin dezakegu: *Zer egin dugu ondo bi proiektuetan? Zertan hobetu dugu? Zertan hobeto behar dugu?*
 - Bigarren atalari ekin aurretik, norberak izan zuen jarreraren inguruan pentsatuko dugula jakinaraziko diegu haurrei. Lehen galdera irakurriko dugu eta esanahia argituko dugu. Minutu batzuk bakarka pentsatzeko aukera eman ondoren, pentsatutakoa liburuan idatziko dute; adibidez:

ADOSTASUNA LORTZEAN, EZ DUT BOTAKETA ONARTU ETA HASERRATU EGIN NAIZ.

ADOSTASUNA LORTZEAN, LAGUNEKIN HITZ EGIN DUT ETA LASAI EGON NAIZ.

- Erantzuna ezezkoa bada, haurrak animatuko ditugu, orain behintzat zer aldatu behar duten badakitela, eta oraindik jarrera hori aldatzeko denbora badagoela esanez.
- Liburuan dagoen azkeneko galdera talde-kohesioari dagokio. Helburu jakin bat lortzeko banakakoen erantzukizuna eta ardura eta banakakoen arteko elkarosagarritasuna azpimarratuko ditugu. Galdera horri erantzuteko, ekipo hitza argitu genuen egunean egin genituen jokoak eta atera genituen ondorioak gogora ekarriko ditugu. *Zertan jokatu dugu ekipo baten moduan? Zertan ez dugu ekipo baten moduan jokatu?* Elkarrizketa horretan, beharbada, ikasleek elkarri leporatuko dizkiote oker egindakoak. Horren aurrean, irakaslearen ardura izango da elkarrekin lana egiten ikasten ari garela azpimarratzea eta horretarako elkarri laguntzea, animatzea eta ondo egindakoak azpimarratzea guztiz beharrezkoa dela.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

39. jarduera	BUKAERAKO KOMIKIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>	
1.5	Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</i>	
1.6	Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</i>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikusuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
1.6.3	Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, banaka eta talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 16. orrialdea	
AZALPENA		

- Aurreko komikian (4-5 or.) zer gertatu den gogoratuz hasiko gara.
 - *Gogoratzen al zarete zer gertatu zen aurreko komikietan? Nola bururatu zitzairen Fermin eta Maddaleni Greziara joatea? Nora iritsi ziren?*
 - Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu "osasuna" hitzari erreparatuko diogu:
 - *Zer esan nahi du osasunarentzat ona izatea? Zer da osasunarentzat ona?*
 - Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
 - *Zer dugu orri hauetan? (Komikia). Ezagutzen al dituzue azaltzen diren haurrak? Zertan ari direla uste duzue?*
 - Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren baliabideetan (harridurak, zurrunbiloak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsuak iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - *Zein hiritar joan dira Maddalen eta Fermin? Zergatik erabaki dute Olinpia hirira joatea? Zertarako izango dira gurdian dauden pitxarrak? Maddalenek eta Ferminen museorako Greziatik zer pieza eramango dute? Komikian azaltzen den pertsona batentzat kirola ez da osasuntsua suertatu? Ikusten al duzue? Zer gertatu zaio?*
 - Haurrek, elkarren artean, irakurketa-maila ezberdina izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu).
 - Gelakideen mailaren arabera, biko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (Fermin, Maddalen) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rola txandatu bi irakurketa eginez.
 - Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginez.
 - *Maddalen eta Fermin dinosauroen garaietan, lehen gizakiaren garaietan eta Grezian egon dira. Orain berriz, nora joan dira? Ba al du zerikusirik komikian gertatu denak unitatearen azalarekin eta izenburuarekin?*
- Maddaleni eta Fermini gertatuko zaien aurreikustea eskatuko diegu, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu.
- *Zer uste duzue gertatuko zaiela gure pertsonaiei erromatarren artean pasatuko duten denboralditxoan?*
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (JOKOAK, KIROLARI, KORRIKALARIAK, XABALINA JAURTITZAILEAK, DISKO JAURTIKETA, PITXERRA...) bilatzeko eskatu eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko du. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitetzete antzeko maila duten haurrak elkartzen). Galdetu haurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

40. jarduera	GORPUTZ JARDUERA ETA OSASUNA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
2.9	Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
2.3.3	Osasunarentzat elikadura orekatuak eta osasungarriak, higie, ariketa fisikoak eta atsedean eta oinarritzko segurtasun-neurriek duten garrantziaz jabetzen da.	
2.9.2	Erregistroak egiten ditu; grafiko errazak, krokis sinpleak egin eta interpretatzen ditu.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 17. orrialdea	
AZALPENA		

Gure proiektuaren helburua, besteak beste, giza gorputza zaintzeko ohiturak bultzatzea izan da. Oraingo jardueran kirolaren inguruko ohituren berri jaso nahi dugu.

Kirola eta gorputz-jarduera bi kontzeptu dira, baina badute komunean ezaugarriren bat edo beste. Kirolaren oinarrian ariketa fisikoa dago, esate baterako, baina, ariketa fisikoa kirol kontsideratzeko, lehia eta lehia hori arautzen duen araudia ezinbestekoak dira. Gure lanaren helburua ez da ikasleak jakitea gure gizartean zer kontsideratzen den kirola eta zer ariketa fisikoa. Helburua beste bat da: gorputzaren gaitasun motorraz jabetzea, gaitasun motor hori lantzea eta osasuntsu egoteko lokomozio-aparatua martxan jartzea, ariketa fisikoa egitea, alegia, oso garrantzitsua dela.

- Liburua irekiko dugu 17 orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoak, argibideak, taulak eta hondo berdearen gainean idatzitako hitzak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Taularen beheko aldean dagoen galdera irakurri eta haur bakoitzak bere izena dagokion zutabean idatziko du.
- Ondoren, haurrek bere gelako lagun guztiei ea gorputz-jarduerak gustuko dituen galdetuko die. Ondoren, haur bakoitzaren izena dagokion zutabean idatziko du.
- Horretarako, bi aukera ditugu: denei altxatzeko esan eta norberak bere erritmoan erantzunak bil ditzala, edo liburuak elkarri pasa ordena jakin batean, norberak bere izena dagokion zutabean idazteko.
- Idazten hasi aurretik, erantzunak biltzeko galdera gogora ekar dezakegu talde handian: *Gustuko dituzu kirol-jarduerak?* Ondoren, ikasleak galdezka hasiko dira.
- Erantzuna ezezkoa den ikasleen kasuan, haurrak animatuko ditugu, oraindik bere gustuko kirol-jarduera aurkitzeko denbora badutela esanez. Eginkizun horretan laguntzeko, beren gustuko kirol-jarduera aurkitzen laguntzeko, irakasleak erronda bat irekiko du, ikasle bakoitzak, labur, zein jarduera duen gustuko esateko aukera eskainiz.
- Bukatzeko, ikasleekin hitz egingo dugu gorputz-jarduera egitearen garrantziaz. Horretarako, osasunari begira duen garrantzia azpimarratzeaz gain, lagunekin gozatzeko aukera paregabea dela esango diegu.
- Bestalde, beharrezkoa bada, kirolean ematen den lehiak eragindako jarrera ugari (egokiak eta desegokiak) aztertuko ditugu, sentimenduak tarteko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

ERROMA

1. Sekuentzia. Aurre-ezagutzak aktibatu, aurreikuspen estrategiak landu eta motibazioa pizten saiatu.

41 jarduera	KOMIKIA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>. 1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i>.
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Liburuko 18-19 orrialdeak
AZALPENA	

- Komikia irakurri aurretik, unitatearen azalean behatutakoa gogora ekarriko dugu. Hurrek, Greziari buruz ez bezala, erromatarrei buruz erreferentzia dezente dituzte (filmak, Asterix eta Obelix, etab.), eta gaiak dakitena taldean agertzeko eskatuko diegu.
 - *Zer jartzen du liburuaren azalean? Beraz, oraingoan nora joango direla uste duzue? Imajinatzen al duzue nolakoa izango den Erromatarren garaia? Goazen, bada, komikia irakurtzera!*
- Aurreko ataleko komikian zer gertatu den gogoratuz hasiko gara.
 - *Gogoratzen al zarete zer gertatu zen aurreko komikian? Zer erosi nahi zuen Ferminik Grezian alde egin aurretik? Zertarako erabiliko dute Grezian erositako pitxerra?*
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu.
 - *Nora joango dira gure pertsonaiak? Zuen ustez zer gertatuko da?*
- Hurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
 - *Zer dugu orri hauetan? (Komikia). Zertan ari direla uste duzue?*
- Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren balibideetan (harridurak, zurrunbiloak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsuak iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - *Zertan ari dira Maddalen eta Fermin? Zergatik da garrantzitsua lortutako piezak ordenan jartzea? Nola demontre bururatu zaie Maddalen eta Fermi Erromara joatea? Zergatik esaten dio Ferminek Urdintxori zirkuko lehoietara botako duela?*
 - *Ikusi al duzue inoiz pertsonak eta lehoiek borroka egiten duten zirkurik? Zuek ba al dakizue zein diren Erromatarrak? Komiki honetan ezagutzen ez duzuen hitzen bat agertzen al da? Zein?*
- Hurrek, elkarren artean, irakurketa-maila ezberdina izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu).
- Gelakideen mailaren arabera, lau taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (Fermin, Maddalen, Urdintxo, Pox eta erromatarrak) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rolak txandatu hainbat irakurketa eginez.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginez.
 - *Egin zuten azkeneko bidaian antzinako Greziarren garaia joan ziren. Orain berriz, nora joan dira? Ba al du zerikusirik komikian gertatu denak unitatearen azalarekin?*
- Maddaleni eta Fermi gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu.
 - *Zer uste duzue gertatuko zaiela gure pertsonaiei erromatarren artean pasatuko duten denboralditxoan?*
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (MUSEOA, LEHOIETARA, ERROMARA, DENARIOA, JAINKOEK...) eskatu eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko dute. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitezte antzeko maila duten haurrak elkartzeko). Galdetu hurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

42. jarduera	GREZIAKO ETA ERRROMAKO TXOKOA (Ikusi txoko zuria dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskainitako jarraibideen laguntzaz.		
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.4.4 Zuzentasun onargarriarekin hitz egiten du, gelan landutako erabilera okerrak (hiztegia, morfosintaxia...) identifikatuz eta zuzenduz.		
2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Eranskinetan daude familientzako gutuna eta gaiaren inguruko materiala (liburuak, posterrak, argazkiak...)	
AZALPENA		

Oraingo honetan txoko zuria, Greziako eta Erromako txokoa bihurtuko dugu. Beraz, Greziako materiala bertan dugula, txokoa hornitzen jarraituko dugu. Irakasleak ekarritako zerbait txokoan kokatuko du, ikasleek txokoaren izaera irudikatzen has daitezten.

Gurasoei gutun bat idatziko diegu Maddalen eta Ferminen izenean, landu behar dugun gaia agertzeko eta materiala eskatzeko. Gogoratu, etxera bidali aurretik guztion artean gutuna irakurri behar duzuela. Gutuna gidaren bukaeran aurkituko duzue.

Hainbat material jar dezakegu txokoa osatzeko: gaiaren inguruko liburu espezifikoak, ipuinak, argazkiak, banderak, bidaia-liburuak, bideoak, etab. Txoko horretara hainbat hizkuntzatan argitaratutako materiala etorriko zaigu, dudarik gabe. Gaztelania lantzeko premia dagoen tokietan, ekartzen dituzten ipuinez, bideoez, etab. balia zaitezketen proposamena indartzeko. Ingelesaren kasuan beste hainbeste egin daiteke.

Irakasleak ziurtatu beharko du txokoa ondo hornituta dagoela, batez ere, taldeko lana egiteko talde bakoitzeko informazio-liburu bat dagoela ziurtatuko du. Beraz, ikasleek ekartzen ez duten materiala ikastolak eskuratuko du, edo beste geletara ekarritakoa bilduko dugu hainbat jarduera egiteko orduan. Irakasleok ikasleak materiala ekartzera eta aurkeztera animatuko ditugu. Horrela, ekarritako materiala besteen eskura jarriz eta azalduz, txokoa eratzen parte hartuko dute. Irakaslearen lana, kudeaketa erraztuko duten tresnak eskaintzea eta lanen jarraipena egitea izango da.

Ikasleek, materiala ekarri, proposatzen den jardueraren arabera baliatu eta aurkezpenak egingo dituzte. Ikasle guztiek ezingo dute aurkeztu txokora ekarritako materiala. Hala ere, aurkezpenak egin dituzten ikasleen izenak idatziz jasoko ditugu. Irakasleek, irakasleak aurrez prestatutako tresnak erabiliz, ekarritako materialaren eta aurkezpenen kontrol idatzia jasoko dute. Bestalde, arratsaldero, etxera joan aurretik, arduradunak txokoa txukuntzeaz arduratuko dira.

Informazio ikurra liburuan ikusten dugun bakoitzean, edo gehiago jakin nahi dugunean, Greziako eta Erromako txokora joko dugu, informazio bila, eta halaxe jakinaraziko diegu ikasleei.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

2. JARDUERA SEKUENTZIA. Non eta nola bizi ziren erromatarrak?

43. jarduera	ANTZINAKO ERROMATARRAK NON BIZI ZIREN?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i> , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
2.9	Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
2.9.3	Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 20. orrialdea, Europako mapa, munduko mapa, ordenagailua, proiektagailua, Interneteko konexioa eta Google Earth programa. Bestalde, Erromako postalak, argazkiak, bidaia-liburuak...	
AZALPENA		

Gai hau lantzerakoan, haurrek zenbaitetan antzinako Erroma herria zela pentsatzen dute eta egun desagertu egin dela. Beraz, jarraian proposatuko dizuegun jardueraren helburua, Erromari buruz berri ematea da. Honetarako postalak, argazkiak edo bidai agentzietako katalogoez gain, Google Earth programa erabiliiko dugu.

Jarduera honen hasieran irakasleak ikasleen aurre-ezagutzak martxan jarri eta ikasleek dakitena partekatzen lagunduko die. Irakaslearen lana, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarri egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea izango da. Bestalde, beharrezkoak diren azalpenak emango ditu, betiere, gogoratu ikasleen hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko gaitasuna hipotesiak trukatzeko eta ezagutzak birformulatzean garatu egiten dela.

- Liburua irekiko dugu 20. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoak, mapa, testua eta marrazkiak.
- Ondoren, mapa bat zer den argituko dugu: *Ba al dakizue zer den orrialde honetan ikusten duguna? (MAPA) Zertarako balio du? Non aurki ditzakegu horrelakoak?*
- Gero, irakasleak munduko mapa zabalduko du. Grezia mapan kokatu genueneko gogora ekarriko dugu. Orduan, Euskal Herria, beren bidaietan ezagutu dituzten herriak eta Grezia mapan kokatu genituen.
- Arbelean dugun munduko mapa eta liburuan azaltzen den Europakoa berriro alderatuko ditugu. Irakasleak mundua sei lurraldetan banatuta dagoela esango die ikasleei eta kontinenteak mapan kokatuko ditu. Euskal Herria Europan dagoela esango die ikasleei.
- Europako mapa liburuan behatuko dugu.
 - *Zuek ba al dakizue mapan non dagoen Euskal Herria? Eta Grezia? Eta Erroma? Erroma zein herrialdetan dago kokatuta? Euskal Herria eta Erroma gertu daudela iruditzen al zaizue? Nola joan gaitezke Euskal Herritik Erromara?*
- Liburuan laranja azaltzen da Erromatar Inperioa.
 - *Liburuko mapa eta gelan daukaguna alderatuz, esango al didazue garai hartako Erromatar Inperioak hartzen zuen esparrua gaur egungo zein herrialdek osatzen duten? Norbaitek asmatuko al du erromatarren inperioa zer itsasoaren inguruan eratu zen? Nola uste duzue iritsi zirela erromatarrak Euskal Herrira?*
- Ordenagailuan ere badugu programa bat Erroma gertutik ikusteko balio duena, martxan jarriko dugu bada.
- Mapak irudikatzen duen lurraldea era xume-xumean zein den ikus dezaten Google Earth erabiliiko dugu. Gelako edo informatika gelako ordenagailua eta proiektagailua piztu eta ikasleak pantailari begira daudela Google Earth programa zabalduko dugu. Programa horren bitartez hegaldi birtuala egingo dugu. Horrela, hegan egingo bagenu bezala ikusiko ditugu Erroma eta Euskal Herria. Mapari eskala aldatzen diogunean zer gertatzen den ikusiko dute Erromara jaisten garenean, eta hango irudiak hiru dimentsiotan ikusiko dituzte, bai Koliseoa ere.
- Bukatzeko, Erromako txokoan ditugun irudiak ikusiko ditugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

44. jarduera	BERTSOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea. 1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta bakarka	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 74. orrialdea	
AZALPENA		

Erromatarrei buruz Mikel Mendizabalek asmatutako bertsoa irakurri eta doinu batez abestu ondoren, hainbat hitzen bilaketa bideratzeaz gain, errimari behatuko diogu.

- Ikasleek erromatarrei buruz dituzten aurre-ezagutzak baliatuko ditugu, bertsoaren gaineko hipotesiak egiten hasteko. Irakasleak erantzunak arbelean jarriko ditu. Aurre-ezagutzak aktibatzean ikasleak prestatzen ditugu zailtasunei aurre egiteko.
- Testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten, honako galdera hauek egingo ditugu eta erantzunak arbelean idatziko ditugu. Behar izanez gero, hitz horiek silabatan zatitu eta aztertuko ditugu.
 - *Komikietan nortzuk borrokatzen zuten Erromatarren aurka?* (ASTERIX ETA OBELIX). *Nola egingo zituzten erromatarrek beren lantzak?* (HARRIZ ETA MAKILAZ). *Guduetan, gerretan borroka egiten dutenei nola esaten zaie?* (GERREROAK).
- Ikasleei isilik eta bakarka testua behatzeko/irakurtzeko aukera emango diegu. Irakurtzen hasi aurretik, helburua testuaren zentzuaz jabetzea, olerkiak zer esaten digun ulertzea da eta ez informazio zehatza aurkitzea.
- Ondoren, irakasleak irakurriko die olerkia eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzera, ezagutzen edo gogoratzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzuteko.
- Behar izanez gero, irakasleak bertsozale.com web-orrian (esteka, liburu digitalean), bertso doinutegian *Pasaiaiko plazatik* bilatuko du eta haurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die. Ondoren, musika horrekin abestuko dute bertsoa.
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak? Zergatik ibiliko ziren erromatarrek beti borrokan? Zuei borroka egitea gustatzen al zaizue? Norekin egiten duzue borroka? Non?*
Irakurri ondoren, olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimek behatuz, berdin bukatzen diren hitz zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz:
 - *Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: ERROMATARRAK, BORROKAN, GERREROAK, ASTERIX, OBELIX...*
 - *Ezagutzen al duzue AN bukaera duen beste hitzik?* (EMAN, ESAN, NEURRIAN, BITARTEAN, IZAN, SAN, ZUZENEAN...). *Ikasleei bururatzen ez bazaizkie definizio errazen bidez lagunduko diegu; adibidez: zer egiten da opariekin beste pertsona baten urtebetetze eguna denean?* (OPARIA EMAN)

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

45. jarduera	ROMULO ETA REMO	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea</i> eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozaten du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 75. orrialdea	
AZALPENA		

Irakurgaietan Erroma hiria nola sortu zen kontatzen duen Romulo eta Remoren kondaira ezaguna irakurtzeko parada izango duzue. Lehenbizi, irakasleak irakur dezala eta ondoren, hurrei bakarka irakurtzen saia ditzatela proposatuko diegu. Irakurritakoaren inguruan elkarrizketatxo bat gara dezakegu orain edo aurreraxeago. Bukatzeko, bikiak izango bagina bezala jolastuko gara.

- Ikasleei orrialde horietan dauden marrazkiei arretaz behatzeko eskatuko diegu. Talde handian, ikusten dituzten marrazkiak deskribatuko ditugu.
 - Zer ikusten duzue hemen? Ikusten al dituzue haur jaio berriak? Ba al dakizue nola esaten zaien aldi berean jaiotzen diren anai-arrebei? Non daude? Zer da beren azpian ikusten den urdin hori?
 - Ikusten al duzue eskuinen dagoen animalia? Zein animalia dela uste duzue? Zer izango da, arra ala emea? Zergatik? Zertan ari dira irudietan azaltzen diren jaioberriak? Benetan gerta daitekeela uste duzue? Zergatik?
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Irakurriko dugunaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu ikasleei.
 - Nor izango dira Romulo eta Remo? Zuen ustez zer gertatuko da kondaira horretan?
- Irakasleak ikasleei letra xehez idatzitako testua irakurriko die. Kondaira hiru zatitan banatu dugu eta zati bakoitzarekin lotuta, ikasleei hainbat galdera egitea proposatzen dizuegu, gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin ditzaten. Galdera horiek, jakina, irakasleak ikasleen interesen eta erantzunen arabera, egokitu, baztertu edo berriak asmatu beharko ditu.
 - Orain badakigu Romulo eta Remo nor diren. Zergatik azalduko dira irudietan saskitxo horretan? Zuen ustez zer gertatuko zaie Troiako gerran parte hartu zuen heroiaren semeei eta gerraren jainkoaren bilobei?
 - Zergatik utziko zituen osabak haurrak Tiber ibaian? Zer gertatu zaie anaia bikiei?
 - Zergatik haserretu ziren bi anaiak? Zer iruditzen zaizue gertatutakoa? Zergatik? Zuek nola konponduko zenukete arazoa? Asmatuko al dugu denon artean istorio honen bestelako bukaera bat?
- Lagunekin haserretzen garenean arazoa nola konpondu dezakegun aztertuko dugu. Horretarako, Romulo eta Remoren istorioari buruzko hausnarketa txiki bat bideratuko dugu (*Idea!* prozedura aplikatuz nahi bada):
 - Ezagutzen al duzue norbait beti lehenengoa edo agintaria izan nahi duena?
 - Zer egoeratan gertatzen dira era horretako liskarrak? Zuen artean? Anai-arreben artean?
- Duela gutxi gertatutako gatazkaren batean arreta jarriko dugu. Haserretu diren hurrei, arazoa identifikatzen lagundu eta egoera horren aurrean dituzten sentimenduak eta pentsamenduak azaltzeko eskatuko diegu. Guztion artean gatazka gainditzeko bururatzen zaizkigun aukerak adieraziko ditugu, baita aukera horiek izan ditzaketan ondorio positiboak eta negatiboak ere. Gatazkan parte hartu duten guztientzat onuragarria den aukera martxan jarriko dugu. Irakasleak egoera jakin bat aukeratu dezake adibide gisa, (iletik tira egiten didate, nirea den zerbait ezkutatu dute, maiz haserretzen naiz lagun jakin batekin...) eta ahots altuan bere buruari egiten dizkion galderak berbalizatuz, gatazka bideratzeko prozedura azalduko die ikasleei: zerbait egin aurretik pentsatu, arazoa identifikatu, norberaren sentimenduak azaldu, konponbideak bilatu eta balioetsi eta konponbide egokiena aukeratu. Bukatzeko, irakasleak binaka jar ditzakegu hainbat egoera dramatizatu eta landutako prozedura martxan jarri dezaten.

- Horrelako gaiak ateratzen ditugunean, askotan nahi gabe, gure ikuspuntua era zuzenean agertzen diegu beraien gogoeta eragotziz. Horregatik, gure proposamena zera da, hurrek esaten dutena arreta handiz entzun eta gogoeta egin dezaten beraien arrazoinamenduei gatazkak sortzen ahalegindu, baina, guk inolako baloraziorik egin gabe. Irakaslearen lana elkarrizketa bideratzea, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarri egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea da.
- Romulo eta Remo bikiak dira. Bikiak euren artean antza handia dute, eta guk ere bikiak izango bagina jolastuko gara. Binaka jarri eta lagun batek egingo dituen keinuak eta mugimenduak besteak errepikatu behar ditu. Mugimenduak eta keinuak astiro egin behar dira. Hau da, denbora eman behar diogu gure bikoteari guk egindakoa errepikatzen.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

46. jarduera	ARTELANA: ROMULO ETA REMO	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	3.3.4 Hainbat garai eta kulturatako irudiak eta arte-objektuak era bideratuan aztertzen ditu eta irudi eta objektu horiek sortu ziren testuinguruaren ezaugarriak buruzko jakin-mina adierazten du. 3.4.8 Materialak manipulatu eta aztertuz gozatu du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka.	
MATERIALA	Liburuko 21. orrialdea, greziar eta erromatar artearen irudi errealistak eta plastilina	
AZALPENA		

Romulo eta Remoren kondaira ezagutu ondoren, oso ezaguna den eskultura ikusteko parada izango dugu.

Utzi hurrei denbora tartea orrialdeko elementu guztiei (argazkiak, izenburuak, azalpen-testua...) ondo behatzeko. Ondoren, bideratutako behaketa egingo dugu.

- Azpian agertzen den azalpen-testua irakurri ondoren, beraien ustetan "irudi errealistak" esaten denean zertaz hitz egiten ari garen galdetuko diegu.

- Zer uste duzue esan nahi duela "irudi errealistak" miresten zituztela?

- Informazio-iturrietara joko dugu: Grezia eta Erromako txokoa. Bilaketa horren helburua garbi adieraziko diegu hurrei: erromatarrek egindako irudi errealistak ikusi nahi ditugu. Bildutako informazioa/argazkiak taldearekin partekatuko ditugu.
- Hurren erantzunak transkribatzen baditugu, gurasoei bidaltzeko aldizkaritxo bat osa dezakegu. Azalean, Romulo eta Remoren marrazkia egiteko eta ERROMATARREN ARTEA izenburua idazteko proposatuko diegu eta barnealdean, "irudi errealistak" buruz beraien botatutako hipotesiak jarriko ditugu, erromatarren artelanen irudiekin osatuz.
- Ikusitako eskultura eredutzat hartuta, buztinez antzekoa egiteko esango diegu hurrei. Buztinez egiteko saio luze samarra beharko dutenez, plastilina erabil dezakezue (ez baita lehortzen).
- Erromatarren garaiko eskulturen aurkezpena ikusi nahi baduzue, Liburu digitalean edo Txanela.net-eko 6. unitatearen 11. jardueran aurkituko duzue.
- Hona hemen erromatar arteari buruzko web-orri interesgarri batzuk:

http://es.wikipedia.org/wiki/Eskultura_de_Roma

<http://www.monografias.com/trabajos/esculturaromana/esculturaromana.shtml>

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

47. jarduera	LEGIONARIOAREN MARRAZKIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p> <p>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p> <p>3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta bakarka	
MATERIALA	Liburuko 22. orrialdea eta legionarioen irudiak azaltzen dituzten liburuak, argazkiak...	
AZALPENA		

Orrialde honetan erromatar gudariak zer izen zuten agertu ondoren, legionario baten marrazkia egitea proposatzen da. Honako web-orrialde hauetan legionarioei buruzko informazioa eta irudiak aurkituko dituzu:

http://www.historialago.com/leg_01350_vida_cotidiana_01.htm

http://es.wikipedia.org/wiki/Ej%C3%A9rcito_de_la_antigua_Roma

- Liburua irekiko dugu 22. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: izenburua, globoa, argibidea, informazio ikurra, marrazkia egiteko laukia...
- Informazio-iturrietara joko dugu: Grezia eta Erromako txokoa. Bilaketa horren helburua garbi adieraziko diegu hurrei: legionarioei buruzko irudiak eta informazio idatzia bilatuko dugu. Bildutako informazioa/argazkiak taldearekin partekatuko ditugu. Legionarioek erabiltzen zituzten tresnak, armak eta jantzieta arreta berezia jarriko dugu.
- Legionarioen aurkezpena ikusi nahi baduzue, liburu digitalean edo Txanela.net-eko 6. unitatearen 26. jardueran aurkituko duzue.
- Azkenik, norberak bere marrazkia egingo du liburuan. Nahi izanez gero, haur bakoitzak bere argazkia jarri dezake, legionarioaren aurpegia dagoen tokian.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

48. jarduera	IGARKIZUNAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea. 1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere. 4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du. 4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 76-77 orrialdeak	
AZALPENA		

Legionarioek erabiltzen zituzten gauzak gogoratuz asmakizunetara jolastuko gara.

- Ikasleei orrialde horietan dauden marrazkiei arretaz begiratzeko eskatuko diegu. Denon artean ikusten dituzten irudiak izendatzeko eskatuko diegu.

Elkartasunez lan egiteko dauden tekniketako bat baliatzea proposatzen dizuegu. Garrantzitsua deritzogu, lana ondo burutzeko, pauso guztiak adierazi bezala jarraitzeari.


- Ikasleak launaka jarriko ditugu, liburuan lau asmakizun daudelako. Jatorrizko taldeak izango dira.
- Talde bakoitzeko kideei zenbaki bat eman, batetik laura:lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren asmakizunak
- Ikasleak A, B, C eta D talde berrietan jarriko ditugu, ikasle bakoitzak duen zenbakiaren edo asmakizunaren arabera. Hau da, 1 zenbakia duten guztiak elkarrekin A taldean, 2 zenbakia duten guztiak elkarrekin B taldean, 3 zenbakia duten guztiak elkarrekin C taldean eta 4 zenbakia duten guztiak elkarrekin D taldean.
- Talde bakoitzaren eginbeharra igarkizuna irakurtzea, erantzuna pentsatzea eta erantzun hori ondorioztatzeke hitz gakoak biribiltzea izango da.
- A, B, C eta D taldeetako kide guztiek irakurri, erantzuna idatzi eta hitz gakoak biribildu dituztenean, beren jatorrizko taldeetara itzuliko dira. Horrela, asmakizun guztiak aztertu dituzten lagunak elkartuko dira jatorrizko taldeetan.

Hurrengo urratsa eman aurretik, asmakizunak talde txikian irakurri aurretik, komeni da etxean edo gelan asmakizuna hainbat alditan irakurtzea. Izan ere, besteek ezagutzen ez duten testua irakurtzean, jarioitasunez eta bolumen eta intonazio egokiarekin irakurtzea beharrezkoa da entzuten dutenek testua uler dezaten. Horrela, helburu jakin batekin lana egiten dute ikasleek eta era egokian irakurtzeko gogoia areagotu egiten da.

- Kide bakoitzak besteei, asmakizuna irakurriko die. Erantzun egokia esan aurretik, kide guztiei beren iritzia galdetuko die.

Teknika horren bidez lan eginda, denen parte hartzea ziurtatzeaz gain, prozesuaren mementoren batean denen ideiak azalduko dira eta hori garrantzitsua da norbanakoentzat. Horrez gain, entzuketara aktiboa eta adierazpeneko gaitasunak landuko dituzte ikasleek: besteen iritzia entzun eta ulertu, norberarenak azaldu, aurreko taldean adostutakoa hurrengo taldeari adierazi, etab.

- Hona hemen, taldekatzeen adibide grafikoak:



- Horiek asmatu ondoren, haurrek proposa ditzatela, ahoz edo idatziz, legionarioek erabiltzen zituzten gauzen inguruko igarkizunak. Horretarako, irakasleak adibide bat edo beste jartzea komeni da.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

49. jarduera	ABESTIA: AVE CESAR	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</p> <p>1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 23. orrialdea eta abestien CDa, 33. pista	
AZALPENA		

Erromatarrekin jarraituz, *Ave Cesar* abestia eta dantza ikasiko ditugu.

- Testua irakurtzen hasi aurretik, ilustrazioek haurrak pentsatzen jartzeko ematen diguten aukera balia dezakegu honako galdera hauen bitartez:
 - *Erromatarren inguruko abestia bada, zergatik azaltzen dira haur batzuk jolasean?*
 - *Gogoan al dituzue Romulo eta Remo anai bikiak. Behatu arretaz irudiari, ba al da ezer anaia bikiak gogora ekartzen dizuenik?*
 - *Marrazkiaren erdi-erdian dagoen bidea, erromatarren garaikoa izango ote da?*
- Lehenik eta behin CDa (edo liburu digitala) jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten. Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz gero, dantza polit bat egin genezake. Horrela, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dute banaka.
- Kodearen inguruko behaketa zehatza bultzatuko dugu, lerroen bukaeran berdin bukatzen diren hitzak bilatuz edo hitz gakoak biribilduz. Bestalde, **uve** eta **ce** letren behaketa egingo dugu.
 - *Ba al da testuan euskaraz normalean erabiltzen ez dugun letrarik? Nolako soinua dute letra horiek? Euskaraz ba al ditugu soinua horiek? Nola idazten ditugu? Ezagutzen al duzue letra horiek erabiliz idazten den hitzen bat? Zergatik erabiliko dira letra horiek erromatarren hizkuntzan eta gaztelanian eta ez euskaraz?*

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

50. jarduera	MEZU SEKRETUA: JULIO ZESAR	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 18. orrialdea eta orrialdearen goiko aldearen kopia, ikasleek mezu sekretua osatzeko zatiak dagokien tokian jar ditzaten	
AZALPENA		

Lan-koadernoko jarduerara joan aurretik, Julio Zesar zein izan zen dakiten galdetuko diegu ikasleei.

- *“Ave Cesar” abestu dugu, baina norbaitek ba al daki zein izan zen Zesar? Galdera horren erantzuna mezu sekretuan dago idatzita. Hura irakurtzea izango da gure erronka.*

- Irakasleak ikasleei argibideak irakurriko dizkie eta esanahiari erreparatuko diote: “Zer egin behar dugu?”
- Barrenean dagoen mezua osatzeko, goiko zatien edo piezen kopia emango die irakasleak ikasleei. Ikasleek zati horiek moztu eta taulan behar bezala kokatuko dituzte, dagoeneko jarritako letrak eta laukien koloreetan arreta jarrita.
- Azkenik, banaka mezu sekretua irakurriko dugu.
- Esanahiari erreparatuko diogu: “Zer dio mezuak?”. Haurren erantzunak entzun ondoren, Julio Zesarri buruz zer jartzen duen argituko dugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...


51. jarduera	NON ETA NOLA BIZI ZIREN ERROMATARRAK?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskainitako jarraibideen laguntzaz.		
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.4.1 Taldean egiten diren ahozko aurkezpenen prestaketan (arduren banaketa...) taldekideekin elkarlanean aritzen da.		
1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.		
2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 24-25. orrialdeak	
AZALPENA		

Antzinako erromatarrak non eta nola bizi ziren ezagutzeko, bi orrialde horietan hainbat irudi aurkituko dituzue. Gai honetan sakontzeko ahozko aurkezpen motzak eta lan-koadernoko fitxak egitea proposatzen dizuegu. Lan horiek guztiak koliseoaren maketa eraikitzen duzuen bitartean, hainbat egunetan egitea aholkatzen dizuegu. (Ikusi *Unitatea garatzeko plangintza*). Hizkuntzako curriculumari begira, azalpenetan murgiltzea interesgarria izan daiteke eta ingurunearen aldetik gure bizimoduari buruz, inguruko giza inguruneari buruz, jarduteko aitzakia gisa erabiliko ditugu irudiak.

- Liburua irekiko dugu 24-25. orrialdeetan. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: izenburua, informazio ikurra, erdiko marrazkia, inguruko irudiak...
- Hasieran horma-irudia aurkeztu edo deskribatuko dugu.
- Ikasleei binaka edo hirunaka jartzeko eskatuko diegu.
- Talde txiki bakoitzak irudi handiaren zati bat edukiko du. Hamar irudi txiki ditugunez, talde bakoitzean gehienez hiru ikasle izango ditugu. Talde txikiko lana antolatzeke moderatzaile, idazkari eta marrazkilari bat izendatuko dituzte ikasleek.
- Talde bakoitzari arreta irudi jakin batean fokalizatzeke eskatuko diegu: herriko etxeak, etxe handiak, aisialdia, janzkera, apaingarriak, garraioak, elikadura, txanponak, dendak eta kristautasuna.
- Taldeari xehetasunez jarduteko denbora eman ondoren, irakasleak orri zuriak banatuko ditu. Paperean egokitu zaien irudia marraztuko dute eta irudi horri egokitzen zaion izenburua jarriko dute. Azkenik, antzinako Erroma eta gaur egungo gizartea konparatzeko, gaur egungo egoerari dagokion marrazkia egingo dute.



- Ikasleek ahozko azalpena egin baino lehen, irakasleak adibide bat eskainiko du. Adibidez,



ANTZINAKO ERROMATARRAREN ERREPIDEAK ESTUAK ZIREN ETA HARRIZ OSASUTA ZEUDEN. GURE ERREPIDEAK **BERRIZ**, ZABALAK DIRA ETA ZEMENTOZ ETA ASFALTOZ EGINAK DAUDE.

- Irakasleak aurkaritza aditzera emateko erabili berri duen lokailua arbelean idatziko du eta lokailuaren erabileraren inguruko azalpen xumea emango du. Ikasleei lokailu hori erabiliz hainbat esaldi esateko eskatuko die. Bukatu aurretik, berriro errepikatuko du erromatarrekin lotutako adibidea.
- Bikoteak berriz elkartuko dira informazioaren azalpena banatzeko. Taldeko kide batek antzinako erromatarren egoera azalduko du eta besteak gaur egungoa. Azalpen guztiak prest daudenean, banan-banan azalduko dituzte. Horrela, ikasle-talde bakoitza, beraiek landutako irudiaren zati horretan adituak bilakatuko dira. Beraiek, irudi horren inguruko informazioa partekatzen arduratu izango dute eta bitartean besteek adi entzungo dute. Besteek esperimendu ez duten zerbaiten inguruan jarduteak era ordenatua azaltzen eta mezua ulergarri egitera bideratzen ditu ikasleak. Era horretan, helburu jakin batekin lana egiten dute ikasleek eta entzuteko eta ekoizteko gaitasuna areagotu egiten da.
- Ahozko azalpena egiteko, hizkuntza-mailan oinarri sendoa duten taldeei txanda emango diegu aurretik. Horrela eginez gero, ahulagoak direnak adibideetatik ikasteko aukera izango dute.
- Azalpena bukatzean, gainerako ikasleei ekarpenak egiteko aukera emango diegu.
- Prozedura bera jarraituko dugu gai guztiekin, ikasleek arreta mantentzen duten bitartean. Azalpenak bi edo hiru egunetan egin daitezke, koliseoa eraiki, gaian sakontzeko irakurgaiak irakurri eta lan-koadernoan osatzen dugun bitartean.

Hemen dituzue hainbat gairen inguruan elkarrizketa bideratzeko hainbat galdera. Irakasleak, jakina, horiek erabili edo beste batzuk asmatuko ditu ikasleen interesen arabera:

NOLAKOAK ZIREN ETXEAK? *Nolakoak dira zuen etxeak? Zertan dira berdinak? Zertan bereizten dira? Zenbat solairu ditu? Zenbatgarrenean bizi zara? Erromatarren garaian etxebizitzetako azpiko aldean dendak egoten ziren; zer denda mota ikus daitezke marrazkian? Gaur egun ere ba al dago horrelakorik? Ba al dago dendarik zure etxepean? Eta inguruan?*

Gehiago sakontzeko: Lan-koadernoan, 19. or.

AISIALDIA *(Bainuetxeak, zirkua, dadotan jolastu...).* *Zuek joaten al zarete zirkura edo bainuetxeetara? Ondo ala gaizki pasa zenuten? Gaur egun egiten al dira marrazkian azaltzen diren bezalako borrokak? Marrazkian azaltzen den borrokan zeinek irabaziko du? Zergatik? Zuek nor izan nahiko zenukete, gladiadorea ala morroia? Zuek ba al dakizue dadotan jolasten? Ikasi nahi al duzue?*

Gehiago sakontzeko: Lan-koadernoan, 24. or.

JANZKERA ETA APAINGARRIAK. *Zertan bereizten dira eta zertan dute antza guk eta erromatarrek erabiltzen zituzten jantziak eta apaingarriak? Gustuko al duzue apaingarriak eta lurrina erabiltzea?*

Gehiago sakontzeko: Lan-koadernoan, 21, 25. or eta Irakurgaiak, 79. or.

KRISTAUTASUNA. Gure geletan hainbat sinesmeneko haurrak edota erlijiorik gabeak egon daitezke, baina erlijiodun edota erlijijogabe izanda ere, badago errealitate ukaezin bat: mendebaldeko gizartean hainbat eta hainbat ohiturek, artelanek, etab. kristautasunaren kutsua dutela eta haren historiaren ondorio dira. Gure asmoa erreferentzia kulturalak eskaintzea denez (edozein eratakoak), erromatarren garaikide izan omen zen Jesu Kristoren irudia aurkeztu dugu unitate honetan. Nola nahi ere, ikastola bakoitzak gai horren inguruan hartutako erabakiak errespetatuz, zeuek ikusiko duzue irudiari zer trataera eman.

Gehiago sakontzeko: Lan-koadernoan, 22. or.

JANARIA. Dieta mediterraneoan antzinako Erromatik datorrela esan daiteke. K.a. II mendean. Iruditan azaltzen diren elikagaiez gain erromatarren dietan zerealak (artoa edo artatxikia eta garagarra), lekariak (babak, ilarrak...), barazkiak (aza), frutak (sagarrak, meloiak, pikuak, datilak...), esnekiak (gazta), haragia (arkumea) eta arraina zeuden. *Zertan bereizten dira gure dieta eta antzinako erromatarrena? Zertan dira berdinak? Dieta orekatua al da? Zergatik?*

Gehiago sakontzeko: Lan-koadernoan, 20. or.

TXANPONAK. *Zertan bereizten dira gure txanponak eta erromatarrenak? Zertan dute antza? "Dirua" hitzaren jatorria latinezko "denarius" omen da. Konpara ditzagun bi hitzak, zer dute berdina? Zer dute ezberdina? Nor ote da erromatar txanponen irudietan azaltzen dena? Zuek erabiltzen al dituzue txanponak? Zertarako? Ba al dakizue txanponak erabiltzen edo amak eta aitak ematen dizkizue behar dituzuenak?*

Gehiago sakontzeko: Lan-koadernoan, 23. or. eta irakurgaiak, 79. or.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

52. jarduera	LETRA ZOPA: ERROMATARREN DENDAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketa, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 19. orrialdea	
AZALPENA		

Erromatarren garaiko dendeekin jarraituz, letra-zopa horretan aurki ditzatela hor agertzen diren denden izenak. Ariketa egiten hasi aurretik, elkarrizketa bultzatuko dugu haurrek ariketa testuinguruan koka dezaten. Hitzei erreparatuz, orduko dendei buruz hitz egin eta gaur egun ditugunekin alderatuko ditugu.

- Ezertan hasi aurretik, haurrei binaka jartzeko eta orrialdeari behatzeko eskatuko diegu.
 - Ondoren, talde handian, elkarrizketatxo bultzatuko dugu:
 - *Zer egin beharko dugu hemen? Zeren izenak bilatu beharko ditugu letra-zopan? Begiratu ondo-ondo orrialde barreanean dauden izenak, ezagutzen al ditugu?*
- Irakasleak agindua irakurriko du zeregina argitzeko eta, ondoren, banan-banan guztion artean denden izenak irakurriko ditugu.
- Berdin bukatzen direnak kolore berarekin margotuko ditugu. Nahi izanez gero, berdin bukatzen diren beste batzuk izenda ditzakegu.
 - Aurreko unitatean bezala, zutabeak eta lerroak zer diren argituko dugu eta hitzak bilatzeko estrategiak partekatuko ditugu. Irakasleak binaka jarriko ditugu, baina norberak bere fitxa izango du. Horrela, elkarri lagunduz izenak aurkitu beharko dituzte. Letra-zopa gehiago nahi badituzue, CD-ROMeko satora joan, baina jolasa aktibatze gogoratu lehenago hainbat jarduera egin beharko dituzuela.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

53. jarduera	ERROMATARREN DIETA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 20. or.	
AZALPENA		

- Esaldiek ematen duten informazioa kontuan hartuta, haur bakoitza zer jaten ari den asmatu beharko dute ikasleek. Proposatuko dizuegun prozedura horren beharra daukazuen ala ez, taldearen irakurketa-mailaren arabera erabaki ezazue.
- Lan-koadernoak irekiko dugu 20. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, elkarrizketa bultzatuko dugu haurrek ariketa testuinguruan koka dezaten. Irudiei erreparatuz, orduko jakiei buruz hitz egin eta gaur egun ditugunekin alderatuko ditugu.
 - Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, hitzak, marrazkiak eta hitzak idazteko hutsuneak. Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
 - Lanean hasteko, orrialdearen erdialdean ditugun izenak, goiko koadroan dauden esaldiekin erlazioan jarri beharko ditugu. Beraz, hitzetatik edota esaldietatik has gaitezke. Hitzetatik hasiz gero, lehenbizi, elikagaien izenak bakarka irakurriko dituzte.
 - Kodeari behatzeaz gain, zerekin lotuko lituzketen galdetu ikasleei: nolabait eurek sortuko dute "definizio" moduko bat. Lauko talde bakoitzari hitz bat eman eta pentsa dezatela; adibidez: letxuga entsaladarekin lot daiteke.
 - Irakasleak edo irakurle on batek esaldiak banan-banan irakurriko ditu eta hitz gakoa nabarmenduko du, indar bereziz intonatu, silabetan zatituz... Hitz gako hori bilatu (irakasleak beharren arabera behaketa bultzatuko du, soinua-letra erlazioa bideratuko du) eta inguratuko dute. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.
 - Gero, inguratu ditugun hitzak arrasto gisa erabiliz, ikasleek bakarka esaldiak irakurriko dituzte.
 - Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, irakurritako esaldiari dagokion elikagaia erabakiko dute.
 - Esaldiaren ondoan izenak idatziko dituzte.
 - Prozeduraren aurreko urratsei jarraituko diegu gainerako izen eta esaldiekin.
 - Bukatzeko esaldiaren ondoan idatzitako elikagaien izenak behean kopiatuko dituzte.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

54. jarduera	ERROMATARREN MODA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 21. orrialdea	
AZALPENA		

Definizioak irakurri ondoren eta azpialdean erantzunen hitzak laguntza moduan dituztela kontuan hartuta, erromatarren jantziei buruzko hitz gurutzatuak osatuko dituzte. Proposatuko dizuegun prozedura horren beharra daukazuen ala ez, taldearen irakurketa-mailaren arabera erabaki ezazue.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 21. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, elkarrizketa bultzatuko dugu haurrek ariketa testuinguruan koka dezaten. Irudiei erreparatu, orduko janzkerari buruz hitz egin eta gaur egun ditugunekin alderatuko ditugu.
 - Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, definizioak, hitzak eta hitzak idazteko laukiak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu, eta ondorioztatu egingo dute.
- Lanean hasteko, orrialdean barreiatuta ditugun izenak goiko koadroan dauden esaldiekin erlazioan jarri beharko ditugu. Beraz, hitzetatik edota esaldietatik has gaitzke. Hitzetatik hasiz gero, lehenbizi, jantzien eta apaingarrien izenak bakarka irakurriko dituzte.
 - Kodeari behatzeaz gain, zerekin lotuko lituzketen galdetu ikasleei: nolabait eurek sortuko dute "definizio" moduko bat. Lauko talde bakoitzari hitz bat eman eta pentsa dezatela; adibidez, eraztunak hatzekin lotu daitezke.
 - Irakasleak edo irakurle on batek esaldiak banan-banan irakurriko ditu eta hitz gakoa nabarmenduko du, indar bereziz intonatuz, silabetan zatituz... Hitz gako hori bilatu (irakasleak beharren arabera behaketa bultzatuko du, soinua-letra erlazioa bideratuko du) eta inguratuko dute. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.
 - Gero, inguratu ditugun hitzak arrasto gisa erabiliz, ikasleek bakarka definizioak irakurriko dituzte.
 - Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, definizio bakoitzari hitz bat atxikiko diote, beheko hitzen ondoan dagokion definizioaren zenbakia jarrita.
 - Azkenik, zenbakiei erreparatu, hitz bakoitza dagokion tokian idatziko dute.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

55. jarduera	KRISTAUTASUNA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak... 1.8.6 Zuzentasun-maila onargarriarekin adierazten ditu ideiak, landutako arauak errespetatuz: fonema-grafia korrespondentzia, puntuazio-markak (puntua, galdera- eta harridura-ikurra), hitz banaketa, letra larriak.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, binaka eta banaka
MATERIALA	Lan-koadernoko 22. or. eta lan-koadernoaren mezuaren hainbat kopia, mezua hitzetan banatzeko
AZALPENA	

Haurrek hitzak behar bezala bereizten badituzte, Jesu Kristok esandako esaldi famatua irakur dezakete. Erlijiodun edo erlijogabeko izanda ere, elkar maitatzearen mezuaren inguruan elkarrizketa gara dezakezue.

Esanahia duten oinarritzko unitateaz (hitzak) ohartzeko gaitasunari, kontzientzia lexikoa deritzogu. Beraz, segmentazio lexikoa lantzeko ariketa dugu. Idazketaren urrats silabiko alfabetikoan eta alfabetikoan dauden ikasleen produkzioetan, "hipo" eta "hiper" segmentazioak maiz agertzen dira. Hiposegmentazioak ohikoak dira ikasleek item bakoitzeko kodetzean arreta handia jartzen dutenean. Egoera horretan itemak *continuum* gisa agertu ohi dira. Pixka bat aurrerago bereizketa supralexikalak azaltzen dira aditz nagusia eta laguntzailearen artean (*Amona etorrída*). Bereizketa infralexikalak berriz, itemak testuinguru batean hitzak eta beste batean hitz baten silaba izan daitezkeenean azaltzen dira: (*Bi deoa ikusi dut*)

Konbentzionalak ez diren bereizketak, idazketaren funtzionamenduaren ikaskuntzari dagokion urratsa da eta alfabetizazio arrakastatsua denean, bigarren mailatik aurrera, desagertuz joaten dira.

Kontzientzia lexikoa garatzen lagungarriak diren ariketak, besteak beste, hauek dira:

Letra-zopak, hitz gurutzatuak.

Esaldi bateko hitzak zenbatu, hitz bakoitzeko txalo bat edo hanka-pauso bat emanaz.

Esaldi bateko hitzak identifikatu. Hitz bakarra aldatzen den bi esaldi aurkezten dira. Ikasleak hitz hori identifikatu beharko du; adibidez: *Erromatarren batzuk legionarioak ziren; Erromatar batzuk gladiadoreak ziren.*

Hitzak gehitu. Ariketa horretan bi esaldi aurkezten dira. Bigarrenean hitz bat gehitzen da eta ikasleak hitz hori identifikatu beharko du; adibidez: *Erromatarren sandaliak marroiak eta gogorrak dira; Erromatarren sandaliak marroiak dira.*

Hitzak kendu. Ariketa horretan bi esaldi aurkezten dira. Bigarren esaldian lehenengo esaldian dagoen hitz bat ez da esaten. Ikasleak hitz hori identifikatu beharko du. Maddalen eta Fermin bihar zirkura doaz. Maddalen eta Fermin zirkura doaz.

- Lan-koadernoa irekiko dugu 22. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, erdian azaltzen den mezua eta idazteko marrak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Argibideak irakurri ondoren, ikasleei hitz bat zer den galdetuko diegu. Irakaslearen lana, ikasleen ideiak biltzea, ordenatzea, ikasleen ekarpenak ulergarri egiten laguntzea eta ekarpenen balioa agerian uztea izango da. Bestalde, beharrezkoak diren azalpenak emango ditu.
- Ikasleei binaka jartzeko eskatuko diegu.
- Irakasleak hitzak dituzten txarteltxoak presta ditzake bikote bakoitzak ordena ditzan, hitzen artean tartetxo bat utziz. Eredu gisa lan-koadernoko mezua erabiliko dute.
- Hitzak dituzten txarteltxoak mahaiaren gainean ordena egokian jartzen dituztenean, lan-koadernoan kopiatuko dituzte.
- Bukatzeko, beraiek idatzitako testua baliatuz, liburuko mezuan hitzak bereizteko eskatuko diegu, hitzen artean marra bat jarritz.
- Horrelako ariketa gehiago egin nahi badituzue, Liburu digitalean (PDF) edo Txanela.net-eko 6 unitatearen 57. jardueran, testua ordezkatzeko aukera ematen duen lan-koadernoko orrialde hau, Word formatuan aurkituko duzue.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

56. jarduera	BA AL ZENEKIEN? ERROMATARREN DIRUA
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i> , aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i> .	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) <i>deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea</i> .	
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketa, analisis eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
2.9.3 Informazioa biltzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian eta banaka.
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 78. orrialdea eta Lan-koadernoko 23. orrialdea
AZALPENA	

Irakurgaiak liburuan agertzen den testuan, diruaren inguruko bitxikeria batzuk irakurtzeko aukera emango digu. Hurrei esango diegu oso ondo argitu behar ditugula azaltzen diren ideia guztiak eta xehetasunak ere kontuan hartu beharko ditugula, ondoren, lan-koadernoan, egia/gezurra motako jarduera ondo egiteko.

- Irakurgaiak liburua irekiko dugu 78. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orriaren behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: izenburua, irudia, eta testua.
 - *Zer ikusten dugu orrialde horretan? (AZALPEN TESTUA). Zertarako balio du? Non aurki ditzakegu horrelakoak? Izenburuarekin hasiko gara: Zer dakigu erromatarren diruari buruz? Agian testua irakurtzen badugu, gauza gehiago ikasiko ditugu!*
- Ondoren, banaka/binaka irakurtzeko aukera eskainiko diegu, ea jartzen duena ulertzen duten ikusteko
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, testua irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Bigarren irakurketa egiten hasi aurretik, arretaz entzuten laguntzeko, ikasleak talde txikietan jarriko ditugu eta hainbat talderen erantzuna aurkitu behar dutela esango diegu:
 1. *Gure txanponen izena euroa bada, nola dute izena erromatarren txanponek?*
 2. *Txanponik ez zutenean zer erabiltzen zuten salerosketak egiteko?*
 3. *Dirua sortu aurretik noren txanponak erabiltzen zituzten?*
- Esaldi bat irakurtzen dugun bakoitzeko, beraien artean hitz egiteko edo eztabaidatzeko tarte bat eskainiko diegu. Talde bakoitzeko hitz egiteko txanda emango duen moderatzailea eta esataria aukeratzea komeni da. Eztabaidarako denbora bukatu denean, esatariak taldean erabakitakoa esango dio talde handiari: "Gure ustez... da". Beste taldeak ados badaude, testuarekin aurrera egingo dugu, bestela taldeen arteko eztabaida eta iritziak arrazoitzea bultzatuko dugu.
- Irakurketa egin ondoren, erromatarrek erabiltzen zituzten txanpon motak eta guk erabiltzen ditugunak alderatu ditzakegu:

<i>as</i>	<i>euro</i>
<i>duploa</i>	<i>2 euro</i>
<i>sestertzia</i>	<i>ez daukagu parekorik, guk 5 euroko billetea daukagu</i>
<i>denarioa</i>	<i>10 euroko billetea</i>
<i>txikiagoak: 50, 30, 25, 16, 8</i>	<i>gure txikiagoak: 50, 20, 10, 5, zentimoak</i>
- Bukatzeko, irakasleak testuan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.

LAN-KOADERNOA

- Guztiek lan-koadernoan zabalik dutela, irakasleak orrialdearen goiko aldean dagoen agindua irakurriko du eta hurrei (antzeko irakurketa-maila dutela) binaka jartzeko adieraziko die.
- Egia eta gezurra hitzak aurkitu dituztela ziurtatuko dugu.
- Irakasleak, esaldiak banan-banan irakurriko ditu eta hitz gakoa nabarmenduko du: indar bereziz intonatuz, silabak markatuz...
- Hitz gako hori bilatu eta gorriz edota beste kolore batez inguratuko dute ikasleek.
- Aurretik kolorez inguratu ditugun hitzak arrasto gisa erabiliz, esaldiak irakurtzeko, egia ala gezurra dioten erabakitzeko eta gurutzatzea dagokion tokian jartzeko eskatuko zaie hurrei. Lan hori lehenbizi banaka eta gero ondoren dagoen lagunarekin erantzuna egiaztatuz egin dezakete.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

57. jarduera	ERROMATARREN AISIALDIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketa, analisis eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...</p> <p>1.8.6 Zuzentasun-maila onargarriarekin adierazten ditu ideiak, landutako arauak errespetatuz: fonema-grafia korrespondentzia, puntuazio-markak (puntua, galdera- eta harridura-ikurra), hitz banaketa, letra larriak.</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 24.orrialdea	
AZALPENA		

Erromatarrek aisialdian zer egiten zuten jakiteko, haurrek, bertan agertzen diren esaldiak osatu beharko dituzte. Jarduera egin baino lehenago, ortografiako arauak lantzeko aprobetxa dezakegu, esaldiak ondo osatzeko pista asko eskaintzen dizkietelako.

- Ariketa egiten hasi aurretik, elkarrizketa bultzatuko dugu haurrek ariketa testuinguruan koka dezaten. Irudiei erreparatuz, orduko aisialdiari buruz hitz egin eta gaur egungoarekin alderatuko dugu.
- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, irudiak, hitzak dituzten txartelak, idazteko marrak...
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko, ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Ikasleak marrazkietan ikusten dutena behatzera eta azaltzera animatuko ditugu: *Zer gertatzen ari ote da irudietan?*
- Ikasleek zenbakiak erabil ditzakete hitzak ordenatzeko. Horrela, adibidez, lehenengo esaldiaren lehenengo hitzaren gainean 1 zenbakia idatziko dute eta azkeneko hitzaren gainean 6 zenbakia.
- Lanean hasi aurretik, letra larriaren eta puntuaren erabilera gogoratuko ditugu. Hau da, ikasleei gogoratuko diegu ideia/esaldi baten hasieran letra larria erabiltzen dugula eta bukatzen denean, bukatu dela adierazteko puntua erabiltzen dugula. Azalpenaren ondoren, ikasleek erraz jarriko diote esaldiaren lehen eta azken hitzari dagokion zenbakia.
- Ikasleen irakurketa-mailaren arabera, ariketa hau bi eratan egin daiteke:
 1. Irakasleak irakurri dezake esaldia eta ikasleei binaka zenbakiak jartzeko eskatu. Bitartean, talde osoarekin, ariketa aurrera eramateko estrategiak partekatuko ditugu; adibidez: arrastoen (indizioen) bidezko hitzen aukeraketa.
 2. Irakasleak hitzak dituzten txarteltxoak presta ditzake eta bikote bakoitzari txartelak eman ordena ditzan. Hitzak dituzten txarteltxoak mahaiaren gainean ordena egokian jartzen dituztenean, lan-koadernoan kopiatuko dituzte.
- Bukatzeko, irakasleak testuan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

58. jarduera	JOKO KOOPERATIBOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
2.3	Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higie, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nork bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeari; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzuz, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz, bereizkeriarik gabe.	
2.5	Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
2.3.4	Emozioak eta sentimenduak (amorrue, beldurra, poza, tristura, asperdura...) identifikatzen ditu, eta aurrera egiten saiatzen da bizikidetzarako arazo diren horien kontrolean.	
2.5.1	Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Begiak estaltzeko zapiak eta animalien kareak	
AZALPENA		

Erromatarrek zirkuan gladiadoreen arteko borroak ikusteaz aparte, animalia basatiak ere hara eramatea ere atsegin zuten.

- Joko hau egiterakoan, gimnasia edota gela handi batera joatea komeni da.
- Joko horretan haurrak animalia basatiak izango dira eta bikotea, hitzartu duten soinu eginez eta begiak estalita dituztelarik, bikotea aurkituko dute.
- Nahi izanez gero, animalien kareak egin ditzakegu. Kartoi mehe batean, haur bakoitzak aukeratutako animalien marrazkia egin, margotu, moztu eta goma jarriko diogu (errefortzuak jarri zuloetan). Lan hori erraztu nahi baduzue, Haur Hezkuntzako *Urtxintxa 4 urte gidaliburuan* badaude hainbat eredu material osagarrien eranskinean.
- Gela osoarekin batera jokoa egin beharrean, bi txandatan egitea proposatzen dizuegu.

Haurrak binaka elkartzeko proposatzean, interesgarria da bikoteak nola egin diren ikustea: inor gelditu ote den bikoterik gabe, gogoz kontra bikoterik bat osatu den... Are interesgarriagoa da haurrekin beraiekin aukeraketa horretaz hitz egitea. Jolasa bukatzean, haurrei era honetako galderak luzatuko dizkiegu:

- *Zein lagun aukeratu duzu jolasa egiteko? Zergatik?*
- *Zuk jolastu nahi zenuen lagunarekin jolastu al duzu, hala beste norbait aukeratu zenuke? Nor? Zergatik?*
- *Zuk aukeratu duzu laguna, hala berak aukeratu zaitu?*
- *Beste norbaitekin nahi bazenuen, zergatik ez diozu besteari ezetz esan?*
- *Zer sentitu duzu zuk nahi zenuen laguna beste norbaitekin zegoela ikustean?*
- ...

Galdera horiek egiterakoan, kontu handiz ibili beharko dugu baztertuta geratzen diren haurrekin; talde osoaren kohesioaren, guztien onarpenaren eta laguntasunaren ideiak indartuko ditugu. Hainbat gatazken aurrean (beti xaxatzen edo besteak molestatzen dabilzanak...), norbanakoaren asertibitatea ere bultzatuko dugu, betiere, guztiok jator ibili eta guztion lagunak izateko ideia bultzatuz.

Beste galdera sorta bat animalien aukeraketari buruzkoa izan daiteke:

- *Zergatik aukeratu duzue animalia hori?*
- *Biok ados al zeundeten aukeraketarekin? Nork aukeratu du?*
- *Ados ez bazeunden, zergatik ez diozu esan ez zenuela animalia hori nahi?*
- ...

- Animaliek egiten dituzten soinuak eta mugimenduak landu ditugula baliatuz, erromatarren zirkua antola dezakegu. Ekintza hori prestatzeko denbora behar dugu. Lehenik eta behin pertsonaien paperen banaketa egin behar dugu. Animaliak, gladiadoreak, erromatarrek, enperadorea, senatariak, e.a. Bakoitzak bere pertsonaia prestatu behar du, bere izena asmatu, zer eta nola egin, eta nola jantzi. Hori dena ondo erabaki eta antolatu ondoren, hurrengo egunean, zirkura joango gara! Ondo pasa!

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

59. jarduera	ENTZUNALDIA. SAINT-SAËNS. ANIMALIEN INAUTERIA. ELEFANTEA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea. 3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.1.4 Hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizio laburrak aktiboki entzuten ditu. 3.4.1 Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egiten ditu, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Jardueren CDa, 28 . pista	
AZALPENA		

- Ezertan hasi aurretik, entzunaldiaren izenburuaren inguruko elkarrizketa sortuko dugu.
 - *Zer uste duzue adierazi nahi digula izenburu horrek? Animalien inauteriak ezagutzen al dituzue zuek?*
 - *Zer egingo ote dute animaliek inauterietan? Mozorrotu, festaren bat ospatu...?*
- Saint-Saëns-en biografia irakurriko diegu ikasleei eta horren inguruko hizketalditxoa izango dugu. Gogoratu aurre-ezagutzak aktibatu eta motibazioa pizteaz gain, hizkuntza-funtzio batzuk ere aktibatu ditzakezuela konpositoreen biografia lantzerakoan izandako elkarrizketan.

Saint-Saëns, Camille. Konpositore, piano-jotzaile eta organo-jotzaile frantsesa (Paris, 1835 - Asljer, 1921). Parisko Magdalena elizako organo-jotzailea izan zen eta mundu osoan ibili zen kontzertuak ematen. Poema sinfonikoak (*Animalien inauteria*, 1886), lan lirikoak (*Sanson eta Dalila*, 1877), pianorako bost kontzertu, organorako lanak eta ganbara-musika konposatu zituen.

 - *Konpositorea ezaguna egiten al zaizue? (Urtxintxan), Koka dezagun mapan bere jaioterria...*
- Bukatzeko, konpositorearen argazkia lortu eta "Gure konpositoreen txokoan" itsatsiko ditugu, argazkia eta biografia.
- Bisualizazioa. Autoreak musika konposatzerakoan elefantea adierazten saiatu zela jakinda, hasteko, haur guztiak lurrean etzanda jarri eta musika entzundakoan elefante bat imajinatzeke eskatuko diegu:
 - *Zer gertatzen zaio elefante horri? Non dago? Norekin dago? Zer egiten ari da?...*
- *Dramatizazioa.* Berrito musika jartzerakoan, imajinatu dutena, gimnasioko espazioan gorputzaren bidez era librean adierazteke eskatuko diegu ikasleei. Nahi izanez gero, taldeko koreografia bat antola dezakegu.
- *Ipuina.* Bukatzeko, bakoitzak imajinatutako istorioa irudikatzeke eskatuko diegu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

60. jarduera	NOLA JANZTEN ZIREN?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 25. orrialdea, buruko apaingarriak egiteko erramua, Erromako txokoa ditugun bitxiak eta maindireak	
AZALPENA		

Jarduera egiten hasi aurretik elkarrizketa bat bultzatuko dugu haurrak gaien koka daitezen. Irudiei erreparatuz, janzteko eta gorputza apaintzeko orduko ohiturei eta erabiltzen zituzten tresnei buruz hitz egin eta gaur egun erabiltzen ditugunekin alderatuko ditugu. Testu bakoitza dagokion irudiarekin lotu beharko dute haurrek. Proposatuko dizuegun prozedura horren beharra daukazuen ala ez, taldearen irakurketa-mailaren arabera erabaki ezazue.

- Talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, irudiak eta testuak
- Ondoren, irakasleak irakurriko ditu argibideak eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko ezagutzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezake(te), besteek entzun dezaten.
- Irakasleak marrazkietan ikusten dutena behatzera eta azaltzera animatuko ditugu: *Zer ikusten da irudietan?*
- Irakasleak edo irakurle on batek esaldiak banan-banan irakurriko ditu eta hitz gakoa nabarmenduko du, indar bereziz intonatuz, silabetan zatituz... Hitz gako hori bilatu (irakasleak beharren arabera behaketa bultzatuko du, soinua-letra erlazioa bideratuko du) eta inguratuko dute. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.
- Gero, inguratu ditugun hitzak arrasto gisa erabiliz, ikasleek bakarka definizioak irakurriko dituzte.
- Lehenbizi banaka, eta gero ondoko lagunarekin egiaztatuz, testu bakoitzari dagokion irudia atxikituko diote.
- Bukatzeko, irakasleak testuan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.
- Gu ere erromatarren antzera jantzi gaitezke. Horretarako, Grezia eta Erromako txokoa dauden bitxiak erabiliko ditugu. Ez ahaztu izarak ere erabiltzea eta erramua eskura baduzue, bururako apaingaria ere jar dezakezue. Desfile bat antola dezakegu. Hau da, lehenengo egunean gela erdia mozorrotuko da, eta besteak desfile hori ikusiko dute. Hurrengo egunean alderantziz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

61. jarduera	OLERKIA: ERROMATAR EMAKUMEEN EDERTASUNA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibiltate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 79. orrialdea	
AZALPENA		

- Olerkia irakurri aurretik, ikasleak prestatu behar ditugu aurre-ezagutzak aktibatzen eta zailtasunei aurre egiteko. Ilustrazioei arretaz begiratzeko eskatuko diegu eta olerkiaren gaia zein izango ote den galdetuko diegu. Erantzunak arbelean idatziko ditugu.
- Testuan aurkituko dituzten hainbat hitz ezagunak izan daitezten, hainbat galdera egingo ditugu eta erantzunak arbelean idatziko ditugu:
 - *Nola du ilea marrazkian azaltzen den emakumea? (APAIN, APAIN). Eta aurpegia? (ZURI-ZURI). Zer du besoetan? (ESKUMUTURREKOAK). Eta hatzetan? (ERAZTUNAK). Non daude perla? (IDUNEKOAN). Zer erabiliko du emakumeak usain gozo-gozoa eta fin-fina izateko? Zer du oso polita? (AURPEGIA). Nora dago begira? (ISPILURA)...*
- Ikasleei isilik eta bakarka testua behatzeko/irakurtzeko aukera emango diegu. Kontuan hartu, irakurtzen hasi aurretik helburua ez dela informazio zehatza aurkitzea, baizik eta testuaren zentzuaz jabetzea, olerkiak zer esaten digun ulertzea.
- Ondoren, irakasleak irakurriko die olerkia eta haurrak animatuko ditu berarekin batera irakurtzeko, ezagutzen edo gogoratzen dituzten hitzak. Gelako irakurle on batek/batzuk ere testua irakur dezakete, besteek entzuteko.
- Testuan dauden onomatopeiak zeri dagozkien galdetuko diegu haurrei, eta soinua imitatzen saiatuko gara.
- Irakurri ondoren, olerkiak aukera ematen digu, kodearen behaketa zehatza egiteko, errimek behatuz, berdinduz bukatzen diren hitzen zerrendak eginez edo hitz zehatzak bilatuz.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

3. JARDUERA SEKUENTZIA. Erromatarra Euskal Herrian. Gai horrekin zerikusia duten hainbat jarduera azalduko ditugu.

62. jarduera	ERROMATARRAK EUSKAL HERRIAN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</p> <p>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea</i>, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</p> <p>1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p> <p>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako apendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.5.6 Denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da eta horiek egungo bizimoduari ekarri dizkioten onurak balioesten ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Birraitonaren makina 1 DVDa (bideoa); Liburuko 26-27. orrialdeak; Abestien CDa, 36. pista	
AZALPENA		

Erromatarrek presentzia handia izan zuten Euskal Herrian eta inguruan. Haurrak horretaz jabetu daitezene, bideoa ikusi, liburuan agertzen den mapa aztertuko, abesti bat ikasi eta irteera bat egingo dugu.

Euskal Herrian ere erromatar hiri ugari egon ziren. Haietako bat Oiaso izan zen, gaur egun Irun dagoen lekuan kokatuta zegoena. Mertxe Urteaga, Arkeolaneko zuzendaria eta Irungo indusketen arduradunak, Oiaso erromatar hiriri buruzko argibideak emango dizkigu eta aurkitutako objektu batzuk erakutsiko dizkigu: ontziak, txanponak...

BIDEOA

- Bideoa ikusi aurretik, ikasleei bideotik eskuratu nahi dugun informazioa jakinaraziko diegu, hau da, jardueraren helburua adieraziko diegu. Aurkitu al dute Euskal Herrian Erromatar aztarnarik? Erromatar hiririk izan al zen Euskal Herrian?
- *Nolakoak ziren? Non zeuden? Zergatik aukeratu zituzten toki horiek? Zer aurkitu dute indusketetan?*
- Entzun eta ikusiko dutena interpretatzen laguntzeko, ikasleak gaiari buruz dakiena azaleratzera eta hipotesiak egitera animatuko ditugu. Irakasleak hipotesi horiek idatziz jasoko ditu arbelean eta bideoa ikusi ondoren, gure aurreikuspena zuzendu edo osatuko dugu.
- Bideoa lehenengo aldiz ikusten dugunean, osorik ikusiko dugu. Bukatzean, ikasleei, bilatzen ari garen informazio hori entzun ote duten galdetuko diegu. Ikasleek iritzi berriren bat plazaratzen badute, hasieran egindako hipotesi zerranda osatuko dugu.
- Bideoa bigarren aldiz ikusten dugunean, hasierako galderak berriro irakurriko dizkiegu eta informazio interesgarria entzutean, ikasleei eskua altxatzeko eskatuko diegu. Orduan bideoa gelditu eta ikasleari entzundako ideia azaltzeko eskatuko diegu.
- Bukatzeko, irakasleak bideoan azaldu diren ideiak laburtuko ditu.

LIBURUA

Liburua irekiko dugu 26-27. orrialdeetan. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.

- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: izenburua, mapa, marrazkiak, globoak...
- Hasieran horma irudia aurkeztu edo deskribatuko dugu.
- Mapa bat zer den argituko dugu: *Ba al dakizue zer den orrialde honetan ikusten duguna?* (MAPA). *Zertarako balio du? Non aurki ditzakegu horrelakoak?*
- Irakasleak munduko mapa zabalduko du eta Euskal Herria kokatuko dugu. Munduko maparen ondoan Euskal Herriko mapa jarriko dugu.
- Ondoren, irakasleak ikasleei ea Euskal Herrian bidaiarik egin ote duten galdetuko die eta hurrek izendatzen dituzten tokiak, mapan kokatuko ditu. Beraiek ezagutu dituzten herrietan erromatarren aztarnarik ikusi ote duten galdetuko diegu.

- Ikasleek aipatuko dituzten izenak, liburuan azaltzen diren hiri nagusiekin erlazioan jartzen ahaleginduko gara: Lapurdum (Baiona), Oiaso (Irun, Donostiatik 10 km-ra), Pompaelo (Iruñea), Veleia (Iruña-Oka, Gasteizetik 10 km-ra), Forua, Andelos (Muruzabal Andion), Calagurris (Calahorra), Flaviobriga (Castro Urdiales)... eta bertan azaltzen diren marrazkien bidez mapa deszifratzen saiatuko gara.
 - Zergatik uste duzue agertzen direla itsasoko itsasontziak kostaldeko herrirantz joateko geziekin?
 - Ba al dakizue zer ziren "cetaria"ak? (erromatarrek arraina lantzeko erabiltzen zituzten lekuak). Zergatik uste duzue Euskal herriko kostan bi herri agertzen direla Getaria izena dutenak?
- Une berean, gaur egungo mapa batekin alderatuko dugu orduko izenen bat mantendu den edo ez ikusteko: Lapurdi, Pamplona/Iruñea, Oarso-Bidasoa/Oiartzun, Forua...
- Aurkitutako aztarnen irudiak ikusi nahi izanez gero, honako helbide hauetan aurkituko dituzue:
 - <http://www.veleia.com/>
 - www.oiaso.com

ABESTIA

Aiton-amonek haurrak ziren garaian, mezatan latinez, hau da, erromatarren hizkuntzan, abesten zuten, baina gehienek hizkuntza hori ez zekitenez, abestian agertzen diren gisako esaldi xebreak esaten omen zituzten.

- Errepika guztiek batera abestuko dute. (*Sursumkorda txanpona zor da, bolis, bolis, bobilis. Pater noster afaia laster, bolis, bolis, bobilis*).

Abestia buruz ikastea nahi baduzue, ondorengo da jarraitu dezakezuen prozedura:

- Lehenik eta behin CDa (edo liburu digitala) jarriko dugu, ikasleek abestia entzun dezaten.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte.
- Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz gero, dantza polit bat egin genezake. Horrela, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.

IRTENALDIA

Erromatarrek, greziarrek ez bezala, Euskal Herrian hainbat eta hainbat aztarna utzi zuten eta oraindik ere aurkikuntza arkeologiko ikusgarriak egiten dira. Talde bakoitzak aztertu beharko du bere inguruan zer duen ikusteko eta nora joan ote daitekeen, baina interesgarria deritzogu zuzeneko behaketa lantzeari.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

63. jarduera	ERROMATARREK BEZALA PEGARRAK EGINGO DITUGU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza. 4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzat eta errespetu jarrearak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.4.8 Materialak manipulatzat eta aztertuz gozatzen du. 4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka	
MATERIALA	Melamina edo plastikozko xafla, buztina, plastikozko poltsak, belakiak, tenperak eta puntzoiak	
AZALPENA		

Buztina "txorizo erara" egokituta eraikiko ditugu oraingo piezak.

- Piezak mugitzeko azpian melamina edo plastikozko xafla fin bat jarri.
- Lehenik, oinarria izango den biribila egiteko, buztinezko xafla karratu bat egin eta markatu eta biribila moztu. Ondoren, buztinezko "txorizoak" egin, oinarriaren perimetroa inguratzeko neurrikoa lehena, eta eman nahi zaion formaren arabera (zabalago, estuago), beste txorizoen neurria egokitu.
- Txorizoak bata bestearekin itsasteko "buztin urtsuago" bat erabili eta hatzekin ondo elkartu. Kanpoko azala berdindu hatzez eta buztin urtsuaz. Lepoa jarri nahi badiozue egokitu beste txorizo bat eta beste hainbeste euskarri edo heldulekuarekin. Bukaera fina emateko belaki bat buztin urtsu horretan busti eta pegarraren azalera guztia berdindu.
- Saio batean bukatzeko aukera ez duzue izango ziur aski, eta lehor ez dadin plastikozko poltsa bat gainetik sartu eta ondo bildu.
- Behin buztina pixka bat lehortu denean, apaintzeko aukera daukagu. Horretarako, hainbat teknika erabil ditzakezue:
 1. Puntzoi edo zulakaitz batekin greka edo apaindurak egin (sistema hau aukeratuz gero, egokiena lehenik paperean diseinua egitea litzateke). Abiapuntua bi lerro paralelo izan daitezke eta lerro horien inguruan norberak nahi duen modulazioa eraikiko du.
 2. Kolorezko engobeekin margotu pegarrak.
 3. Teknika biak konbinatu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

64. jarduera	BERRIA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.1 <i>Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzeekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gai buruzkoak).</i>		
1.6 <i>Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</i>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.4 Entzundako testu baten oinarrizko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez.		
1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarrizko ezaugarriak hautemanaz.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 106. orrialdea	
AZALPENA		

Euskal Herrian erromatarren eragina handia izan zela konturatzeko berria irakurriko dugu. Bestalde, berria aztertuko dugu, bai mezuari dagokionean, baita egiturari dagokionean ere. Berriak aztertzerakoan izenburua, azpi-izenburua, argazkiak, argazkiaren oina eta berria behatuko ditugu eta bakoitzaren ezaugarriak ondorioztatzen saiatuko gara.

- Irakasleak Irakurgaiak liburuan aurkituko duen berria irakurriko dio taldeari. Haurrei esan testu bat irakurriko diezuela eta erakutsi orrialdea: *Ba al dakizue zer den hau? Zertarako dira berriak?*
- Beharazi goian izenburua dagoela, gero argazkia, ondoren azpi-izenburua eta azkenik, berriaren mamia: *Non aurki ditzakegu horrelakoak? Telebistan ere berriak ematen al dituzte? Adibidez...*
- Esan orain berriaren izenburua irakurriko diezuela.
 - *Inork ba al daki zer den eragina? Kantauri aldeko herria zein izango da? Zergatik?*
- Orain argazkiari behatuko diogu:
 - *Zer dira argazkietan azaltzen diren ontzi horiek? Zertarako erabiliko ziren? Gaur egungoak edo aspaldikoak direla iruditzen zaizue? Zergatik? Zuek ikusi al duzue horrelakorik inoiz? Non? Izenburua irakurri eta argazkiari behatu ondoren, zuen ustez zeri buruz izango da berria?*
- Berria irakurri aurretik hainbat hitzen esanahia (Indusketa lanak, baskoiak, biztanleak eta asentamenduak) argituko dugu.
- Irakurri orain berria (titulua berriz, azpitolua eta berria bera azkenik). Jardueraren helburua, besteak beste, ahozko azalpenaren esanahi orokorra identifikatzea da. Beraz, berria paragrafoka irakurriko dugu, eta ea ikasleak oinarrizko ideiak gogoratzeko gai diren ikusiko dugu.
- Bigarren aldi irakurtzen dugunean, arretaz entzuten laguntzeko, taldeka jarriko dira eta honako galdera hauen erantzunak identifikatzen saiatuko dira:
 1. *Nor da Mertxe Urteaga?*
 2. *Non zegoen Oiaso hiria?*
 3. *Zenbat biztanle zituen Oiasok?*
 4. *Zer dakigu azken urteetako emaitzei esker?*
- Paragrafo/esaldi bat irakurtzen dugun bakoitzeko beraien artean hitz egiteko edo eztabaidatzeko tarte bat eskainiko diegu. Talde bakoitzeko hitz egiteko txanda emango duen moderatzailea eta esataria aukeratzea komeni da. Eztabaidarako denbora bukatu denean, esatariak taldean erabakitakoa esango dio talde handiari: "Gure ustez... da". Beste taldeak ados badaude, testuarekin aurrera egingo dugu, bestela taldeen arteko eztabaida eta iritziak arrazoitzea bultzatuko dugu.
- Bukatu aurretik, irakasleak laburbilduko du testuak bideratzen duen ideia nagusia.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

65. jarduera	LATINA ETA EUSKARA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Lan-koadernoko 27. orrialdea	
AZALPENA		

Euskara eta latina ukipenean egon ziren garai hartan, bata bestearengana nola halako eragina izan zuen. Orain ez gara euskarak latinean izan zuen eragina aztertzen hasiko. Euskarak latinetik hartu zituen hitz batzuen aipamena besterik ez dugu egingo eta, nahi izanez gero, latinaren eboluzioz sortu ziren gure inguruko hizkuntzak aipatuko ditugu (gaztelania, galegoa, katalana, frantsesa...), betiere, euskara erromanizazio aurreko hizkuntza bereizi gisa aurkeztuz.

- Lan-koaderno irekiko dugu 27. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak eta hitz zerrendak. Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Ariketa oso zaila egingo zaie haurrei, beraz, pista batzuk eman beharko dizkiegu. Estrategia horiek denon artean partekatzea oso interesgarria da, berez bururatuko ez zaizkien haur horiei begira. Lehenik, utzi haurrei proposatzen zein estrategia erabiliko luketen. Proposatutakoak garbi ikusten badituzue, guztion artean ekin lanari.
- Bestela, geuk proposa diezaiekegu bidea: hasteko, errazenak, nabarmenenak, erlazionatu eta baztertuko ditugu, ondoren geratzen direnen artean (ahoskatzerakoan pistak emanez) erlazioak egiten jarraituko dugu, horien artean ere, errazenak aukeratuz, jakina.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

66. jarduera	KOMIKIA EGITEN	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p> <p>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanez.</p> <p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzear aurrerapenak eginez.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian	
MATERIALA	Lan-koadernoko 26. orrialdea eta marrazkiak egiteko orri zuriak (DINA 6)	
AZALPENA		

Asterix eta Obelixen komikia oinarri hartuta, bikote euskaldun baten komikia asmatzeko proposamena luzatuko diegu: Amaia eta Gartxot.

- Lan-koaderno irekiko dugu 26. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak eta binetak. Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Ondoren, komikietako hizkuntzaren inguruan errepasso txiki bat egin dezakegu: zer nolako globo mota ezagutzen ditugun, binetak antolatzeke planoak...
- Haurrak komikia egiten hasi aurretik, taldean gidoi posibleak eraiki ditzakegu.
 - *Lehen binetan Amaia eta Gartxoten aurrean erromatarrek pozik agertzen dira. Gartxotek esaten dio "Begira Amaia, erromatarrek" eta Amaiak "Iupiii!" erantzuten du. Zer uste duzue gerta daitekeela komiki horretan?*
- Ikasleak binaka jarriko dira. Bien artean hurrengo bi binetak pentsatu, marraztu eta globoak idatziko dituzte. Lan-koadernoan egin beharrean orri zurian egin eta ondoren lan-koadernoan itsatsi.
- Globoak idazteko orduan, ikasleei gogorarazi lehenengo hitzak idaztea komeni dela eta gero hitz horiek inguratzea. Bestela, oso globo txikiak egiten dituzte eta hitzak idazteko toki nahikorik ez dute izaten.
- Bukatzen dutenean, bien artean egindako lanaren kopiak egingo ditugu eta lan-koadernoan itsatsiko dituzte.



Mikelek eta Maitanek egindako adibidea

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

67. jarduera	ABESTIA: "ARRAROA NOSKI"	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</p> <p>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.</p> <p>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>2.9.1 Zuzeneko behaketaren bidez inguruko elementuak, gertakariak eta fenomenoak ezagutu eta identifikatzeko, konparatzeko... interesa eta jakin-mina du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Abestien CDa, 37. pista eta Irakurgaiak liburuko 84-85 orrialdeak	
AZALPENA		

Latina dela eta (eta aurreko unitatean greziera zela eta), hainbat herri eta garaitako hizkuntzez pixka bat aritu garenez, herri bakoitzak bere hizkuntza duela eta behar duela azpimarratzen duen abesti horrekin pixka bat jolastuko gara.

- Testua irakurtzen hasi aurretik, ilustrazioek eta izenburuak haurrak pentsatzen jartzeko ematen diguten aukera baliatuko dugu, honako galdera hauen bitartez:
 - *Irakurri izenburua, ba al dago marrazkietan arraroa iruditzen zaizuen ezer?*
 - *Zer jartzen du haurrak orrialde barrenean (85. or.) eusten ari diren mezuan? Zergatik jarriko ote du hori?*
 - *Zer izango ote da testu hori? Begiratu mezu gainean agertzen dena; agian hor jartzen duena lagungarria izango da zer testu mota den asmatzeko.*
 - *Begiratu laukizuzenei, ba al da errepikatzen den esaldirik? Zer dio esaldi horrek?*
- Lehenik, haurrei arreta handiz entzuteko eskatuko diegu. Ea zenbat hizkuntza sumatzen dituzten. Gero hizkuntza horiek zein izan ote daitezkeen galdetu (normalena ez asmatzea litzateke).
- Azkenik, abestiaren mezua argituko dugu guztion artean.
- Ondoren, taldea taldetxotan banatuko dugu eta talde bakoitzak hizkuntza bati dagokion estrofa ikasiko du (pazientziaz) errepika guztiek batera abestuko dutelarik.
- Taldetxo bakoitzak bere estrofa abesteko aurrera pauso bat emango du, hau da, aurrean jarriko da. Nahi baduzue, gorputzez keinu batzuk eginez nongoak diren adierazten saiatuko dira, eta abestia oso alaia denez, dantzan ere egin dezakete.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

68. jarduera	IPUINA: IÑABE ETA NUMERIANO	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.1	Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzeekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gaietarako buruzkoak).	
1.3	Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea , sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	
1.8	Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea , modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
1.13	Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea , baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeko ere.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.1	Azalpena arretaz entzuten du.	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntukoak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.	
1.8.2	Emandako komunikazio-egoeraren ezaugarrien araberrako edukiak adierazten ditu.	
1.8.8	Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.	
1.13.1	Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Irakurgaiak 80-83 orrialdeak eta gida honen bukaeran aurkituko duzun ipuinaren bertsiio luzea. Liburuko 33. orrialdea	
AZALPENA		

Joxan Ormazabalek ipuina Euskal Herrian eta erromatarren garaian kokatu digu. Baina ez du bukaera idatzi. Atalez ataleko irakurketa egin ondoren (tardean ulermena eta arreta bermatzeko galderatxoak, gezurtxoak etab. erabiliz), liburuko 33. orrialdean datorren ariketa girotzeko, ipuinaren bukaera desberdinak asmatzeko eskatuko diegu hurrei, ea guztion artean zenbat aukera sortzen ditugun.

IRAKURTZEN HASI AURRETIK

- Irakaslea aulki batean eseriko da, gelako liburutegiaren aurrean, eta ikasle guztiak berari begira lurtean eseriko dira.
- Ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diegu: *Ba al dakizue nor diren Iñabe eta Numeriano? Zer gertatuko ote da beraien artean?*

IRAKURRI BITARTEAN (testu osoa gidaliburuaren eranskinetan aurkituko duzu)

80. orrialdea

- Lehenengo zatia irakurri ondoren, ikasleei irakurritakoaren inguruan hipotesiak egiteko, hainbat galdera egingo dizkiegu: *Orain badakigu nor diren Iñabe eta Numeriano? Nola iritsiko ote zen Numeriano Euskal Herrira? Zergatik egongo ote da Iñabe oinutsik eta Numeriano ez? Zuek ere ba al duzue lagun handirik? Nola sentitzen zarete lagun horrekin zaudetenean? Zuen ustez zer gertatuko zaie Iñaberi eta Numerianori?*

81. orrialdea

- *Zuek ekarri al diozue inoiz zuen lagun bati berak ez zuen zerbait? Edo jaso al duzue inoiz lagun batengandik zuek ez zenuten zerbait? Nola sentitu zineten?*

82. orrialdea

- *Zuen ustez, zergatik ez zen Numeriano berriz azaldu? Lagun berri bat ezagutuko ote zuen? Erromara itzuliko ote zen?*

83. orrialdea

- *Zer gertatuko litzateke zuen familietan gurasoei baimenik eskatu gabe beste lagun bati zerbait emango bazeniot? Ondo iruditzen al zaizue Numerianoren gurasoek Numeriano zigortzea? Zer egin zezakeen Numerianok Iñaberi denarioak emateko eta bere gurasoak ez haserretzeko?*
- *Nork pentsatuko du bukaera bat ipuin horrentzako?*

LIBURUA: 33 ORRIALDEA

- Liburua 33. orrialdean irekiko dugu. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: marrazkiak, globoak, argibidea eta idazteko marrazkiak. Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatuko dituzte.
- Haurrak binaka antolatuko eta zikinean bien artean idatz dezatela euren ipuinari eman nahi dioten bukaera. Bukaera idazten hasi aurretik minutu batzuk emango dizkiegu elkarrekin hitz egin eta bukaera planifikatu dezaten. Idatzi aurretik, pentsatzea eta plan bat egitea beharrezkoa dela esango diegu. Plan horretan, lehenengo ekintza garrantzitsuenak aukeratu, ondoren idatzi eta bukatzeko idatzitakoak irakurri behar dutela azpimarratuko dugu.

- Gero, narrazio testuaren bukaera idatziko dutenez, ipuinaren zati horretan gertatuko diren ekintzak zerrendatzeko eskatuko diegu. Adibidez,

IÑABERENGANA JOAN.

DIRUA GORDE.

JOLASTU.

EZKONDU .

ERROMARA BIZITZERA.

- Zerrendatu dituzten aditzekin esaldiak idazteko eskatuko diegu:

ZIGORRA BUKATZEAN IÑABERENGANA JOAN ZEN BERRIRO. NUMERIANOK GOXOKIAK EROSTEKO DIRUA IÑABERI OPARITU ZION. PILA BAT JOLASTU ZUTEN ELKARREKIN. EGUN BATEAN, EZKONDU ZIREN ETA OIASORA BIZITZERA JOAN ZIREN.

- Haurren mailaren arabera, zuzendu ondoren (zuzenketa nagusiak irakaslearekin batera, irakaslearen laguntzaz edota irakaslearen eskaerak beteaz) bakoitzak bere liburuan txukun eta letra onez idazteko eskatuko diegu.
- Bukatzen dutenean, liburua eta irakurgaia (ipuinaren hasiera) etxera eraman ditzakete eta etxekoei kontatu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

4. JARDUERA SEKUENTZIA. Erromatarrak, eraikitzaile apartak.

69. jarduera	ERROMATARRAK ERAIKITZAILE APARTAK (Ikusi Txoko zuria dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) <i>ahozko aurkezpen sinpleak egitea</i> eskainitako jarraibideen laguntzaz.		
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea</i> , eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.		
1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarritzko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.		
1.7.1 Erantzun zehatzeko galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan.		
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarritzko unitateak (grafiafonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.		
1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.		
2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian eta binaka	
MATERIALA	Liburuko 28-29 orrialdeak eta Erromako txokoko liburuak	
AZALPENA		

Erromatarrak eraikitzaile apartak ziren. Horren lekuko dira oraindik zutik dauden ubideak, zirkuak, antzokiak... Haurren interesekoak izaten diren eraikin horiek, aitzakia gisa erabiliko ditugu informazio-iturriak erabiltzeko, ahozko aurkezpen motzak egiteko eta azalpen-testuak idazteko. Testu horiek koliseoaren eta ubidearen maketaren inguruan jarriko ditugu erakusketaren osagarri gisa.

Honako web-orri hauetan erromatar eraikinei buruzko informazioa aurkituko duzue:

http://es.wikipedia.org/wiki/Arquitectura_romana

<http://www.ihistory101.net/espanol/Rome/index.htm>

Gida honen sarreran adierazi genuen bezala, azalpen-testuen idazketan arreta berezia jarriko dugu. Testu horiek informazioa edukitzeko eta ezagutza zabaltzeko eta birformulatzeko bidea irekitzen digute. Ikasleek idazketa eta irakurketaren benetako funtzioen jabe egin daitezten, guztiz beharrezkoa da hizkuntzaren funtzio horren benetako erabilera gelan bertan gauzatzea.

Jarduera horretan sortuko ditugun testuak hizkuntza idatziaren erabilera zientifikoarekin edo akademikoarekin lotuta egongo dira. Horretarako, testuak diren bezala, beren konplexutasunean erabiliko ditugu. Ikasleak gerturatuko ditugu testuetara eta ez alderantziz. Haurrak hizkuntzaren benetako erabilera parte hartuko du, bere inplikazioa dela medio, helduaren laguntzarekin. Egoera horiek, benetako irakurketa-egoera dira. Hau da, zerbait jakin nahi izateak irakurtzera eramaten ditu; beraz, ikasleek argi dute irakurketaren helburua. Gainera, ikasitakoa irakaslearekin eta beste ikasleekin partekatuko da, ikaskuntzaren auto-erregulazioa aktibatuz.

- Liburua irekiko dugu 28-29. orrialdeetan. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoa, informazio ikurra argibideak, argazkiak, izenburuak eta testuak idazteko marrak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Erromatar eraikinei buruzko aurkezpena ikusi nahi baduzue, Txanele.net-eko 6 unitatearen 46. jardueran aurkituko duzue.

Testu guztien idazketarako honako urrats hauei jarraituko diegu:

1. Ikasi nahi dugunaren gidoia eta informazio hori nork bilatuko duen idatziz jasoko dugu bilaketari ekin aurretik. Modu horretan ikasleek argi edukiko dute irakurketaren helburua hasieratik (*Noiz egin zen Koliseoa? Non daude erromatar galtzadak? Zenbat pertsona sartzen ziren antzokian?*) Ikasi nahi dugunaren gidoia eta informazio hori nork bilatuko duen idazteak, aurkezpenak antolatzen lagunduko digu. Irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusien arabera eta xehetasunak galdera horien azpialal moduan hierarkizatzea, edo haurren erara "antza duen guztia elkarrekin jartzea". Ikasleek aukeratutako informazio zehatza aurkitzea izango dute helburu.

KOLISEOA

ZER JAKIN NAHI DUGU?	NORK LORTUKO DU INFORMAZIOA?
Zertarako erabiltzen zuten?	Oihan eta Itane
Nola egin zuten?	Alazne eta Iker
Nola mugitu zituzten harri handiak?	Urzi eta Maitane
Zenbat pertsona sartzen ziren?	Mikel eta Ane

Koliseoaren inguruko informazioa bilatzeko gidoia eta bilaketa lanaren banaketa

- Zer jakin nahi dugun gogoratuko dugu Erromari buruzko liburueta jo aurretik eta, gure interesekoa den orrialdean, paper bat, marka moduko bat, jarriko dugu. Paper horretan bilatzen ari garen informazioaren inguruko hitz bat idatz daiteke, zergatik aukeratu duten gogoratzeko.
- Hasieran, ikasleek aukeratu dituzte erantzuna egon daitekeen orrialdeak, eta irakasleak orrialde horietan dagoen informazioa irakur dezake. Horretarako, goiko mailako ikasleen laguntza baliatu dezakegu. Hala ere, ikasleei testua emango diegu, beraiek aurkitu dezaten irakasleak irakurri duena. Izenburuak, azpitituluak, aurkibideak eta letrakera lodiz adierazitako hitzak irakurtzera animatuko ditugu.
- Gai jakin bati buruzko nahikoa informazio lortutakoan, besteei komunikatzeko antolatuta behar da. Hurrek dioten bezala "gai berari buruzko gauzak elkarrekin jarri eta garrantzitsua dena lehenbizi jarri". Gai bera landu duten ikasleak taldearen aurrean jarriko ditugu eta lortu duten informazioa azalduko digute. Irakasleak, bitartean, ikasleak azaltzen ari diren informazioa gogoratzeko hitz gakoak idatziko ditu arbelean.
- Bukatzeke, ikasle guztiak binaka azalpen-testua idatziko dute. Hala ere, binaka idazten ikasten joateko, irakasleak talde handiaren aurrean, ikasleen aurrean, adibide bat egingo du (ikus adibidea). Idatzi aurretik, pentsatzea eta plan bat egitea beharrezkoa dela esango diegu. Plan horretan, informazioa nola idatziko dugun pentsatu ondoren, idatzi eta bukatzeko idatzitakoa irakurri behar dutela azpimarratuko dugu.

Koliseoari buruzko azalpen-testua binaka idatzeko elkarrizketaren transkripzioa (adibidea)

IRAKASLEA: Zein da lehenengo galdera?
 IKASLEA: (*Hasieran egindako gidoiari begiratu*) Zertarako erabiltzen zuten? A, badakit! Gladiadore borrokak egiteko.
 IRAKASLEA: Orduan, idatziko dugu: Gladiadore borrokak egiteko erabiltzen zuten. Ados zaude?
 IKASLEA: Bai, ados.
 Ikasleak eta irakasleak arbelean idatziko dute, norberak liburuan idatziko balu bezala: "Gladiadore borrokak egiteko erabiltzen zuten."
 BESTE IKASLEA: Puntua jarri, ideia bukatu da!
 IRAKASLEA: Orain zure txanda.
 IKASLEA: (*Hurrengo galdera irakurtzen du, baita ondoan idatzita dagoen zenbakia ere.*) Bi mila urte.
 IRAKASLEA: Bai, hori idatziko dugu?
 IKASLEA: Bai.
 IRAKASLEA: Bi mila urte oso ondo dago, arbelean jartzen du eta. Hala ere, norbaitek lagunduko al digu ideia hori osatzen? Nola da? Bi mila urte... bi mila urte ditu; bi mila urte barru eroriko da; bi mila urtez erabili zuten...
 IKASLEA (barrez): A, badakit! Mi mila urte ditu.
 Ikasleak eta irakasleak arbelean idatziko dute, norberak liburuan idatziko balu bezala: "*Bi mila urte ditu.*"
 IKASLEA: Orain zure txanda da.
 IRAKASLEA: Lehenengo galdera irakurriko dut, ondoren idatzita dagoen erantzuna eta, bukatzeko, esaldia pentsatuko dut. Nola mugitu zituzten harri handiak? Igogailua. Igogailu bat asmatu zuten.
 IKASLEA: Bai, hori idatziko dugu.
 IRAKASLEA: Nahikoa iruditzen al zaizue?
 BESTE IKASLEA: Ez, igogailua asmatu zuten... ez nekatzeko, hirugarren pisura joateko, lehoiak satora eramateko...
 IKASLEA (BARREZ): Bale. Igogailu bat asmatu zuten harri handiak mugitzeko.
 Ikasleak eta irakasleak arbelean idatziko dute, norberak liburuan idatziko balu bezala:
 IRAKASLEA: Orain zure txanda da.
 IKASLEA: Zenbat pertsona sartzen ziren? Berrogeita hamar mila. Berrogeita hamar mila pertsona sartzen ziren. Ados?
 IRAKASLEA: Bai, primeran!
 Ikasleak eta irakasleak arbelean idatziko dute, norberak liburuan idatziko balu bezala: "Berrogeita hamar mila pertsona sartzen ziren."
 IRAKASLEA: Orain irakurri egingo dugu.
 DENOK: Gladiadore borrokak egiteko erabiltzen zuten. Bi mila urte ditu. Igogailu bat asmatu zuten harri handiak mugitzeko. Berrogeita hamar mila pertsona sartzen ziren.
 IRAKASLEA: Orain formari begiratu diegu. Letra guztiak ulertzen al dira? Soinu guztiak idatzi al ditugu? Soinuren bat falta da? Hitzak ondo banatuta daude? Puntuak jarri al ditugu?
 ...

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

70. jarduera	BERTSOA: ERROMATARRAK ERAIKITZAILE APARTAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak...</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Bakarka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 28. orrialdea	
AZALPENA		

- Lan-koaderno irekiko dugu 28. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko.
- Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak koplak eta idazteko marrak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Bertsoa osatzeko, zatiak ordenatu beharko dira, letra larrietan eta puntuetan arreta jarritz. Ikasleek zenbakiak erabil ditzakete bertsoa ordenatzeko.
- Lanean hasi aurretik, letra larriaren eta puntuaren erabilera gogoratuko ditugu. Hau da, irakasleak ikasleei gogoraraziko die esaldiaren hasieran letra larria erabiltzen dela eta bukaeran berriz puntua. Azalpenaren ondoren, ikasleek erraz jarriko dituzte zenbakiak.
- Bakarka ordenatuko dituzte zatiak. Ondoren, ondoko lagunarekin egiaztatuko dute hartutako erabakia.
- Bukatu aurretik, testua ordenan kopiauko dute barreneko lerroetan.
- Azkenik, guztiok elkarrekin bertsoa abestuko dugu. Horretarako, irakasleak bertsozale.com web orrian, bertso doinutegian Xarmagarria *zira* bilatuko du, baita liburu digitalean ere, eta hurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die.
- Orain oinak aztertuko ditugu. Zer dute berdina? Grafia-fonema erlazioan jarriko dugu indarra, **-tak** bukaera duten hitzak zerrendatuz.
- Bukatzeko, bertso lerro bakoitzeko silaba kopurua zenbatuko dugu eta koplak txikiak ezaugarriak ondorioztatuko ditugu.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

71. jarduera	MAKETAK: KOLISEOA ETA UBIDEAK	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza. 4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrearak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	3.4.8 Materialak manipulatzu eta aztertuz gozaten du. 4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 30-31 orrialdeak, material osagarria, kartoia eta argazki-kamera.	
AZALPENA		

Osa itzazue koliseoa eta ubidea, orrialde hauetan proposatzen diren pausoak emanez.

- Liburua irekiko dugu 30-31. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: globoa, argibideak, eta marrazkiak.
- Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.
- Txantiloia guztiak elkarrekin itsatsiko ditugunez, margotzeko erabiliko ditugun koloreak alde aurretik adostea komeni zaigu. Horretarako, hau da, koloreak adosteko, eraikinen behaketa bideratuko dugu Erromako txokoko liburuetan.
- Ubidea nahiz koliseoa eraikitzeko norberak margotu duen txantiloia moztu ondoren, txantiloia guztiak kartoia gogorrean itsastea aholkatzen dizuegu. Horrela eginez gero, irakasleak lurrean kartoia gogor xafra luze bat (2 m x 45 cm) jarriko du eta ikasleek elkarren ondoan eta elkarren gainean ondo-ondo itsatsiko dituzte margotutako txantiloiak. Denak itsatsita daudenean, kartoia zutik jarri eta biribil forma emango diogu. Horrela eginez gero, txantiloiak elkarren ondoan itsasteko hegala ez dira beharrezkoak izango.
- Osa itzazue taldean ubidea eta koliseoa, orrialde hauetan proposatzen diren pausoak emanez.
- Barruan hondarra bota, panpinekin (plastikoa, plastilina...) apaindu, utzi ikasleei panpinekin eta maketarekin jolasten eta argazkia atera liburuko 34. orrialdean itsasteko.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

72. jarduera	ZIRKUA: AKATSAK IDENTIFIKATU ETA DESKRIBATU	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.		
1.8.6 Zuzentasun-maila onargarriarekin adierazten ditu ideiak, landutako arauak errespetatuz: fonema-grafia korrespondentzia, puntuazio-markak (puntuua, galdera- eta harridura-ikurra), hitz banaketa, letra larriak.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 29. orrialdea	
AZALPENA		

Marrazkian akats batzuk (anakronismoak) agertzen dira. Haurrek akats horiek identifikatu eta idatziz deskribatu beharko dituzte.

Lan-koadernoan irekiko dugu 29. orrialdean. Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei orriari lasai behatzeko. Ezertan hasi aurretik, talde handian lan-koadernoko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: argibideak, erdian azaltzen den marrakia eta idazteko marrak.

Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, aipatutako elementuen esanahia irakurri, argitu, landu eta ondorioztatu egingo dute.

- Ikasleek, banaka lehenengo eta, ondoren, beste ikasle batekin egiaztatuz, iruditan azaltzen diren akatsak biribilduko dituzte. (ARGAZKI KAMARA, PISTOLA, MIKROFONOA ETA LEHOIA LOTZEKO SOKA)
- Bukatzeko, marretan akatsak deskribatuko dituzte. Litekeena da ikasleek hitz bakarra erabiltzea akatsa deskribatzeko. Hori gerta ez dadin irakasleak talde handian lehenengo akatsa deskribatuko du adibide gisa.

IRAKASLEA: Zein da akatsa?

IKASLEA: Mikrofonoa.

IRAKASLEA: Oso ondo, Erromatarren garaian ez zegoen mikrofonorik. Zer gertatzen ari da mikrofonoarekin?

IKASLEA: Gizon bat mikrofonoarekin hitz egiten ari da.

IRAKASLEA: Oso ondo. Beraz, "Gizon bat mikrofonoarekin hitz egiten ari da." idatziko dugu eta horrela informazio gehiago emango dugu akatsari buruz. Ea, esan dezagun esaldia/ideia hatzekin, hitzen arteko tartetxoak jartzeko. Hitz bakoitzeko hatz bat goratuko dugu.

IKASLEAK: Gizon (hatz txikia gora) bat (hatz nagia gora) mikrofonoarekin (hatz luzea gora) hitz (hatz erakuslea gora) egiten (hatz lodia gora) ari (hatz lodia gora) da (hatz erakuslea gora).

IRAKASLEA: Zenbat hitz dira?

IKASLEAK: Zazpi

IRAKASLEAK: Zer jarriko dugu bukaeran ideia bukatu dela adierazteko.

IKASLEAK: Puntuua.

IRAKASLEA: Bikain, hasi lanean.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

73. jarduera	ROMAN MOSAICS	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
Uses basic vocabulary appropriate to context. 1 <ul style="list-style-type: none"> • Produces language needed for classroom interaction. 1 • Uses non linguistic resources to convey meaning. 1 • 3.4.8: Enjoys manipulating materials. 2 • 4.1.8: Cleans up when he/she is finished. 2 • Takes part in group work. 2 1. Eleanitz project, Hocus and Lotus materials, teachers guide 2. Txanela proiektua, Ziklo bukaerako helburuak eta ebaluazio irizpideak dokumentua		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Big group and small groups.	
MATERIALA	Book page 32, cardboard (1,80 x 42), grid paper (DINA3), beans, chickpeas and lentils, glue, brushes and mosaics photographs to analyse them with your students	
AZALPENA		

In the previous activity we have built up a model of the Coliseum. Now we are going to make a mosaic to decorate a large pavement that leads to the coliseum. Instead of using tiny pieces of stones, like romans, we are going to use beans, lentils and chickpeas.


In these web pages you can find information and photos on mosaics.

<http://www.arteguias.com/mosaicos.htm>

<http://www.fotoaleph.com/Colecciones/MosaicosTunicia/MosaicosTunicia-index1.html#Mosaicos%20de%20Tunicia>

Before the lesson

- Make enlarged photocopies of grid paper according to the number of pupils you have. (1 template for 4 pupils)



- Get all the material you need to carry out the activity.

Shared reading of the book: Ask the pupils to look at page 32 and give them a few moments to look at it. We are going to invite children to read the sentences, one at a time, and work out the meaning with the whole group.





- *So Reddy likes beans and he says "These beans are good?" These are beans. These are lentils. These are chickpeas. Now say them with me: Beans, lentils, chickpeas, etc. What are these? (Chickpeas) What are these? (Lentils) etc. Do you like beans?*
- *Good. Do you like eating chickpeas? and lentils? Etc. Well, we are not going to eat them today. We are going to use them to make mosaics.*
- *Do you know what a mosaic is? Write MOSAIC on the blackboard. These are mosaics (pointing at the book) When describing what a mosaic is, reference a puzzle. Every child has put together a puzzle and can relate closely to this. Explain that a mosaic is the same as a puzzle, there are a bunch of small pieces that they put together to form a large overall picture. Mosaics are pictures made of little pieces of stone or ceramic. Look can you see the little pieces? The Romans were very good at making mosaics. They used them to decorate their houses.*
- *Now we are going to make a mosaic, but not with stone or ceramic. We are going to make our mosaic with lentils chickpeas and beans.*
- *What's this? (pointing at the photograph at the bottom of the page) Yes, it's a Coliseum model like yours! Do you want to make a mosaic to decorate the pavement that leads to the coliseum like in the photograph? So first, we are going to look for more examples, then we are going to desing our own mosaic and finally we will fill it with lentils, beans and chickpeas.*

Look for more examples

- Let them look for more examples of mosaics in the books about Rome they have in class.
- Get them to present the pictures they found in the books. While presenting, make comments on colours and designs (geometric patterns or pictures)
- Describe symmetry and asymmetry to the students and show them some examples
- Show them your already made mosaic.
 - *Can you see? This is my mosaic. It's a lion. You are going to make one like this. You can draw circles, squares, a flower, a fish, or letters (AVE for example), like we have seen in the examples.*

Create a mosaic in groups (If time is an issue you can hand out already made designs)

- You can let them create their own patterns and designs.
- If they want to create a symmetrical design give them a piece of paper and have them fold it in half. Students should then draw a picture on one half of the page, so that it ends at the fold. Students then go over their pencil drawing with a crayon, pressing as hard as they can. Students fold the paper over the other way, so the drawing is hidden. When the paper is unfolded, the children will have a symmetrical picture.
- Let them design their mosaics in small groups. Elicit from the pupils or teach them the language they need to decide what to draw. *Let's draw aDo you agree? Yes, I agree. No I don't agree. Let's draw a ...I star drawing...Now, it's my turn...*
- When all the groups finish,
 1. You can all choose one design by voting. Then, make photocopies of the chosen design for all the groups and fill each shape with beans, lentils and chickpeas.
 2. Each group can fill its own design and then put all the designs together on the cardboard to decorate the pavement.



Items required

- Elicit from the pupils or teach them the essential vocabulary they need for the activity they are going to do. We need our design or the design we have chosen, we need glue and brushes and we need lentils, chickpeas and beans.
- Make different pupils responsible for the different materials. Every time the others need something they have to go to the relevant monitor and ask for what they need. Exemplify, taking a person, going with them and bringing all the brushes to their desk. Take another pupil, go with them to the brushes monitor and role-play the dialogue they need. When the session finishes each monitor must collect all the items they are in charge of and make sure everything is in order.

Sequenced steps

- You are going to work together so first decide who is going to do what.
- Then, go and ask for lentils and chickpeas, etc. What do we have to say? "Can I have some lentils please". And what does the helper say?: "Here you are." And we answer: "Thank you".
- Finally, spread the glue with the brushes, glue the pulses on and leave them to dry.
- O.K.? What do we have to do?(repeat the procedure)
- Now let's tidy up while they are drying. All the waste pulses in the bin please. Let's sweep them up off the floor.
- Now let's put all the mosaics together on the cardboard to decorate the pavement leading to the coliseum

Following the instructions

- Now, provide the equipment and let the children follow the instructions to decorate the mosaic.
- All these procedure might take two hours or more. So you could divide the procedure into two lessons (Read the book, reasearch and create the mosaics in the first session and glue the pulses on and leave them dry in the second) or share some work with the tutor.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

74. jarduera	LANAREN BALORAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan <i>elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</i>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 34. orrialdea eta eraikuntzen maketen argazkiaren kopiak	
AZALPENA		

Orrialde horretan proiektuaren balorazioa eta komunikazioa egingo ditugu:

- Orrialde horiei ekin aurretik, eraikuntzen (koliseoa eta ubidea) maketen argazkia prest edukiko dugu. Lehenengo, argazkia itsatsiko dugu.
- Sintesi-jarduera da, hau da, Erromako gaiaren inguruan egindako lana balioesteko proposatzen den jarduera. Alde batetik, gogoia eta gozamina (*Zer da gehien gustatu zaizuena? Zer da zuen ustez oso ondo egin duzuen?*) eta bestetik hobetu beharrekoak (*Zertan saiatuko zara gehiago hemendik aurrera?*).
- Egindakoak gogora ekarriko ditugu: antzinako Erromari buruz gauza berriak ikasi, aztarnak ikusteko irtenaldia egin, elkartasunezko jolasa egin, eskulanak egin, ipuina entzun, abestiak ikasi, erromatarrez mozorrotu... Minutu batzuk liburuari begiratzeko eta bakarka pentsatzeko aukera eman ondoren, erronda bat irekiko dugu, bakoitzak, labur, zer pentsatu duen esateko aukera eskainiz.
- Koliseoa eta ubidea elkarrekin egin dugun lana denez, talde-kohesioaz berriz hitz egiteko aukera ematen digu. Koliseoaren maketa eraikitzeke eta mosaikoa osatzeko, banakakoen erantzukizuna eta ardura eta banakakoen arteko elkarosagarritasuna guztiz beharrekoak ziren. Ekipo hitzaren esanahia argitu genuen egunean, egin genituen jokoak eta atera genituen ondorioak gogora ekarriko ditugu. *Zertan jokatu dugu ekipo baten moduan? Gora gu eta gutarrak!*
- Azkeneko atalaren (ETXEKOEN IRITZIA) behaketa egingo dugu orain. Gelan bi galderak ondo argituko ditugu hurrek etxekoei zeregina adieraz diezaieten. Garrantzitsua da, baita ere, etxekoen erantzuna hurrek oso ondo ezagutzea berak egin beharko baitu (hainbat hizkuntzen kasuan) itzultzaile lana.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

75. jarduera	BUKAERAKO KOMIKIA: HAU AL DA ZIRKUA?	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar <i>interpretatzea</i>.</p> <p>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren <i>testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea</i>.</p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 35. orrialdea	
AZALPENA		

- Aurreko komikietan zer gertatu zen gogoratuz hasiko gara.
 - *Gogoratzen al zarete zer gertatu zen aurreko komikietan? Nola bururatu zitzairen Fermi eta Maddaleni Erromara joatea? Nora iritsi ziren? Zer pentsatu zuten erromatarrek Maddalen eta Fermin ikustean?*
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu ikasleei:
 - *Zer egingo dute Maddalenek eta Ferminek Erroman? Zirkura joango ote dira? Zer ikusiko dute zirkuan?*
- Haurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
 - *Zer dugu orrialde horretan? (Komikia). Zertan ari dira Maddalen eta Fermin?*
- Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren baliabideetan (harridurak, galdera-ikurrak, notak, garrasiak, narratzailearen eta pertsonaien hitzak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsua iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
 - *Zein hiritara joan dira Maddalen eta Fermin? Zein izango da Maddalen eta Fermin museorako Erromatik eramango duten pieza?*
 - *Zuek izan al zarete inoiz matetan/zirkuan? Zer moduz pasa zenuten? Inoiz ikusi al duzue bi pertsona helduren arteko borroka gogor bat? Nola sentitu zineten? Zuek borroka egitea gustatzen al zaizue? Borroka egiteko arauak eta tokiak adostea egokia iruditzen al zaizue? Zergatik? Erromatarrek aisialdian egiten dituzten gauzen artean zein iruditzen zaizue dibertigarriena? Zergatik diote erromatarren zirkua basakeria dela?*
 - *Erromara iritsi zirenean erromatar batek esan zien han ezin zela aparkatu? Denboraren makina aurkituko al dute utzitako tokian?*
- Haurrek, elkarren artean, irakurketa-maila ezberdina izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu).
- Gelakideen mailaren arabera, biko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanaz (Fermin, Maddalen) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rola txandatu bi irakurketa eginez.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginez.
 - *Maddalen eta Fermin dinosauroen garaian, lehen gizakiaren garaian, Grezian eta Erroman egon dira. Orain berriz, nora joango dira?*
- Maddaleni eta Fermi gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu.
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (DENARIO, MUSEORAKO, ZIRKURA, KOLISEOKO, GLADIADOREAK, BASAKERIA...) bilatzeko eskatu eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko du. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitzete antzeko maila duten haurrak elkartzen). Galdetu haurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

ERANSKINAK

1. jarduera: GREZIA ETA ERROMAKO TXOKOA

Kaixo gure laguntzaile fin eta leialak!

Aspaldi honetan nahiko lasai utzi zaituztegunez, oraingoan, zuen seme-alabekin batera lanean jartzeko asmotan idazten dizuegu. Ez larritu lagunok, oso lan atsegina izango baita!

Gure denboraren makina miragarria erabiliz, antzinako Greziara eta Erromara egin dugu bidaia. Adin honetako hurrei hauei buruz zer dakiten galdetu izan diegunean, ezer gutxi dakitela konturatu gara eta ez da harritzekoa, guk ere gauza gehiegirik ez baitakigu! Hau dela eta, hauxe eskatu nahi dizuegu: zuen seme-alabekin batera antzinako Greziari buruz etxean dituzuen liburuak ikusteko, aurkitzen dituzuen argazkiak denon artean aztertzeko, lortzen dituzuen kondairak oheratzerakoan kontatzeko... eta eskuartearen duzuen dokumentazio guzti-guztia ikastolara bidaltzeko gure txoko zuria martxan jarri ahal izateko.

A, eta ez ahaztu ikastolara bidaltzen duzuen materialean, zuen seme-alabaren izena jartzea komeni dela, gaia bukatu bezain laster dena txukun-txukun bueltatu ahal izateko!

Ikusiko duzue zenbat gauza ikasiko ditugun denon artean antzinako Greziari buruz!

Ondo izan eta Olinpoko Jainkoek gorde gaitzate!

Maddalen eta Fermin

Queridísim@s colaborador@s:

Puesto que hace mucho que no solicitamos vuestra ayuda, os vamos a poner a trabajar un poquito. No os asustéis, pero tenemos un problemilla.

Resulta que esta vez nos hemos ido de viaje a la antigua Grecia y Roma y que cuando se les pregunta a l@s niñ@s de la edad de vuestro@s hij@s sobre esta época, apenas saben nada y aunque esto es muy normal, es mejor que entren en el tema un poquito ambientad@s, porque de esta manera disfrutan y aprenden mucho sobre el mismo.

Lo que quiere decir que sería muy conveniente que veáis, observéis, leáis todo lo relacionado con la antigua Grecia que tengáis entre manos (libros, fotos, postales, leyendas...) y además que como siempre, mandéis a la ikastola el material que pueda ser de interés con el nombre bien puestito para que os lo podamos devolver debidamente.

¡Ya veréis todo lo que vamos a aprender entre tod@s!

¡Que los dioses del Olimpo os protejan!

Maddalen y Fermin

7. jarduera: NON ETA NOLA BIZI ZIREN ANTZINAKO GREZIARRAK'

ELKARRIZKETARAKO ARAUAK		Hizlariaren izena:			
		Behatzailearen izena:			
		LEHENENGO ELKARRIZKETA	BIGARREN ELKARRIZKETA	HIRUGARREN ELKARRIZKETA	LAUGARREN ELKARRIZKETA
	HITZ EGIN AURRETIK PENTSATU				
	TXANDAKA HITZ EGIN				
	BESTEENA ENTZUN				
<p>*** BIKAIN ** ONGI * HOBETU BEHARRA</p>					

Troiako zaldia

Antzinateko guden artean entzute handia izan zuen Troiakoak. Garai hartako kontakizunek diotenez, Troiako erregearen semeak, Parisek, Greziako Melenao erregearen emaztea, Helena, bahitu egin zuen eta Troiara eraman. Melenao ikaragarri haserretu zen.

—Troia osoa birrinduko dut —esan zuen.

Bahiketa horregatik sortu omen zen Greziaren eta Troiaren arteko gudatea.

Greziarrak Troiaraino joan ziren beren itsasontzietan, eta inguratu egin zuten bederatzi urtez, eta eraso egin menderatuko zutelakoan, baina Troiako hiriak harresi sendoak zeuzkan, eta bederatzi urteko setioa igaro ondoren ere tinko jarraitzen zuen.

Greziarrak etsitzen hasiak zeuden, hainbeste urteren buruan lortu ez zutena lortu ezinezkotzat jotzen baitzuten.

Buruzagiak elkartu ziren, eta gehienek esan zuten:

—Goazen bakoitza geure lurraldera, eta utz dezagun Troia bakean, bederatzi urtean borrokan egin ondoren zoritxarrak besterik ez baitugu jaso hiri honetako harresien oinetan.

Baina Ulises Ithakako erregeak esan zien:

—Zaudete apur batean. Ideia bat bururatu zait!

Ulisesek kontatu zien bere ideia, eta greziarrak egurrezko zaldi erraldoi bat eraikitzen hasi ziren ezkutuan. Bukatu zutenean, Troiako harresi ingururaino eraman zuten bultzaka eta bertan utzi.

Hurrengo goizean, eta troiarren begi aurrean, greziarrak itsasontzietara igo eta hiri inguruetatik desagertu egin ziren. Simon izeneko greziar bakar bat geratu zen hondartzan.

Troiarrak pozik ziren beren etsaiak alde egiten ikusita. Hiritik irten ziren, hondartzara iritsi eta Simon atxilotu zuten.

—Zergatik ez zara joan gainerakoekin? —galdetu zioten.

—Denak presaka ziren hemendik joateko —esan zien Simonek—, eta nire gauzak jasotzen ari nintzen bitartean ontzietako oihalak zabaldu eta alde egin dute ni hemen ahaztuta utzita.

—Zer da zaldi handi hori? —galdetu zioten gero.

—Zaldi hori Minerva jainkosari eginiko opari bat da. Etxerako bidaia ona edukitzeko eskatuz Minervari egin genion oparia.

—Eta zergatik egin duzue hain handia?

—Zuek, troiarrok, gure oparia lapurtu eta hiri barrura ez sartzeko —esan zien Simonek.

Simonen hitzak entzun zituztenean, troiarrak oihu handiak egiten hasi ziren, esanez:

—Sar dezagun zaldia hiri barrura! Sar dezagun zaldia hiri barrura!

Baina zaldi erraldoi hura ez zen ate nagusian ere kabitzen, eta troiarrak ateak kendu, harresi zatiak bota eta zaldia hiri barrura sartu zuten.

Gau hartan, greziarrek alde egin zutela ospatzeko jai handiak izan ziren Troian. Jan eta edan, dantza egin eta abestu, jai egunaren ondoren, gauean, denak lasai asko joan ziren lotara, inolako ardurarik gabe. Baina Ulisesen maltzurkeria handia zen, eta Troiako hiri aurrean utzitako zaldi erraldoia tranpazkoa zen, Troia eta troiarrak galtzeko iruzurra. Zaldi erraldoiaren sabelean greziar gudariak zeuden ezkutaturik...

Troiarrak lo zeuden bitartean, zaldi barruan zain-zain zeuden greziar gudariak isil-isilik jaitsi ziren zaldi hartatik, eta gaueko ilunpean, hiriko ate guztiak zabaldu zituzten. Itsasontzietan joan ziren greziarrak ere ez ziren gehiegi urrutiratu eta eguna itsasontzietan pasatu ondoren Troiara itzuli ziren berriro. Hiri barruan zeuden gudariak eta itsasontzietan etorritakoak elkartu zirenean, erraz menderatu zituzten Troiarrak, eta goizalderako hiriaren jabe egin ziren. Greziarrek erre egin zituzten Troiako etxeak eta jauregiak, eraman zitzaizketen ondasun guztiak lapurtu eta hiriko gizonak eta emakumeak preso hartu.

Egun hartan amaitu zen betirako Troiako hiriaren indarra.

Guztia urre bihurtzen zuen Midas erregea

Frigiako erregea omen zen Midas, errege oso aberatsa. Bere jauregian bazeukan urre ugari, eta baita harri bitxiak ere, baina Midasen ondasun-egarria ez zen asetzen hala ere, eta urre gehiago nahi zuen, munduko gizonik aberatsena izan nahi zuen.

Egun batean, Midas erregeak mesede bat egin zion Bako jainkoari, eta honek esan zion:

—Eska iezadazu nahi duzuna, eta emango dizut.

Eta Midasek:

—Ukitzen dudan guztia urre bihurtzea nahi dut.

Bako jainkoa harritu egin zen hori entzunda. Harritu eta ikaratu.

—Seguru al zaude hori nahi duzula? Ez al zaizu iruditzen kaltegarria izan daitekeela zuretzat.

—Hori da nik nahi dudana —esan zion Midasek temati.

Bakok ez zion dohain hori eskaini nahi Midasi, benetan estimatzen baitzuen egin zion mesedea, baina erregeak behin eta berriro gauza bera eskatu zion.

Bako Jupiterrengana joan zen aholku eske, eta Jupiterrek esan zion:

—Emaiozu egoskor urre-zale horri eskatzen duena, eta berak jasoko du dagokion zoritxarra.

Eta Jupiter jainko guztien artean ahaltsuena zenez, Bako bere esanetara jarri zen eta honela erantzun zion Midasi:

—Ukitzen duzun guztia urre bihurtzea nahi duzu, eta beteko dizut gutizia hori, baina ziur nago zure kalterako izango dela eta laster damutuko zaizula eskabide hori egin izana.

—Eskerrik asko, eskerrik asko —eskertu zion Midasek.

Bako jainkoa joan bezain azkar hasi zen Midas erregea eskainitako dohaina benetakoa zen ala ez frogatu nahian.

Lorategian zegoen olibondo adaska bat hartu zuen eskuetan eta urrezkoa bihurtu zen ukitzearekin bakarrik. Hiru edo lau froga egin ondoren pozez txoratuta zebilen Midas.

—Orain bai. Orain munduko gizonik aberatsena izango naiz. Urrezko ontziak edukiko ditut mahaian, urrezko apaingarriak soinean eta urrezko eskulturak lorategian... Hau ospatu egin behar da! —esan zuen, eta zerbitzariari agindu zien sekulako otoruntza antolatzeke dohain miresgarri hura behar bezala ospatzeko.

Zerbitzariak janari ezin gozoagoak eta edari izugarri onak prestatu zituzten Midas erregearentzat, baina alferrik! Midas eseri zen mahaian baina jaki zoragarri haiek ahoratu nahian hasten zen bakoitzean urrezkoak bihurtzen zitzaizkion. Hura zoritxarra! Ukitzen zuen guztia urre bihurtzen zuen: ogia, arraina, gozoak... Ezin ezer irentsi! Eta edariekin berdin. Ardo onenak jarri zizkioten aurrean, baina alferrik haiek ere! Ukitu orduko urre bihurtzen zen edalontzia eta urre ardoa. Amorraturik eta ezer jan eta edan gabe altxatu zen mahaitik Midas gizagaixoa.

Laster baino lehen aspertu zen errege hura hainbeste irrikaz desiratu zuen dohainaz. Nazka-nazka eginda zegoen ahalmen berriarekin.

—Inguruko gauza guztiak urre bihurtzeko ahalmena dut eta hala ere gosez eta egarriz hiltzeko zorian nago. Zertarako nahi dut hainbeste urre, jateko balio ez badu?

Horrela kexaka ari zela, ordura arteko zoritxarrik handiena gertatu zitzaion. Urrezko besaulkian buru makur eserita zegoela, bere alabatxo maite-maitea etorri zitzaion, eta ezer esan eta egiteko denborarik eman baino lehen, umeak altzora salto egin eta aitatxorekin jolasean hasi nahi izan zuen.

Bihotza erdibitu zitzaion Midas erregeari orduan gertatu zenarekin: urrezkoa bihurtu zitzaion alabatxoa besoetan! Negar batean, bere burua madarikatzen hasi zen Midas, eta malkoak ere urrezko bihurtu zitzaizkion.

—Hau ez da dohain bat, hau zigor ikaragarri bat da! —egin zuen oihu Midas erregeak—. Bako, ken iezadazu zuk emandako ahalmen kaltegarri hau! Ez dut nahi! Ez dut urrerik ikusi ere egin nahi!

Midasen etsipena eta ezina ikusirik, Jupiter jainkoak esan zion:

—Entzun dut zure eskaria. Badirudi ikasi duzula urre-egarriak ez dakarrela gauza onik. Zoaz Paktolo ibaira, sar zaitez hango uretan, eta galduko duzu orain duzun ahalmen hori.

Midas berehala joan zen ibai hartara eta uretan sartu ondoren bere dohaina galdu zuen. Geroztik oso ospetsua bihurtu omen zen ibai hura, noiznahi urre aleak aurkitzen baitzituzten uretan.

Ahalmen pisutsu hura galdu ondoren, pozik zihoan etxerantz Midas erregea eta bidera lasterka agertu zitzaion lehentxeago urre bihurtuta utzi zuen alabatxoa. Alaba besoetan hartu eta zertxobait jatera joan zen orduan.

—Ogi puska baten gozoa, ur pixka baten freskotasuna, alaba baten maitasuna... Horiek dira benetako aberastasunak —esan zuen Midasek.

Atalanta eta urrezko sagarrak

Beoziako lurraldeetan, Greziako erdialdean, ba omen zen aparteko korrikalaria zen neskatxa bat. Erbiak eta basahuntzak bezain arina omen zen Atalanta izeneko neskatxa hori, eta korrikalari ona izatez gain neskatila eder eta xarmanta omen zen gainera.

Beoziako erregeak ezagutu zuenean, esan omen zuen:

—Ez dago munduan neska hori bezalako beste bat!

Erregea oso harro zegoen Beoziako erresuman Atalanta bezalako neska bat sortu zelako.

—Nik emango dizut zuk merezi duzun senarra —esan zion erregeak Atalantari.

Erregeak mezu bat zabaldu zuen Beoziako lurraldean eta ingurukoetan, eta honela zion mezu horrek:

“Atalantari korrika irabazten dion gazteak sari handi bat jasoko du, eta gainera neskatxarekin ezkonduko da. Edonork egin diezaioke apustu, baina neskak irabaziko balio, ez luke korrikaldia bakarrik galduko, baita bizitza ere.”

Apustu gogorra zen. Irabaziz gero, saria lortu eta Atalantarekin ezkondu. Galduz gero, bizitza ere galdu. Hala eta guztiz ere, zenbait gazte ez ziren batere kikildu eta han azaldu ziren froga egitera. Alferrik ordea!

Agertu ziren guztiak zori txarra izan zuten, batzuk, irabazi nahian gehiegi saiatu eta korrika ito ziren; beste batzuk, etsi egin zuten eta Atalantaren atzetik iritsi ziren helmugara, eta han galdu zuten bizia, erregearen soldaduek hil egin baitzituzten.

Halako batean, ordea, gazte lirain batek, Hipomenesek, Atalanta ikusi zuen, eta zeharo maitemindu zen.

—Neska horrekin ezkondu behar dut —esan zuen—, eta horretarako korrika egin eta irabazi egin behar badiot, halaxe egingo dut.

Nola edo hala irabaztea erabaki zuen, baina jakin bazekien zein arriskutsua zen horrelako apustu bat egitea, eta lasterketa aurretik maitasunaren jainkosari, Afroditari, laguntza eske joan zitzaion.

—Afrodita, zure laguntza behar dut maite dudan neskatxarekin ezkontzeko, bestela galdua naiz.

Eta esplikatu zion nolako egoeratan zegoen. Afrodita jainkosak entzun zuen gaztearen otoitza, eta errukitu egin zen. Lorategiko zuhaitz batetik urrezko hiru sagar ale eman zizkion eta nola erabili behar zituen erakutsi.

Lasterketa egunean milaka lagun bildu saio hura ikusteko.

Irteerako seinalea egin zutenean, ikaragarritzko abiadan abiatu ziren biak, berebiziko hanka-joko arinaz. Bizkorra zen neskatxa, baina ez zen motelagoa mutila!

Bide luzean, orpoz orpo joan ziren biak, baina bide erdia egin baino lehen konturatu zen Hipomenes Atalanta bera baino gehiago zela.

Neska aurrea hartzen ari zitzaiola ikusi zuenean, Afrodita jainkosak emandako urrezko sagarretako bat bota zuen Atalantaren albora. Neskak sagar zoragarri hura ikusi zuenean, abiadura moteldu eta jasotzera joan zen... eta mutilak aurrea hartu zion.

Baina, Atalanta ez zen estutu horregatik. Tipi-tapa, tipi-tapa, hasi zen berriro bizi-bizi korrika, eta laster zen mutilaren parean.

Bigarren aldiz ere Atalantak aurrea hartu zion gazteari, eta honek berriro ere gauza bera, bota zion bigarren sagarra, eta, neska han geratu zen hura ere jasotzeko.

Lasterketa amaitzeko zegoenean, berriro ere aurretik zen Atalanta, eta Hipomenesek hirugarren sagarra bota behar izan zion. Neska sagar hura jasotzera joan zen bitartean egundokoak jo zituen mutilak eta neskaren aurretik, juxtu-juxtu, baina aurretik iritsi zen helmugara. Hango txaloak eta oihuak Hipomenes gazteari! Irabazi zuen saria!

Baina Hipomenesen saririk eta zorionik goxoena Atalantak eman zion besarkada izan zen. Bere besoetan zeukan saririk ederrena, gehien maite zuena. Atalanta ere ez zen asko zapuztu mutilak irabazi ziolako. Askok poztu zen, ikusi baitzuen mutil hura buruz argia zela, eta pozik hartu zuen senartzat halako mutil lirain eta azkarra.

Pigmalion eta Galatea

Greziako irudigile ospetsua izan zen Pigmalion. Gazte-gaztetatik hasi zen egurrezko eta harrizko irudiak egiten, eta ospetsu egin zen inguru haietan.

Jende asko joaten zitzaion bisitan eta hark egindako irudiak ikusita, esaten zuten:

—Zoragarriak dira, bizirik daudela dirudite! Arnasa hartzea besterik ez dute behar benetakoak izateko!

Behin batean, irudi berri bat egiten hasi zen Pigmalion.

—Neskatxa eder baten irudia egin behar dut —esan zuen.

Marmol zuri puska handia hartu, eta arreta osoz hasi zen ordura arte egindako irudirik ederrena egiten. Denbora luzez aritu zen lanean, buru, aurpegi, bular, beso eta oinak taxutzen, zein baino zein ederragoak eginez. Gustura zegoen, gero eta poz handiagoa zuen, ikusten baitzuen amaitzen ari zen lan hura egin zuen ederrena zela. Zenbaitetan, ameskeriak ere izaten zituen. Lanari azkeneko ukituak ematen ari zela, irudiak irribarre egiten ziola iruditu zitzaion behinola Pigmalioni. Beste batean, ezpainak mugitu zituela amestu zuen, eta, eskulturak eta zer edo zer esan nahi ziola.

—Zoratzen hasi ote naiz? —galdetu zion Pigmalionek bere buruari.

Pigmalionek benetako pertsona balitz bezala zaintzen zuen berak egindako harrizko estatua hura, egiazko jantziak janzten zizkion hoztu ez zedin, urrezko kateak ipini, eskumuturrekoekin apaindu, eraztun ederrak ipini hatzetan... Azkenerako, etxeko bat gehiago zenez, izena erre jarri zion: Galatea.

Pigmalion txoratuta zegoen Galatearekin. Orduak igarotzen zituen bere etxeko gela ederrenean Galateari begira.

—Maiteminduta naukazu —esaten zion.

Eta erabat maiteminduta zegoela konturatu zen.

—Pozik hartuko zintuzket emaztetzat bizirik egongo bazina.

Afrodita jainkosa ahaltzua zen Greziako lurraldeetan, maitasun kontuetan gehien ahal zuen jainkosa. Pigmalionek opari bikainak eskaini zizkion Afroditari eta oparien truke eskari harrigarria egin zion Pigmalionek halako batean jainkosari:

—Ene jainkosa eskuzabal eta ahaltsua! Bizia, arnasa eta maitasuna ematen duzun jainkosa eskuzabala! Zabal itzazu zure dohainak, eman iezaiozu arnasa nire eskuekin egin dudan Galateari. Eman iezaiozu arnasa!

Etxera itzuli zenean, bihotza estutua eta bihurritua sentitzen zuen Pigmalionek. Lasterka Galatea zegoen gelara joan zen eta hari begira geratu zen. Begira zegoela, bat-batean, estatua arnasa hartzen hasi zen, masailak gorritzen hasi zitzaizkion eta ezpainetan irribarre gozoa loratu zitzaion. Galatea zutabe gainetik jaitsi zen eta besoak luzatu zizkion Pigmalionen besarkada baten eske bezala. Erabat zoraturik, Pigmalionek Galatea besarkatu zuen, eta istorio honek kontatzen duenez, elkarrekin oso zoriontsu izan omen ziren urte luzez.

Oihartzun eta Nartziso

Greziako aspaldiko kondaira batek Oihartzun eta Nartzisoren istorioa honela kontatzen du:

Oihartzun neska eder bat zen, oihan eta iturrietako ninfa pinpirina. Nartziso, berriz, garai haietako mutilik ederrena zen. Oihartzunek Nartziso ikusi zuen batean, erabat maitemindu zen hartaz. Hain zen ederra mutil hura! Nartzisok, ordea, ez zion batere kasurik egin, eta Oihartzun gajoa maitasunez gaixotu zen, ez zuen jaten, ez zuen edaten... Denborarekin, giharrak urtu eta indarrak ahuldu zitzaizkion, eta ikusezina bihurtu zen azkenean. Ahots pittin bat besterik ez zitzaion geratu Oihartzun gaixoari, eta entzuten zituen hitzen amaierak bakarrik errepika zitzakeen. Norbaitek esaten bazuen:

—Ni Mikel naiz!

Oihartzunek errepikatzen zuen:

—Naiz, naiz, naiz...

Afrodita, maitasunaren jainkosa, erabat haserretu zen neska koitadu haren egoera ikusita, eta esan zuen:

—Bihotzik gabeko mutil eder horrek izango du zigor galanta egin duenaren ordainetan.

Eta joan zen Nartzisorengana, eta lo zegoen bitartean sorginkeria gaizto bat egin zion:

—Ez duzu zeure burua ez den beste inor maitatuko! —esan zion.

Eta Nartziso esnatu zenean, putzu batera joan zen, egarri baitzen, eta putzuko uretan bere buruaren irudia ikusi zuenean maitemindurik geratu zen hartaz, eta ez zuen handik alde egiterik izan.

—Zein ederra naizen! —esaten zuen Nartzisok, eta bere irudiari begira geratzen zen.

Ez zuen jaten, ez zuen edaten... Denborarekin, giharrak urtu eta indarrak ahuldu zitzaizkion, eta lore zuri-horia bihurtu zen azkenean.

Lore horrek izen asko ditu: lilipa, anbulu gaiztoa... eta nartzisoa. Eta beti-beti leku urtsuetan jaiotzen da, putzuen ertzetan batez ere.

J. M. Olaizola "Txiliku"

42. jarduera: TXOKO ZURIA

Ave Cesar, gure laguntzaile zintzoak!

Berriro hemen gauzkazue laguntza eske! Egia esatea nahi baduzue, irakaslea eta hirurok zeharo harrituta gaude lantzen ari garen gaien inguruko materiala lortzeko eskaintzen diguzuen laguntza paregabearekin. Mila esker denoi!

Beno, dagoeneko jakingo duzue, oraingo honetan Erromatar Inperioaren garaira bidaiatu dugu eta erromatarren gaia lantzen hasi gara. Hau dela eta, etxean Erromarekin edota erromatarrekin zerikusia duen edozer gauza baldin baduzue, lehenbailehen ikastolara bidaltzeko eskatu nahi dizuegu (liburuak, komikiak, posterrak, Erromako postalak, Ponpeiako argazkiak...) A! Eta erromatarrez jantzi ahal izateko, oihal zaharren pusketak, jostailuzko bitxiak (belarritakoak, eskumuturrekoak, lepokoak...) ere beharko genituzke.

Ba al zenekiten, erromatarrek Euskal Herrian uste baino eragin sakonagoa izan zutela? Ba al zenekiten hiri oso garrantzitsuak zeudela? Hala nola, Pompaelo, Lapurdum, Oiaso, Veleia, Forua...

Bada, hurrengo egun hauetan, zuen seme-alabekin batera, zuek ere erromatarrei buruzko gauza asko ikasiko dituzuelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Agur Ben-hur!

Maddalen eta Fermin

iAve nostrum colaboratoribus!

Está claro que lo nuestro no es el latín, al menos de momento. Bueno, pues como siempre, os escribimos para pedir vuestra colaboración. Seguro que habéis adivinado a dónde hemos viajado esta vez, al Imperio Romano!

A estas alturas ya sabréis lo que tenéis que hacer: mandar a la ikastola todo aquello relacionado con los romanos y las romanas que encontréis en casa. Además, esta vez queremos vivir la época con veracidad y para ello necesitamos unos trapillos (pedazos de sábanas o telas viejas para simular las túnicas), algo de bisutería barata (anillos, pulseras, broches, diademas... de juguete claro), cintas... para disfrazarnos de vez en cuando.

iAh! ¿Y sabíais que en Euskal Herria había ciudades romanas muy importantes y que se están encontrando restos arqueológicos de bastante importancia? ¿Os suenan los nombres Pompaelo, Lapurdum, Oiaso, Veleia y Forua?

Por Júpiter, que vosotr@s también aprenderéis mucho junto a vuestros hij@s y mientras tanto recibid nuestro más cordial saludo.

Alea jacta est!

Fermin y Maddalen

Iñabe eta Numeriano

Iruñea inguruan, erromatarren garaian, Iñabe izeneko neskatila bat bizi zen. Bidebakter batean masusta bila zebilen batean, hara hor non azaltzen zaion mutiko bat.

—Zu nor zara eta zer egiten duzu hemen? —honelaxe galdetu zion mutikoak.

—Ni Iñabe naiz eta nire etxekoentzat masusta bila nabil. Eta zu nor zara? —galdetu zion neskatilak.

—Ni Numeriano naiz, erromatarra. Iruñean bizi naiz eta...

Iñabe eta Numeriano lagun handiak egin ziren. Handik aurrera, goizero-goizero, hantxe elkartzen ziren bi neska-mutilak, garai hartan ez baitzegoen eskolara joan beharrik.

Iñabe oso familia pobreakoa zen. Numeriano erromatarraren etxean, berriz, ez zitzairen ezer falta. Denetik zeukaten nahikoa. Horregatik, Numerianok, egunero ekartzen zion zerbait Iñaberi: gari aleak, soroan ereiteko; oliba eta mahats landareak, etxe inguruan aldatzeko; oihal zati politak, soinekoak egiteko... Eta hori bakarrik ez; denario izeneko txanpon batzuk ere eramaten zizkion noizean behin mutiko erromatarrak neska euskaldunari.

Handik aurrera, lehen baino askoz hobeto bizi izan ziren Iñaberen etxean. Bazuten zer jana, zer jantzia eta diru pixka bat ere bai Iruñeko azokara joateko.

Baina, egun batean, Numeriano ez zen azaldu goizero elkartzen ziren lekuan. Hurrengo egunean ere ez, eta ezta hurrengoan ere.

Iñabe goibel zebilen, kezkatu, bere lagunik handienari zer gertatu ote zitzaion jakin nahita. Horregatik, Iruñera joatea erabaki zuen bere lagunaren berrien bila. Eta Iruñeko kalean zehar zihoala, "Iñabe!", deitu zion norbaitek harrizko leiho estu batetik. Numerario zen. Zigortuta zegoen, nonbait, etxetik denarioak lapurtzen zituelako.

—Beste bi egun geratzen zaizkit —esan zion mutikoak neska-. Baina etzitik aurrera berriro ere han izango naiz goizero.

—Bai, baina kontuz ibili. Ez ekarri niri dirurik. Bestela... —erantzun zion neska.

Ez dakigu handik aurrera zer gertatu zen.

*Piztu zuen irudimena
eta asmatu
istorio honen jarraipena.*

Joxan Ormazabal